

Goienkaria

2009ko apirilaren 24a > Egubakoitza > IX. urtea > 373. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Alergia ez da herentziatzko gaixotasuna, baina genetikak zerikusi zuzena du"



Saioa Esnal
Santiago ospitaleko
alergologoa > 09

G2a

Debagoieneko
trikiti eguna
Antzuolan > 37

ARRASATE

Gazte Eguna egingo dute bihar,
gaztetxearen 18. urtemugan > 13

BERGARA

Irala kaleko azken zatia maiatzaren
4an hasiko dira egokitzen > 16

KIROLA

Aloñako 5. igoera jokatu da
domekan, 270 lasterkarirekin > 35

ELGETA > ESPAINIAKO GERRA

Gerrako biktimak gogoan

Elgetan ibilbide tematikoa egin dute, Intxortako magalean barrena > 11

EKONOMIA > LANA

Ikasketa eta lan tailerra dago abian ibarreko langabeendako

Krisia hasi zenetik, udaletako enplegu bulegoak, bestelako erakundeak zein ikastetxeak ahalegin berezia egiten dabilta. Egunotan zabalik dago enplegu tailer baterako izenemate epea, langabeek arlo jakin batean ikasi eta lan egin dezaten. > 02-03

Autoen gaineko gehigarria

GOIENKARIArekin batera automobileren buruzko orrialde bereziak, barruan.



AURKIBIDEA

Debagoiena > 05
Iritzia > 06
Elkarrizketa > 09
Gutunak > 10
Herriak > 13-33
Kirola > 34-35
Kultura > 38-39
Saikatuak > 40
Telebista-Irratia > 43
Berri-zakua > 44-45
Eskelak > 45
Non-zer > 46-47



BERGARAN Debagoieneko bulegoa Bergaran du Foru Ogasunak. Ekainera bitartean jende asko hartuko dute han.

XABIER URTZELAI

EUSKARA > KANPAINA BERRIA

Errenta aitorpena euskaraz egiteko kanpaina abiarazi dute

UDALAK Debagoieneko udalak dira kanpainaren bultzatzaileak; 'Nora begira zaude? Egizu aitorpena euskaraz' leloa du

LAU MODU Aitorpena egiteko lau moduak egin daitezke euskaraz: autolikidazioa, mekanizatua, telematikoa eta inprimakia

DATUAK Iaz debagoienarren %8,73k egin zuten aitorpena euskaraz; gehien Antzuolan eta gutxien Aretxabaletan > 05

JENDARTEA > IKERKETA

Debagoienari esker, AP-1-ek onurak ekarriko dizkio Arabari

Gureko enpresentzat negozio aukera berriak sortzeaz gain, Gasteizera maizago joango gara > 05

POLITIKA > EUSKAL PRESOK

Azpitarteren aldeko bilkurak

Gaztearen askatasuna eskatu dute Eskoriatzan egindako bilkuretan. Gorka Azpitarte zapatuan atxilotu zuen Frantziako poliziak, ETA-rekin hartu-emana duelakoan. Parisen da, epailearen aurretik pasatzeko zain. > 05

Pello Zabalaren
Eguraldia beti airean
liburua

Apirilak 25, larunbata
kartilla eta 1. kupoia
berriekin



Aukera ezazu,
BIZI euskaraz
berria

KRISIA > LANA

Udal enplegu zerbitzuak, krisi egoeran erreminta baliagarri

HIRU HERRITAN Debagoiengan, Arrasate, Bergara eta Oñatiko udalek dauzkate enplegu zerbitzuak; Mankomunitateak Ekonomia Garapen Agentzia dauka

BALIABIDEAK Lana topatzeko formula magikorik ez dagoen arren, langabeendako eta baita langileendako ere ikastaro eta baliabide interesgarriak dituzte

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Ekonomia krisi garai honetan, udalak eta beste erakunde batzuk buru-belarri jarri dira, ahalik eta baliabide gehienak langabezia daudenen esku ipintzeko. Debagoiengan, hiru udalek dituzte enplegu zerbitzuak: Arrasatek, Bergarak eta Oñatik. Debagoiengoko Mankomunitateak, bestetik, Garapen Ekonomikorako Agentzia dauka, eta bere kabuz ekimenak antolatzen ditu.

Egunotan, zerbitzu berri baterako izenemate epea dago zabalik: Enplegu Tailerra. Hori Mankomunitateak antolatu du, INE-Men laguntzarekin. Enplegu Tailerraren ezaugarri garrantzitsuenak da enplegu eta prestakuntza tresna dela, hau da, 25 urtetik gorako 32 parte-hartzaileek sukaldaritzan, eraikin eta hiri-altzarrien mantenuan edo eguzki-plaken instalazioan eta mantenuan formazioa jasoko dute, eta, bestetik formazio-kontratua izango dute, hileko 900 euro inguru-

Enplegu Tailerra dago abian, formazio-kontratua eskaintzen duen ikastaroa, 25 urtetik gorakoendako

Udalek erabaki dute, langabeziari aurre egiteko, udalean sor daitezkeen aldi baterako lan deialdi gehiago egitea

ko soldatarekin erakunde publikoetan lan egiteko. 12 hileko programa da hori.

AHALEGINA HANDITU

Enplegu Tailerra bezalako tresnak ezinbesteko bihurtu dira. Egoera inoiz baino larriagoa da: INEMeko datuen arabera, 568 bergarar dago erakunde horretan izena emanda, eta Arrasateko 1.500 lagun. "Datu horiek 90eko hamarkadako parekoak dira", dio Arrasateko Udaleko Enplegu teknikari Marga Garmendiak.

Horri aurre egiteko udal plan berezien barruan dago Enplegu Tailerrarekin bat egiteko erabakia. Tresna gehiago dago: hala, udalean sor daitezkeen ezohiko eta aldi baterako lanetarako deialdi gehiago egiten dabilta erakundeok; langabeendako ikastaroak antolatu dituzte edo antolatzeko asmotan daude; herriko zein eskualdeko ekonomia jarduerak aztertu eta hutsuneak betetzeko programak dituzte; eta formazio



Udaletako enplegu teknikariek kontsulta gehiago dituzte krisian sartu ginenetik. Irudian, Bergara

KRISIA

Lehenengo aldiz, gizonetako gehiengo dira

Betidanik, langabeen artean emakumeak izan dira gehiengoak. Orain, hori aldatu egin da: "Lehenengo aldiz, gizonetako gehiengo dira", dio Arrasateko udal teknikari Marga Garmendiak. Krisia industria sektorea astintzen dabil gogor, eta gero eta gizon gehiago daude lanik gabe. Hori egunero ikusten dute Arrasateko Kutxa-Zeharo enplegu laguntza zerbitzuan: "Gizon asko datozkigu, 45 urtetik gorakoak, 30 urtean enpresa berean ibili ondoren enpresak atek itxi eta kalean geratu direnak, eta ikasketak ez dituztenak. Egoera latzak ikusten ditugu", diote han.

edo lan aukera bereziak egoera sozioekonomiko larrietan dauden pertsonendako. Horien gaineko informazioa dagokion udal enplegu zerbitzuan lor daiteke; eta, unean uneko ekintzez gain, urte osoan informazio eta orientazio zerbitzua ematen dute.

Bestalde, herrian dagoeneko badauden sektoreak aztertu eta bultzatzen dituzte udalek. Hala, Arrasateren kasuan, gazteak lehen sektorean animatzeko ekintza bat prestatzen dabilta, eta,

gauza deigarri moduan, baserri-tarren azokak hilerok-hilerok egiteko asmoa dute.

Ibarreko hiru udal zerbitzuek gauza bera diote: euren gauza askoz jende gehiago joaten da krisiak Debagoiengoa jo zuenetik. Gehienak lan bila doaz, eta han laguntza eta argibideak ematen dizkiete. Fenomeno deigarri bat ere gertatzen da, hala ere: Bergarako teknikari Marije Unamunok dioen moduan, "krisi garaian, ekintzailetza handiagoa dago", eta

PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

UNIBERTSITATEA BIZITZEKO PREST!

ATE IREKIAK

etorriko zarela jakinarazi!

www.mondragon.edu/prest

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA**APIRILAK 25 - 11:00** larunbata**MAIATZAK 7 - 17:30** osteguna | **MAIATZAK 21 - 17:30** osteguna *2. zikloa*ARRASATE-MONDRAGÓN AULA MAGNA Tel.: 943 73 96 29 // bguerenu@eps.mondragon.edu**ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA****MAIATZAK 14 - 18:00** ostegunaOÑATI AULA MAGNA Tel.: 943 71 80 09 // cgarate@eteo.mondragon.edu**MAIATZAK 7 - 18:00** osteguna | **MAIATZAK 21 - 18:00** osteguna *2. zikloa*IRUN AULA MAGNA Tel.: 943 63 91 29 // ioiartzabal@bidaso.eteo.mondragon.edu**HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA****MAIATZAK 9 - 11:00** larunbataESKORIATZA AULA MAGNA Tel.: 943 71 41 57 // sarrera@huhezi.mondragon.edu



Bergarako Udaleko Enplegu Zerbitzuko Marije Unamuno (ezkerrean), herritar bat artatzen.

LEIRE KORTABARRIA

ESANAK

"Krisi egoeran, ekintzailletza handitu egiten da, eta jende asko dator ideiak aurrera ateratzeko laguntza bila"

Marije Unamuno > Udal teknikaria

lehen baino jende gehiago doa jarduera ideiak aurrera ateratzeko laguntza bila. Horretarako tresnak ere eskaintzen dituzte udalek:

besteak beste, Oñatin autoenplegu saio batzuk egingo dituzte, eta langileek ere parte har dezakete. Oñatiko Udala ere dabil ETEOko ikasle baten ikasketa-amaiera proiektua tutorizatzen, eta horren bidez, Oñatiko eta Debagoieneko negozio berriak garatzeko egon daitezkeen aukerak aztertuko dituzte. Ikerketa horren onuradun izango dira herriko eta eskualdeko langabeak eta langileak ere.

IKASKETAK

Sarritan Eusko Jaurlaritzaren zein Foru Aldundiaren programen eskutik, herritako Lanbide Heziketa ikastetxeek urte oso-

an ematen dituzte ikastaroak. Langabe askok, lana topatu ezean, euren burua hobeto prestatzea erabakitzen dute, eta institutuok ere gainezka daude. Adibide bat ematearren, Oñatiko Zuazola-Larraña institutuan, aurtun, uztailean ere ikastaroak emateko asmoa dute, ahalik eta jende gehienari aukera emateko.

Ikastetxe horiek lan-poltsa zerbitzua ere ematen diete ikasle ohiei. Datu deigarri bat: Bergarako Migel Altuna Institutuaren lan-poltsan, orain urte gutxi 10 bat lagun egotetik, orain 300 lagun egotera pasatu dira. Denak, lana topatzeko esperantzarekin.

UDAL ENPLEGU ZERBITZUAK

> **NON** Arrasaten (943 25 20 70 - www.arrasate-mondragon.org), Bergaran (943 76 91 75 - www.bergara.net) eta Oñatin (943 03 77 00) daude. Bestalde, Aretxabaletako institutuan lanbide zerbitzua dago (943 79 79 00).

> **IKASTAROAK** Egunotan, Enplegu Tailerrean izena eman daiteke, eta baita beste ikastaro batzuk Oñatin eta Bergaran; Arrasaten ere, laster izango dira.

> **LAGUNTZA** Lana bilatzeko informazioa eta orientazioa ematen dute urte osoan. Lan-deialdiak batu eta eskura ere jartzen dituzte.

> **HERRIA** Herriko jarduera ekonomikoaren egoera jarraitu eta laguntzen dute.

LANBIDE

> **NON** Udaletan jaso daiteke informazioa; Aretxabaletako Institutuan bulegoa dago. Webgunea badauka: www.lanbide.net.

> **ZER DEN** Euskal Enplegu Zerbitzua da Lanbide, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren menpe. Lan bila dabiltzanei zein enpresei informazioa eta aholkularitza ematen die, eta bitartekari lana ere egiten du.

> **LANGABEENDAKO** Lan bila dabiltzanek aukera daukate Internet bidez ere bilaketak egiteko. Herririk herri egin daitezke bilaketak.

> **IKASTAROAK** Askotan, erakunde publikoek eskaintzen dituzten ikastaroak egiteko, derrigorrezkoa da Lanbiden izena emanda egotea.

KUTXA-ZEHARO

> **NON** Arrasateko Otolara Lizenziaduna kalean (943 71 25 51). Internet: www.kutxasocial.net.

> **ZER DEN** Kutxaren Gizarte Ekintzak sortu eta Gureak taldeak kudeatzen duen lan-txertaketa zerbitzua da. Doakoa da.

> **ZEINI ZUZENDUA** Kutxa-Zeharok lehenetsuna ematen die laneratzeko arazoak dituztenei edo hor jautseko arriskuan daudenei.

> **ZERBITZUA** Orientazio eta bitartekaritza zerbitzuak ematen ditu; enplegua topatu dutenei egokitzen laguntzen die. Lan-poltsa ere badaukate.

> **ENPRESAK** Bazterketa egoeran daudenak kontratatzearen abantailen gainean informatzen dituzte enpresak.

Goienkaria

ASTELEHENEKO
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa

Apirileko zozketa

Sariak irabazteko
HARPIDETU!

Tel.: 943 08 10 50

harpidetza@goiena.com

Kuota: 40 euro

SARRERAK

Bruesa-Ricoh Manresa partidurako sarrerak.
BIDALI AG BRUESA 5533 zkra



KAMISETA+DVD

DANBAKA))))

Danbakako kamiseta eta DVD bat.
BIDALI AG DANBAKA 5533 zkra



KAMISETA

skunkfunk

Skunkfunk kamiseta bat.
BIDALI AG KAMISETA 5533 zkra.



PEN-DRIVE

Goienako Pent-Drive bat.
BIDALI AG PENDRIVE 5533 zkra.



SARI NAGUSIA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA



BELAONTZI BATEAN IRTEERA HONDARRIBIATIK

J.L. Abuinen eskutik

J.L. ABUIN / PUY BIDEBURU

25 urtetan teknika naturalak zure eskura jartzen

Mendia jauregia
639 02 47 14

S. Josepe, 10
943 77 01 33

Kiroldegia
943 77 16 77

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, hailer zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com



BATXILERGOAK
AURRE
MARIKULAZIOA:
maiatzaren
4tik 8ra



**guztiona,
guztion
artean**

goieskola@euskalnet.net |  605 773992 | www.goieskola.net

OÑATIKO INSTITUTUA

Batxilergoa: 943 781268
Lanbide Heziketa: 943 782150

Bilera informatiboa :

- Batxilergoak: maiatzak 6
Ordua eta lekua: 18:30, Zuazola Institutuan
- Lanbide Heziketa: maiatzak 7
Ordua eta lekua: 18:30, Larraña Institutuan

- Batxilergo Zientifiko-Teknikoa
- Lanbide Heziketa: Heziketa Zikloak
 - Mekanizazioa
 - Linea Eroanbideen eta Makinen Mantenua
 - Natur Ingurunean Kirol Ekintzen Gidaritza
 - Langile eta Langabetuentzat ikastaroak

Informazio gehiago: www.onati.net

ARRASATEKO INSTITUTUA

Santa Teresa 25
Tel.: 943 794447 – 943 798300

Bilera informatiboa eta ate irekiak:
maiatzak 5
Ordua eta lekua: 18:00, Institutuan

- Batxilergo Zientifiko-Teknikoa
- Giza eta Gizarte-Zientzietako Batxilergoa
- Arte Batxilergoa

BERGARAKO IPINTZA INSTITUTUA

Boni Laskurain 19
Tel.: 943 763142

Bilera informatiboa eta ate irekiak:
maiatzak 5
Ordua eta lekua: 18:30, Institutuan

- Batxilergo Zientifiko-Teknikoa
- Giza eta Gizarte-Zientzietako Batxilergoa

goieskola

debagoieneko euskal
eskola publikoa




EUSKARA > KANPAINA BERRIA

Errenta aitorpena euskaraz egiteko kanpaina jarri dute abian udalek

Aitorpenak aurkezteko epea martitzenean hasi zen eta ekainaren 25era arte iraungo du; hitzorduak eskatu edo kontsultak egiteko 902 100 040ra deitu

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA
Debagoieneko udalek errenta aitorpena euskaraz egiteko kanpaina jarri dute abian. *Nora begira zaude? Errenta aitorpena egi zu euskaraz!* da kanpainaren leloa. Etxerik etxe banatu dituzte eskuorriak; informazio orokorraz gain, hiztegi txiki bat ere badakar eskuorriak.

Errenta aitorpena egiteko lau modu daude eta denetan erabil daiteke euskara. Autolikidazio proposamenean, etxean jasoko du zergadunak Ogasunak bidalita-ko proposamena. Hura ontzat emanez gero, onartzeko hiru bide daude: telefonoz, Internet bidez edo Bergarako bulegoan.



Bergarako ogasun bulegoan aitorpenak euskaraz egin daitezke.

XABI URTZELAI

Telefonoz euskaraz berba egiten baduzu, Ogasuneko langileak euskaraz beteko du orria, eta, gainera, aurrerantzean Ogasuna-

rekin dituzun harremanak euskaraz izan gura dituzun galdetuko dizu. Aitorpena egiteko beste hiru moduak dira: mekanizatua,

telematikoa eta inprimakia eta disketea. Modu mekanizatuan Bergarako bulegoan egiten da aitorpena. Bulegoan bertan adie-

razi behar da euskaraz egin gura dela aitorpena. Aurrerantzean Ogasunarekin izango dituzun harremanak euskaraz izango dira, zuk besterik adierazi ezean.

Modu telematikoa eta inprimakia eta disketean, errentak programa Internetetik euskaraz jaisteko eta inprimakia euskaraz jasotzeko aukera egongo da.

AITORPENA EGITEKO EPEA

Aitorpenak aurkezteko epea martitzenean hasi zen eta ekainaren 25era arte iraungo du. Hitzorduak eskatu edo kontsultak egiteko deitu 902 10 00 40 zenbakira, Bergarako Ogasun bulegora joan edo www.gipuzkoa.net/ogasuna webgunean sartu.

EUSKARAZ EGIN DUTENAK

Gipuzkoako Foru Aldundiaren datuen arabera, 2007an 37.347 lagunek egin zuten errenta aitorpena gurean; horietatik 3.261 lagunek (%8,73) euskaraz egin zuten. Herririk herri begiratuta, Antzuolak du datu altuena: 1.285 lagunek egin zuten aitorpena, eta horietatik 236 lagunek (%18,36) euskaraz egin zuten.

POLITIKA > EZKER ABERTZALEA

Ino Galparsorok atzo deklaratu zuen Madrilen

Galparsoro Arrasateko alkatea EAE-Batasuna sumarioan inputatuta dago beste 44 lagunekin batera

U.MADERA/ A.EZKIBEL > ARRASATE
Atzo, eguena, Ino Galparsoro alkatea Madrilen izan zen, Garzon epailearen eta Estatuko fiskalaren aurrean deklaratzeko, EAE-Batasuna sumarioan inputatuta dago eta beste 44 lagunekin batera.

Madrilera joan aurretik izan ginen Galparsororekin. Esan zigun bueltatzeko asmorekin zihoala Madrileren: "Egia da aurrekoan ere esperantza berarekin joan nintzela, baina fase hau apur bat desberdina da. Orduan, instrukzioa eraman behar zuen epailearen aurrean deklaratu nuen eta hark eskumena zuen kartzelaratu edo

aske uzteko. Oraingoan, nire abokatuak esan didanez, normalean instrukzio epea amaituta fiskaltzara pasatuko da kontua, gero epaiketa burutu ahal izateko", azaldu zuen Galparsorok.

KONTRAKO AKUSAZIOA

Autoaren arabera, Galparsororen kontrako akusazioa zein den azaldu digu Galparsorok berak: "Prensaurreko batean parte hartu izana eta EAE-ANV alderdiaren suspentsioa otsailan izan eta gero, EAE-ANV udal taldearen izenean hainbat gauza egin izana, nahiz eta autoan bertan agertzen den apirilaren 14ra arte udal honi ez ziotela jakinarazi suspentsio horrek udal taldearekin zerikusia zuenik". Gainera, elkarrizketa batzuk ere agertzen direla dio, eta nobedadea da orain Garzonek ETArekiko integrazioa leporatzen diola. "Lehen, desobediencia eta, ondorioz, ETAko kolaboratzaile izatea leporatu zidan", dio Galparsorok.



TXOMIN MADINA

Ipar Katalunian atxilotuetako bat Gorka Azpitarte eskoriatzarra da

Gorka Azpitarte eskoriatzarra zapatuan atxilotu zuen Frantziako polizia ETArekin hartu-eman zuelakoan, Jurdan Martitegi eta Alex Uriarterekin batera. Dagoeneko atxilotuak Parisen daude, epailearen aurretik pasatzeko zain. Azpitarte inkomunikatuta egon den bitartean elkarretaratzeko egin dituzte Eskoriatzako plazan, elkartasuna erakusteko. Hiru atxilotuak horiez gain, beste sei lagun atxilotu zituen Espainiako polizia Gasteizen, Otxandion eta Errenterian. Sei lagun horietatik bat, Olaritz Arakama, aske dago.

AZPIEGITURAK > INKESTA

AP-1 autobidearen irekierak, onurak Arabako ekonomiari

GOIENKARIA > BERGARA
Arabako Merkataritza eta Industria Ganberak AP-1ek duen eragin sozio-ekonomikoaren gaineko ikerketa egin du. Horretarako, 2008ko maiatzean inkestak egin zizkieten Debagoieneko 507 herritarri eta AP-1 autobidearen

inguruan dauden 104 enpresari. Inkesta horien arabera, AP-1en irekierak onurak eragingo ditu Arabako ekonomian, Debagoienari esker.

Inkesta horretan, Debagoieneko enpresen %51,3ak esan zuen autobidearen irekierak Araban

negozio aukera berriak sortuko zizkiela, eta %7,6 interesatuta leudeke Arabako industri-gunearen batean negozioa jartzeko.

HERRITARREN IRITZIAK

Hamar biztanletik lauk adierazi zuten inkestan autobidea zabaldukoan bidaia gehiago egingo zitzutela Gasteizera. Arabara egiten duten bisita gehigarri bakoitzak 1,5 milioi euro gehiagoko gastua suposatzen du. Hortaz, gastua sei milioi euro gehituko litzateke, egungoa baino %11 gehiago.



zabalik

Urko Lopez

Ekintzailetasuna

A skotan hitz egin da berrikuntzaz, lehiakortasuna izateko, mantentzeko edo hobetzeko tresna gisa. Gaur egun, berrikuntzaz gain, bizitzen ari garen egoera kontuan hartuz, berrikuntza beste hainbat gauzarekin elkartu beharra dago.

Gauza horien artean enpresen sorkuntza eta honetarako behar den ekintzailetasuna dira aipagai. Bizi dugun egoera ekonomiko honetan bistakoa da, tamalez, aspalditik lantzen aritu izan garen sektoreetan ate asko ixten ari direla. Nahiz eta asko berri, sektore batzuetan, neurri handian kostuak direla medio, eta beste hainbat ekonomia eskenatokian sartzearen ondorioz, lehiakortasuna galdu da, eta hori krisiaren aurretik nabaritzen zen arren, momentu honetan gehiago nabaritzen da. Ezin gara betiko aritu lehiakortasuna galtzen ari garen eta berau berreskuratzea gero eta zailagoa den sektoreetan, nahiz eta gure historian hain garrantziak izan.

Gauzak honela, azkenaldian hain aipatua den berrikuntza ez litzateke produktu, prozesu edo kudeapenean soilik egin behar (alor batzuk aipatzeagatik), bai zik eta, bizitzen ari garen egoera ekonomikoa ikusita, baita jarduera ekonomiko berriak sortuz ere. Gauzarik zailena jardurea edo negozio aukera berri hauek identifikatzea eta, ondoren, modu ausartean ekitea da.

Hala ere, hau ez da epe laburrean egiten, denbora eskatzen du, pazientzia eta ausardia, bilbe ekonomikoa eraldatzea baitakar. Honekin guztiarekin batera, ez dezagun ahaztu ekonomiarekin batera gizarte-berrikuntzari ere ekin behar zaiola, gizarteak ere beharizanak baititu, eta gizarte-ekintzailetasuna ere behar dela.

"Ezin gara betiko aritu lehiakortasuna galtzen ari garen eta berreskuratzea gero eta zailagoa den sektoreetan"

usteak uste

Mireia Bikuña

Liburuaren Nazioarteko Eguna

A tzo ospatu genuen Liburuaren Nazioarteko Eguna. Irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko askotariko ekimenak egin dituzte ibarreko liburutegietan, eta halako ekimenak beharrezkoak direla deritzot, etxeko txikienetatik hasita. Era berean, irakurtzeko zaletasuna egunero bultzatu beharko genukeela uste dut, nahiz eta zaletasun garestia izan. Irakurtzen ditugun liburu guztiak erosi beharko bagenu, a ze aurrekontua! Eskerrak liburutegiak dauden maileguak egiteko.

marrazkiz

Unai Busturia



blog-top

Agur adeitsua

Pello Urzelai

www.berria.info/blogak/pello

Iritsi da agurren garaia Eusko Jaurlaritzan. Datorren astean egingo dute azken bilera, hurrengoan traspasoa egin beharko dute. Batzuentzat aro berri baten hasiera izan daiteke, beste batzuentzat aro politikoaren amaiera. Horixe da Joseba Azkarragaren kasua. 59 urterekin eta ibilbide politiko luze eta oparo baten ondoren, politikagintzan erretiroa hartzea erabakia du. Hori dela eta, hainbat kazetarirekin –kazetari talde zabal eta askotariko batekin– agurtu nahi izan du. Agur adeitsu bat eskaini nahi izan die: bazkari bat prestatu die Gasteizko txoko batean. Joseba Azkarraga sukaldari ere ezagutu dugu. Bazkari goxoa (sisen zopa, makailua, basurdea, udarea ardotan... dena goxoa) eta giro atsegina. Amantala jarrita, solasean,... agur –edo gero arte– esateko modu gogoangarria.

Zikloak

Luis Aranberri 'Amatiño'

www.eibar.org/blogak/amatiño

Athleticen eta Deporren arteko partiduan egon nintzen larunbatean, San Mamesen. Batak zein besteak, biek ezagutu dute garaia hobetik. Baita txarragorik ere. (...)

Euskadin lau talde haina izan genituen lehen mailan duela urte gutxi. Orain talde bi baino ez dira geratzen. Hegoaldean jakina, Iparraldean ez baita sekula lehen mailako futbol talderik izan. Iparraldeko zikloa ziklorik eza da. Zikloa ziklo, Galeuscat-eko Convergencia i Unió, Bloque Nacionalista Galego eta EAJ agintean ezagutu ditugu Katalunian, Galizian eta Euskadin. Orain, oster, bat bera ere ez dago maila horretan. Ziklo-aldaketa nabarmena gero.

Lehen mailara itzultzea ez da erraza izaten. Galdetu bestela Realari. Zer esanik ez, Alavesi. Edo CiUri. Urtetako kontua.

Zer egin lehen mailara itzultzeko? Auskalo! Publikoa gogoan izan, zaleak zaindu, harrobia suspertu, fitxajeetan asmatu eta... partidua irabazi.

koplak

Eñaut Uriarte

Kobrau ala ordaindu

Aurtenbuan be iritsi zaigu zerga ordaintzeko epea bi hilabete barru da baina hau egiteko topea.

Fetxa hauetan ere berriro denek hainbat buruhauste paper guztiak ondo ipintzen bada nahikua nahaste.

Entzun izan dot urte askotan ogasuna danok gala baina uzte dot toki hortan ere nahikua iruzur ba dala.

Nahiz eta askori tokauko zaien diru pixkat jasotzia beste askori tokauko zaien zihurren ordaintzia.

Ikus daitezke dirudun danak pozik darella benetan guk lana egin eta gainera ogasunakin zorretan.

Baina horixe horrela izanda ez jat pentsatzen normala beraz ba diru gehien daukanak kontua ordaindu dezala.

Goienkaria

Argiraratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarte • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailletako arduradunak** Leire Kortabarría (Herriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Edu Mendibil (Goienka2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Oinarritzko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano, Oxel Arrieta **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Iñaxo Bereizbar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABAETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaeta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Post-a: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko
JaurlaritzakoGipuzkoako
Foru AldundiaArrasateko
UdalaBergarako
UdalaOñatiko
UdalaAretxabaletako
UdalaEskoriatzako
UdalaAntzuolako
UdalaAramaioko
UdalaElgetako
UdalaLeintz Gatzagako
Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



8 x 4 Gordailua

Aukera bikaina zure aurrezkientzat.

Gure 8x4 Gordailu berriarekin, oso errentagarritasun erakargarria eskuratzeko aukera duzu, zure kapitala arriskatu gabe.

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 **kutxa**

Ama bakarra.

Lurra bezala.

Zain dezagun

**Apirilak 22,
lurraren nazioarteko eguna**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

INGURUMEN ETA LURRALDE
ANTOLAMENDU SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO



ingurumena.net

*Gure esku dago
está en nuestras manos*

Saioa Esnal (Eskoriatza, 1979) | larrialdi zerbitzuan egiten du lan. | alergologiako espezializazioa | hitzaldia egin zuen Arrasaten, |
alergologoa da eta Gasteizko | Medikuntza ikasketak egin ondo- | egin zuen lau urtez. Eguazte- | eta, besteak beste, sintomak |
Santiago Apostol ospitaleko | ren, BAMEa (MIR) egin zuen eta | nean 'Alergia al polen' delako | arintzeko aholkuak eman zituen.

Saioa Esnal > Alergologoa

"Alergia ez da herentziazko gaixotasuna, baina genetikarekin zerikusituzuzena du"

A. BARRUSO/M. BIKUÑA > ARRASATE
Debagoieneko ospitaleak antolatuta, alergiaren gaineko hitzaldia egin zuten eguaztenean Kulturatan. Herritar ugari bildu zen Saioa Esnalen azalpenak eta aholkuak entzuteko. Hitzaldia hasi aurretik hitz egin genuen harekin.

Adituek iragarri dute udaberri gogorra izango dela alergerikoa.

Hori diote, baina oraindik ezin dugu zehatz esan. Udazkenean eta neguan euri asko egiten duenean, landareek polinizatzeko aukera handiagoa dute udaberrian. Baina udaberriko eguraldiak zeresan garrantzitsua du; hau da, udaberriko eguraldi ona eta epela egiten badu polen asko egongo da, eta alergikoek oso gaizki pasako dute. Aldiz, euria eta hotza egiten badu, polen gutxiago egongo da.

Alergiak sistema immulogikoarekin du zerikusia?

Sistema immulogikoak gure gorputza infekzioetatik babesten du. Baina pertsona alergikoek gehiegizko erantzuna ematen die kaltegarriak ez diren substantzien aurrean; besteak beste, polenarekin eta hautsarekin.

Alergiko izaten jaiotzen gara ala adinarekin gara daitekeen gaixotasuna da?

Alergia ez da herentziazko gaixotasuna, baina genetikarekin zerikusia du. Hau da, gure gurasoak alergikoak badira, guk ere alergia izateko aukera asko ditugu, eta gure seme-alabek ere bai.

Bestalde, jaiotzean alergiarekin arazorik ez izan arren, adinarekin gaixotasuna gara daiteke, baina normalean txikitatik hasten gara alergiarekin.

Zeintzuk dira alergia mota ohikoena?

Ohikoenak dira arnas aparatuari eragiten dioten alergiak; besteak beste, polenak, hautsak eta lizunak. Kasu horietan alergenak sudurretatik sartzen zaizkigu eta sudurretako eta bronkiotako mukosak handitu egiten zaizkigu. Ondorioz, bronkiotako diametroa txikitu egiten da eta arnasa hartzeko arazoak izaten ditugu.

Edozelan ere, badaude beste alergiko mota batzuk; esate baterako, azaleko alergia dutenak -dermatitisa izaten dutenak-; eta erleen eta liztorren pozoari alergia diotenak.



Saioa Esnal Kulturatan, eguazteneko hitzaldia hasi aurretik.

GOIENKARIA

Urteko sasoiaren arabera alergia ezberdinak egoten dira?

Landareek polinizatzeko garai ezberdinak dituzte, eta bakoitzak une ezberdinetan eragiten du. Orain polena da nagusi eta udan, batez ere, lizunak. Hautsa urte osoan egon arren, irailean eta urrian egiten du kalte, gehienbat.

Ze kontzentraziotan agertzen dira polenarekiko lehen sintomak?

Kontzentrazio handia dela diogu airean metro kubikoko 50 partikula polen baino gehiago daudenean. Baina pertsona guztiek ez dute polenarekiko erantzun berbera: pertsona batzuek kontzentrazio txikiagoarekin erreakzio handia izaten dute. Pertsona bakoitzaren araberakoa da.

Ze sintoma dituzte polenari alergia diotenek?

Besteak beste, doministikuak, mukiak, sudurretako eta begietako azkura.

OHIKOENAK

"Ohikoenak dira arnas aparatuari eragiten dioten alergiak; besteak beste, polenari eta hautsari"

INTERPRETAZIOA

"Alergiak detektatzea erraza da, zailena sintomen interpretazioa egitea da; hor dago arazoa"

TXERTOAK

"Txertoekin alergiak kontrolatu egiten ditugu, baina ezin dira sendatu"

Nola egiten duzue alergiaren diagnostia?

Lehen-lehenik pazienteak kontaktzen diguna hartzen dugu kontuan. Ondoren, azaleko proba egiten diegu: besoaren barruko aldean 12 tanta jartzen dizkiogu, bakoitza alergenok batena. 15 minutu pasa ondoren azalak tanta bakoitzarekin izan duen erreakzioa ikusten dugu. Pikorrak irteten badira, badakigu paziente horrek alergenok horrekiko antigorputzak dituela. Ondoren ikerketa egiten dute pazienteak dituen sintomak alergenok horrek sortzen dizkion zehazteko.

Badago diagnostia egiteko zaila zen alergerik?

Gure inguruan alergiak sortzen dituztenak detektatzea erraza da, zailena sintomen interpretazioa egitea da.

Ze prebentzio neurri har daitezke?

Besteak beste, eguneko lehen eta azken orduan mendira ez joa-

tea, etxeko eta autoetako leihoak itxita eroatea, belarrak ez mozte, eguzkitako betaurrekoak erabiltzea eta arroparik balkoian ez esekitzea.

Dena den, alergiko direnendako egun bakoitzean dagoen polen kantitatearen gaineko informazioa ematen duen webgune bat dago: www.polenes.com. Airean zenbat polen dagoen jakitea prebentzio-neurri bat izan daiteke.

Ze tratamendu ematen duzue alergieie aurre egiteko?

Bi motatako tratamenduak daude: alde batetik, sintomak arintzeko ematen ditugun tratamenduak daude; besteak beste, sudurrerako eta begietarako tantak. Beste alde batetik, txertoak daude, zuzenean gaixotasunean eragiten dutenak.

Alergia senda daiteke?

Ez. Txertoekin alergia kontrolatu egiten dugu, baina ez dira sendatzen.

Joxeri, errespetuz

Jesus Garmendia
Arrasate

GOIENKARIAk, apirilaren 3an, argitara eman zuen zure testu bati erantzutera natorkizu, Joxe Aranzabal, adiskide, labur baina barru-barrutik, eta errespetu osoz. Testuak, pentsatuko duzunez, Korrikaz dihardu, eta, mezu nagusi gisa, esaten du euskarari, eta Korrikari berari, kalte egin diela ekitaldi horretan euskal preso politikoek izan duten presentziak. Ez naiz sartuko, hemen, eztabaida horretan, zeren eta benetan harritu nauena beste gauza bat izan da: alegia, zure testuan zehar ageri den etika mailako irristada deigarria. Azken finean, hau da zuk aditzera ematen duzuna: euskal presoek ez dute hizkuntza eskubiderik aldarrikatzeko zilegitasunik, ETAk eskubide hori ebaki zielako Isaias Carrasco eta Inazio Uriari. Honenbestez, eta hariari tiraka, presoek ezingo dute etxekoan bisitarik ere jaso biktima bi horiek ere ezin dutelako horrelakorik egin: hitz bitan, presoek ez daukate inolako eskubiderik ETAk aipatu biktimei eskubide guztiak ebaki zizkielako.... Eta hori, ondorio hori, izugarria da, Joxe, izugarria.

Giza eskubideak denak dira errespetatu beharrekoak, bizitza eskubidetik hasita; eta denak dira defendatu eta borrokatu beharrekoak –askotan, kontraesanez beteriko testuinguru agonikoan–, baina haietako bat urrututa ikusteak ez digu baimenik ematen besteak urratzeko edo albo batera uzteko. Ez da bidezkoa, besterik gabe, Carrasco eta Uriaren eskubide sakratuena uxatua izana, besteen giza eskubideak zapuzteko edo gutxieteko erabiltzea; Dorre Bikien suntsiketa aipatzeak ere Abu Ghraib edo Guantanamo justifikatzeko balio ez digun bezalaxe.

Aski da!

Anabel Hernandez Mateos
Bergara

Bergarako Orni enpresaren bazkide baten emaztea naiz eta, dagoeneko, ezin naiz isilik egon. Orain arte, bazkideek nahiago izan dute deklarazioak ez egitea hartzekodunen konkurtsoak berak argituko duelakoan egoera. Baina, langile batzuen erreazio bortitza eta gezurtia ikusita, nik, behintzat, ezin dut jarraitu isilik.

Orni enpresak makina erreminta bereziak egin ditu 1968. urtetik. Baina, egungo krisiak jota, martxoan hartzekodunen konkurtsoa aurkeztu behar izan du. Izan ere, pasa den urteko uztailetik ia ez du eskaerarik jaso, eta produkzioan zeuden makinak bukatuta, lana ere amaitu egin zaio. Merkatu osoan dagoen krisiak itzali du bezeroen premia makina bat erosteko. Gauzatzeko zeuden eskaera denak atzera botata, banan-banan, azken momentuan... itzali dira Orni enpresaren salmenta itxaropenak eta ilunpean gelditu da 49 familiaren etorkizuna.

Ondorioak oso latzak dira, oso latzak denontzat: langileentzat, hornitzaileentzat, bazkideentzat eta hauen guztien familientzat. Oso larria, baita, soldata bat ez sartzea etxean edota dirua galtzea, eta horrexegatik, lehenengo eta behin, errespetu handia adierazi nahi diet afektatuta dauden familia guztiei. Baina, bestalde, geure burua defenditu behar dut, gu ere, bazkideen familiok, pairatzen hasi baikara Orni enpresaren porrotaren eragina etxeko ekonomian, batzuek pentsatzen badute ere *forratuta* gaudela. Baina, ez, Orni ez dute itxi kapritxoak eta denok galdu dugu itxiera honekin.

Gainera, guk, gainontzeko langileek ez bezala, ondorio ekonomikoak ez ezik, beste eraso mota batzuk sufritu

behar izan ditugu. Erramu-zapatuko feria egunean, esaterako, Bergara eta Antzuola kartelez josita agertu ziren, karteletan bazkide batzuen argazkiak eta izenak, susmo txarrak, deklarazioak inork inoiz egin ez dituenak eta gezurrak: "Lapurrak".

Aski da!

Aspalditik dabilta, bai, langile batzuk mota horretako kartelak ipintzen herriko edozein lekutan. Arruntak dira, bai, kartelak, pankartak eta panfletoak, eta arrunta ere zabaltzea informazio manipulatua.

"Lapurrak". Bazkideek eta aldamenekook, aldiz, lapurtu ez, baina aurrezkiak galdu ditugu saiatzeko Orni eusten. Eta aurrezki horiek benetako aurrezkiak ziren, lortuak lan eginez eta lan eginez urte askotan, bai emazteok bai senarrek, edozein langile-familian bezala. Samurra da, ordea, gezurrak esatea inongo probarik aurkezten ez direnean.

"Bost soldata kobratu barik". Bost soldata kobratu barik azkeneko hilabete horietan ez delako egon ez lanik ez dirurik. Bazkideek kobratzeke bost soldata horiek gehi beste bost, egoera zailtzen hasi zen garaiari dagozkionak.

"Non dago irabazien dirua?" Langile batzuek argi daukate: Ornik oso urte oparoak pasatu ditu eta bazkideek irabazi handiak bereganatu dituzte. Baina nik ere galdetu nahi diet hori zabaltzen dutenei: zertan oinarritzen dira esateko diru asko irabazi eta lapurtu dutela? Non dauzkate probak?

Errealitatea oso bestelakoa da-eta, azkeneko lau pabost urte zailak izan baitira Orni enpresarentzat, eta bazkideek ez dute inongo irabazirik jaso. Are gutxiago, Ornik lortu du aktibitatea bizirautea bazkideen familiok egin ditugulako ekarpen pertsonalak eta lehengo Orniko pabiloiaren salmentari esker.

Horrela izan da, bai, nahiz eta batzuek nahiago hori ez sinistea. Azkeneko urteetan Orni diruz justu-justu ibili da. Diruz justu baina ilusioz gainezka. Eta ilusio horrek eragin du bazkideengan dirua ipintzen hainbat egoera larritan enpresa aurrera jarraitzeko.

Orain, zoritxarrez, egoera askoz latzagoa da: salmenta berririk ez, aurreikusita zeuden eskaera guzti-guztiak atzera botata azken momentuan, eta bazkideek aurrezki gehiagorik ez ipintzeko.

Batzuek, ordea, bertsiorik sinplisten nahiago: "Lapurrak".

Aski da!

'Txantxulloak'

Jesus Markaide
Arrasate

Ezker Batuko kontzejala (eta orain batzarkide dena), Ander Rodriguez jauna, saiatu da aspalditik besteen "hirigintza lotsak bistaratzen" eta nik neronek "neureganatu egin ditudala ondare publikoak" esaten. Sarritan entzun diogu ere sekulako adierazpenak besteen "etika falta" dela-eta. Bere alderdikide den Joseba Ugalde ez da gutxiago izan eta azaldu izan da hedabideen aurrean nire *txantxulloak* salatzen. Antza denez, eta bere hitzetan, eraikitzaile eta zinegotzi baten laguntzaz. Orain dela aste pare bat galdetu diot Ugalderi Udaleko pleno batean zinegotzi eta eraikitzaile horren identitatearen gainean, baina sekulako amnesia atake bat eduki ei du eta ez du ezer gogoratzen.

Administrazio Prozedura-ko Legearen 35.1 artikuluan garbi azaltzen da biztanleen eskubidea dela "begirunez eta adeitasunez tratatuak izatea agintariengandik". Entzundakoak entzunda, ematen du lege hori Arrasaten ez dela aplikagarria.

Bikote honek epaitegira bidali zuen Arrasateko alkate

izandakoa, prebarikazio, funtzionario eroskeria eta beste salaketa batzuekin, Julian Muñoz Marbellako alkatearekin parekatuz. Epaia muturretako ederra eman zien largaspene aginduz. Ez pentsa, baina, mutikoek barkamena eskatu diotenik Lakuntza jaunari euren salaketa faltsuarengatik; ez, gutxi gorabehera esan dute epailea oker ibili dela, eta kito!

Baina goaz gutun honen muinera. Rodriguez jaunak erosi zuen 2006an trasteleku bat Gasteizen (Gasteizeko Udalak honela esaten du nire aurrean daukadan agirian) eta Rodriguez jaunak ondo daki nahiz eta bizitzeko egokitasun zedula eduki, Udalarri eta bakarrik hari dagokiola erabilerak antolatzea, baina trasteleku hartan jarri zuen etxebizitza Rodriguezek.

Baina trastelekua da trastelekua eta hori ondo baino hobeto daki (eta jakin beharko luke) hiru urtetan Udal Gobernuan egon den zinegotziak. Ondo baino hobeto daki arau-hauste larria dela "lizentziarik ez duten eta aplikatu beharreko hirigintza-antolamenduarekin bat ez datozen erabilerak" Lurzorua-aren Legearen arabera.

Ondo baino hobeto daki arau-hauste hau larriagotzen dela trasteleku edo etxebizitza horren arduradunak daukan lan jardueraren arabera eta garbi dago Rodriguezen lan jarduerak ezagutza tekniko ziurtatzen duela gai honen inguruan.

Gertakari horri 2.700 eta 5.000 euro bitarteko isuna dagokio lehen aipatutako legearen arabera. Gainera, hamar hileroko hertzatseko isuneraino, bakoitzak 18.000 eurokoak.

Legea bete barik bizitza eta horrelako isunak ordaindu barik gelditzea ez da *txantxullo* makala. Seguru egon laster azalduko dela bikote hau beste etika lezio bat edonori emateko prest, hain justu al dabil EB zinegotzi fundamentuzkoagoak ez bilatzeko?

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33
20570 BERGARA



Telefonoa:
943 25 05 05



Faxa:
943 25 05 12



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

HITZALDIA

Gaia: Etorkizun hurbila.

Hizlariak: Oxel Erostarbe eta Aintzane Ezenarro.

Eguna: Apirilak 28, martitzena.

Lekua: Oñatiko Kultur Etxea.

Ordua: 19:00etan.



Herriak

Arrasate > 12-15 Bergara > 16-18 Aretxabaleta > 20-21 Oñati > 22 Eskoriatza > 29-30 Antzuola > 31 Elgeta > 32 Aramaio > 33 Leintz Gatzaga > 33



> **BERGARA**
Iralatik plazarako bidea eta inguruak egokitzen hasiko dira laster > 16



> **OÑATI**
Parrokiako argiztapen iraunkorragoa estreinatu dute > 22



> **ESKORIATZA**
Kanpoan jaio baina aspaldian herrian bizi direnekin mahai-ingurua > 30



> **ANTZUOLA**
Egoera eskasean zegoen Antiguako geltokia konpondu egin dute > 31



Jesus Gutierrez aditua, ibilbidearen gaineko azalpenak ematen.



Domekan estreinatu zuten bidea herritarrek; eskuman, Juan Ramon Garai (Intxorta 1937 elkarteak).

J.A.

ELGETA > MEMORIA HISTORIKOA

Ibilbide batekin gogoratuko ditu Elgetak gerrako gudari eta biktimak

FRONTEA

Elgetako fronteko leku esanguratsuenak bertatik bertara ikusi ahal izango dira

INFORMATIBOA

Bost kilometroko bidea da, bi hizkuntzatan idatzitako 12 bat panel informatiborekin

LEIRE KORTABARRIA > ELGETA

Elgeta eta, batez ere, Intxorta, leku esanguratsuak izan ziren 1936an hasi zen Espainiako Gerran. Francoren gudarosteen eta errepublikarren arteko borroka sei hilabete iraun zuen han, azkenean 1937ko apirilaren 24an Elgeta frankisten esku erori zen arte. Frankistak Elgetara sartu zirenean, 20 lagun fusilatu eta hainbat aldrebeskeria egin zituzten herrian.

Bada, orain, memoria historikoa bizirauteko leku bihurtuko da Elgeta. Hori ahalbidetzeko, eguaztenean aurkeztu zuten Espaloia antzokian Elgetako Udalak eta Intxorta 1937 kultura

elkartek *Gerra Zibila Euskal Herrian: Ibilbide tematikoa Intxortaren magalean* delako proiektua, joan den domekan herritarrei zabaldu eta gero.

LUBAKIAK ETA GOTORLEKUA

Proiektuaren helburua da, modu hezitzaile eta erakargarri baten bidez, turistendako eta kanpoko bisitariendako pentsatuta ere baitago, aukera ematea Elgetako fronteko leku eta gertakariak ezagutzeko. Horretarako, ibilbide didaktiko bat diseinatu dute. Espaloia antzokian harrera bat egokituko dute, eta gerraren gaineko informazio orokorra emanango dute. Kanpoaldean, umeendako gune bat, aparkalekuak, aisialdirako gunea... egongo dira, eta hortik aurrera ibilbidea egin ahal izango dute bisitariak. Oinez egitekoa da, bost bat kilometrokoa eta bi ordu eta erdi inguruan egiteko modukoa. Bisitariak Elgetako fronteko leku esanguratsuenak ikusi eta, euskarazko eta espainolezko panel batzuen bidez, irudiak eta testu labur batzuk irakurri ahal izango dituzte.

Asmoa da gune horiek zeuden moduan egokitzea. Horretarako, Elgetako Udala lur-eremu batzuk erosi eta beste batzuk erabiltzeko hitzarmenak lantzen dabil; batez ere, lubakiak eta gotorlekuak zeuden guneak dira horiek.

Proiektua egiteko, 383.122 euroko aurrekontua du Udalak.

Oxel Erostarbe alkateak dienez, "atzera begiratzea eta gerrako sufrimenduaz ohartzea da helburua; orduan sufritu zutenei errekonozimendua egitea eta ordukotik ikastea, berriro gerta ez dadin".

Elgeta frankistek hartu zuten urteurrenean, ekitaldi gehiago izango da: etzi, domeka, plazatik

Intxortara joango dira udal ordezkariak eta herritarrek, 18:30 inguruan, eta lore eskaintza egingo dute orduko gudarien oroimenez; handik Salbadorreko monolitora egingo dute, eta gauza bera egingo dute, hildako zibilen omenez.

BIKTIMA GUZTIEN ARGAZKIAK

Proiektua ez da hor bukatzen: gerra hartan hil edo desagertu ziren euskal herritar guztien

argazkiak eta izenak batu nahi dituzte Elgetako Udalak eta Intxorta 1937 elkarteak, eta jendaurrean ipini. Hala ere, arduradunek onartzen dute luze joko duela horrek, desagertuak asko direlako edo informazioa ere galduta dagoelako.

Oro har, proiektu osoa ez da egun batetik bestera egitekoa, baina lehenengo urratsa eman da dago.



JOSUREN MURGIZU

Ibilbidean, dozena bat panel ipiniko dituzte; irudian, horietako bi. Goikoa da *La Belga* delako gunean egongo dena.

Belgikako miliziano batzuen oparia Elgetako gudariei

Bisitaria datur ez itoztekoak, baina interesa piztu eta informazio gehiago bilatzera gonbidatzeak: horrelakoak izango dira ibilbideko panelak (alboan, bi).

Garrantzitsuenetako bat da *La Belga* izeneko gunea, Asentzio ermita inguruan. Metrailadore bat ekarri zuten 1936ko urrian ikasle belgikar batzuek. Inork ez du gogoratzen zelan zuten izena, noiz iritsi ziren, edo euren filiazioa. Baina ekarri zutena, metrailadorea, oso garrantzitsua izan zen errepublikarrendako. Frontea egonkortu ondoren, desagertu egin ziren, arrastorik utzi gabe.

ZERBITZUAK > ITURBIDEKO AUZIA

Iturbideko zuzendaritzak berriz aztertuko du egoera, zer egin erabakitzeko

Martitzenean udal eta langileen ordezkariak batzartu ziren; amaieran, bi aldeen arteko kontraesanak agerian geratu ziren

U.M. > ARRASATE

Jarraipena izan du asteon Iturbide egoitzako ika-mikak: martitzenean batzarra udal ordezkari eta azpikontratutako langileen ordezkarien artean eta atzo (eguna), ezustekorik ezan, Iturbideko zuzendaritza elkartu zen. Kontuak kontu, momentuz egoerak berdin dirau eta kontraesanak dira nagusi.

LANGILEEK DIOTENA

Izan ere, orain egoitzako langileek diote "Udalaren azken proposamena" onartu egin dutela eta falta den bakarra dela proposamen hori zela gauzatu zehaztea. Are gehiago, apirilaren 29an hori finkatzeko batzara izango dela ere iragarri dute.

UDAL ORDEZKARIEK DIOTENA

Aldiz, Iturbideko langileek onartu gura duten proposamena baliagarria zen Untza enpresak zerbitzu ematen zuen bitartean; orain, aldiz, errealitatea bestelakoa da eta egoera aztertu beharra dago. Hala argitu du Yolanda Perez de Arenazak, Iturbideko lehendakariak: "Proposamen hori bota genuenean, egoera bestelakoa zen: bazegoen enpresa. Orain, enpresarik ez egonda (apirilaren 7an komunikatu zuen Untzak ez duela zerbitzuarekin jarraitu behar), Udalak egoera berria aztertu behar du. Gainera, egoitzako zuzendaritza batzordeak ez du proposamenik egin oraindik". Izan ere, Iturbideko lehendakariak azpimarratu gura izan du kontu honetan azkeneko berba Udalak izan arren, lehenengoa zuzendaritza batzordeak duela eta oraindik ez duela proposamenik egin; baita ere jakinarazi du alderdi politikoetako ordezkari banak osatzen duela Iturbide egoitzako zuzendaritza batzorde hori.



Argazkian ageri da langile bat Aldai hilerri zaharraren orubea garbitzen.

UBANE MADERA

OBRAK > ESTATUKO FONDOAREKIN FINANTZATUTAKO OBRAK

Santa Marinako obrak, bi aste barru hastekotan

Santa Marinako eta Aldaiko auzotarrek izan dira asteon udal ordezkariak, bi obra horiek auzoan izango duten eraginaren berri emateko

auzoetan ordezkariak sortu gura dute. Hirigintza Sailak emandako xehetasunen arabera, auzoetako alkatetzen bitartez bideratuko dute talde horien sorrera.

UBANE MADERA > ARRASATE

Makinatxo bat herritar elkartu zen atzo (eguna) eta herenegun Udaleko areto nagusian. Aldai, Aldaigain eta Santa Marinako auzotarrak ziren, Udalak deituta, batzarrean izan zirenak. Hain zuzen ere, datozen hilabeteotan Aldain eta Santa Marinaran egin behar dituzten obren gaineko azalpenak eman zizkieten. Izan ere, obra handiak dira bi gune

horietan egin behar dituztenak eta horrexegatik Udalak egoki ikusi du bizilagunei obren nondik norakoak azaltzea: epeak, eragina eta ezaugarri orokorrak.

Horrez gain, batzarren bitartez, udal ordezkariak gura dute hiru guneetako bizilagunen eta Udalaren arteko informazio bidea sortu. Hau da, obrak egin bitartean izan daitezkeen behar, zantzak eta bestelakoak bideratzeko

ALDAIKOAK, HASITA

Obren egoerari dagokionez, berriz, asteon hasi dira Aldaiko hilerri zaharraren orubea garbitzen, gunea egokitzen, parke berria eraikitzeko. Obegisa enpresak eraiki behar du parkea hori. Proiektuaren arabera, urriaren amaierarako bukatuta izan beharko dute. Parke berriaren ezaugarriren bat azpimarratzekotan, esan daiteke garrantzi eta tamaina aldetik Arrasateko hirugarren parkea izango dela, solarium gunea izango duela eta baita estalitako kioskoa ere.

ERAGIN HANDIEN, SANTA MARINAKO AUZOTARRENGAN

Zirkulazio etete eta bestelakoak izango dira

Aldaikoa eta Santa Marinakoa, biak ala biak, obra handiak izango diren arren, Santa Marinako auzotarrek igarriko dute eraginik handiena. Hori ikusita, obra horiek bi zatitan egitea erabaki du Udalak: aurrenekoan biribilguneetik Santa Marina kalerainoko zatia egingo dute eta bigarrenean, Obenerrekarainokoa. Horrez gainera, adibidez, aparkatzeko gunea egokituko dute Galiza kalean, etxeetara iristeko larrialdiko sarbideak prestatuko dituzte eta larregiko zarak ekiditeko, 21:00ak eta 08:00ak bitartean ezingo dute lanean jardun, ezta jaiegunetan ere.

SANTA MARINA, MAIATZAREN 4AN

Bestalde, maiatzaren 4an hasiko dituzte Santa Marina eraberritze-lanak. CIG eta Promociones y Pavimentos Balgarzoren arteko aldi baterako enpresa elkarteak egingo ditu. Urte amaierarako bukatu beharko dituzte. Labur esanda, auzoak dituen bi mailak kendu eta bakarra utziko dute.

> ODOL EMAILEAK

Maiatzean unibertsitatera, Fagorrera, Garaiara eta anbulatoria etorriko dira odola batzera

Arabako Odol Bankuak jakinarazi du Arrasateri dagozkion odol ateratzeko honako hauek izango direla: maiatzaren 5ean eta 6an unibertsitatean, maiatzaren 13an Garaian, maiatzaren 19an, 20an, 26an, 27an eta 28an anbulatorioan eta maiatzaren 25ean, Fagorren. Odola ematera joateko ordutegiak betiko berak dira.

> GERTAKARIAK

Arrasateko gazte bat adinez txikikoen zentro batean sartu dute, ustez mehatxuak egiteagatik

Asteon pare bat bider atxilotu ditu Ertzaintzak Arrasateko bi anaia, ustez emakume bat mehatxatzeagatik; hilko dutela eta etxea erreko diotela mehatxu egin diote, besteak beste. Hori guztia, lehenago poliziek anaiei bost txakur kendu zizkietelako, emakumeak txakurren eraso salatu ostean. Epailearen aurretik pasatuta, anaie-tako gazteena adinez txikiko zentro baten sartzeko agindu du epaileak eta nagusia, berriz, libre utzi du, baina karguekin eta emakumearengandik aldentzeko aginduarekin.

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50



Berezitasunak

Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33

ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

UGARAN

Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

BITTORI
ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

OSPAKIZUNAK > GAZTE EGUNA

Pilota txapelketaren itzulerak eta herri bazkariak berotuko dute kaleko giroa

Gaztetxearen 18. urteurrenaren barruan Gazte Eguna ospatuko da bihar; AGAKOK parte hartzeko dei egin die herriko gazteei

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Apirila oso hilabete berezia da Arrasateko Gazte Alternatiboan Kofradia Organizatuarentzat (AGAKO), urteurren hilabetea baita gaztetxearentzat. Aurten

18. urtebetzea –ospitale zaharreko gaztetxearen 11 urteak gehi Uarkape atzeko gaztetxe berriaren zazpi urteak– ospatuko dute.

Ospakizunak hilabete osoan izan ohi dira urtero, baina aurten Aste Santua apiril erdian izateak ez die batere lagundu gaztetxe kideei. Hala ere, joan den zapatuan, adibidez, Besaidera egin zuten irteera, eta arratsaldean herriko txikienekin jolasean aritu ziren gaztetxean. Ospakizun hilabetearen egun handia, ordea, bihar izango da, bihar ospatuko dute eta Gazte Eguna.

2007KOA ERREPIKATU

Orain bi urte egin zen lehenengo Gazte Eguna. Lehena oso arrakastatsua izan zen: pilota txapelketan eta herri bazkarian parte hartu zuten gazteek gaztetxe kideen aurreikuspen guztiak hautsi zituzten. Iaz, bestalde, ez zen Gazte Egunik izan; bai, ordea, atak itxi berri zituen Biona tabernari omenaldia. Orduan ere gaztetxea lepo bete zen bazkarian; bertan izan ziren tabernari eta lagunak, gonbidatu moduan. Aurten, arrakasta errepikatzea gura dute antolatzaileek.

EGITARAU ERAKARGARRIA

Pilota txapelketan izena eman gura dutenek Iluntz, Ekaitz, Irati eta Basati tabernetan dute aukera, bikoteka. Txapelketa 10:00etan hasiko da, bihar, Iturripen. Pilotan izerdia gogoz bota ostean, 13:00etan txarangaz girotutako kalejira egingo dute eta 14:30ean hasiko da herri bazkaria gaztetxean. Txartelak Etxoste, Irati eta Basati tabernetan daude salgai, 5 eurotan. Menua, merkea eta kalitatezkoa: entsalada, txanpinoiak eta solomoa saltsan. Bazkalostean jokoak egingo dituzte.



2007ko kalejiran dragoiak hartu zituen Arrasateko kaleak. Aurten, kalejirak DragoiAlde txarangaren laguntza izango du.

GOIENKARIA

bere ustez



Maialen Gonzalez

Itxaropena galdu barik

Bizitza ez da ibilbide lau, non bertan gertatutako guztiak norabide bakarra darioan. Behetik gorako bidea har dezakegun bezalaxe, goi-goitik behera ziztu bizian jaus gaitezke. Diotenez, momentu bakoitzarekin gozatzea da onena, geroan beharrezkoa dena soilik pentsatuz, pasa barik. Gauzak espero bezala irteten ez direnean, aldiz, itxaropena ez galtzea da aholku entzuzena. Itxaropena da orain realzaleok behar duguna. Beste urtebetez, gainontzekoen esperoan egon beharra. Gureen lana, hiruunaka zenbatzea, besterik ez. Lau aste zoragarriren ostean, ondo-

"Denboraldi amaierarako bederatziki norgehiagoka. Zaila, baina ez ezinezkoa"

rengo hiru asteek zapuztu dute alde aurretik egindako lana. Pena da.

Zapatu arratsaldean azken txistuaren aurretik harmaila ugari hutsik gelditu ziren arren, jendea etxera, parrandari hasiera ematera edota oporren azken apurrei beste edonon probetxua ateratzera joanda edo, beste batzuk bertan gelditu ziren oihiak bota eta bota, ikusitakoa sinestezina izanda ere, beren eserlekuetatik mugitu gabe, han. Eskerrak.

Azken txanpa heldu da. Denboraldi amaierarako bederatziki norgehiagoka, besterik ez. Zaila, baina ez ezinezkoa.

TXATXILIPURDI > UDALEKUAK 2009

Eskaintza ugari eta interesgarriak, gaztetxoek uda eta aste bukaerak euskaraz goza ditzaten

Martitzenean aurkeztu zituen Txatxilipurdik 2009ko udalekuak; ekimenetan izena emateko azken eguna, maiatzaren 8a da

J.B. > ARRASATE

Zereginik ez dagoela ez da aitzaiki izango. Txatxilipurdik gaztetxoei zuzendutako hamaika ekimen eta egitasmo aurkeztu ditu datozen aste bukaerei eta uztai-

lari begira. Martitzenean Pablo Uranga kaleko egoitzan egindako aurkezpenean, 2009ko udalekuaren eta bestelako eskaintzen berri eman zuten Txatxilipurdikoek, euskaraz eta lagunartean bikain pasatzeko planak guztiak.

UZTAILEAN UDALEKUAK

2 eta 10 urte arteko haurrentako udaleku irekiek adin tarte bakoitzari egokitutako eskaintza izango dute, Arrasate eta inguruetan.

Udaleku itxiei dagokienez, bestalde, 10 eta 16 urte bitarteko gaztetxoek 15 eguneko irteera egingo dute Orio eta Etxarrira.

Udalekuetan eta gainerako ekimenetan –Udaixe egitasmoan izan ezik– izena emateko epea maiatzaren 8an amaituko da.

GAINERAKO EKIMENAK

Eskaintza ez da hor amaitzen. Udaixe ekimena –Udaleko Gazte Sailak kudeatua– astean hiru egunetan egin eta hiru eguneko irteera batekin amaituko da. *Kosta ala kosta* Arabatik kostalderaino doan ibilaldia da, eta *Irajosi*, auzoetako umeekin liburu erraldoi bat egiteko proiektua. Azkenik, *Plazalari* planarekin, umeek euskal jolasak ikasiko dituzte.

> ATHLETIC-BARTZELONA
Errege Kopako finala ikusteko sarrera bi zozketatuko dituzte

Arrasateko Athleticzaleen Imanol lagunarteak bi sarrera zozketatuko ditu maiatzaren 13an Valentzian jokatu den Errege Kopako finale-rako; ezin da ahaztu sarrerok urtearen balioa hartu dutela talde zuri-gorriaren zaleen artean. Interesatuak apirilaren 27tik 30era Buenuena tabernatik pasa beharko dute, 17:00etatik 19:00etara. Hona-koak dira parte hartzeko baldintzak: izena, telefonoa eta 20 euro ematea.

Zozketa Buenuena tabernan egingo dute, maiatzaren 4an, 20:00etan. Bi sarrerak banaka banatuko dira.



ARRAOPA

DENDA

Ireki berria
Apirilaren 25a arte
%10eko deskontuak
Zatoz gu ezagutzera!

Olarre kalea 9
Tel.: 943 79 06 82
Arrasate

MUSIKA > ARRASATE MUSIKAL

Arrasate Musikal eta Logroñoeko Piccolo y Saxo eskolako musikariak Amaian

Elkartruke musikalaren ondorioz, bi eskolok kontzertua eskainiko dute elkarrekin zapatuan Amaia antzokian, 19:00etan

EDU MENDIBIL > ARRASATE

Arrasate Musikalek eta Logroñoeko Piccolo y Saxo Musika Eskolak egindako elkartruke musikalaren barruan, kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, Amaia antzokian, 19:00etan.

Logroñotik hiru talde etorriko dira: Banda gaztea, Orkestra gaztea eta Bandaluse Big Band.

Era berean, Arrasate Musikaleko bi taldek jardungo dute, Banda Txikiak eta talde misto batek, hain zuzen ere.

Logroñoeko hiru taldeak Javier Garcia Yanguesek zuzentzen ditu. Bandaluse Big Bandari dagokionez, 25 lagunek osatzen dute, flauta, klarineta, saxo altua, saxo tenorea, tronpeta eta

tronboia tartean. Besteak beste, Henry Manciniren *Pink panther* eta Bill Haleyren *Rock around the clock* eskainiko dituzte bihar.

ARRASATEKO HIRU TALDE

Arrasate Musikaleko Banda Txikia 60 musikariz osatuta dago. Gaizka Gaztelurrutia da Bandako zuzendaria gaur egun. Banda

gaztearekin batera bi lan eskainiko dituzte: *Russian dance* (Andrew Walkin) eta *Simply rock* (Rob Ares). Arrasateko talde mixtoari dagokionez, azken zazpi urteotan instrumentu ezberdinez osatutako talde instrumentalak eta komboak sortu dira. Talde honen arduraduna Arantzazu Idigoras da eta tendentzia

berriak sortu eta lantzen dituzte bereziki. Horren adierazgarri diren zenbait pieza joko dituzte.

Bandalusek eta Banda Gazteak ere elkarrekin beste bi lan ezagun eskainiko dituzte: Bill Contiren *Gonna fly now* eta John Williams konpositore estatubatuarren *John Williams trilogy* izenburuko lana.



Arrasate Musikaleko musikari gazteek hartuko dute parte biharko kontzertuan.

GOIENKARIA

JAIALDIA > IPUIN KONTALARIAK

Theresa Amoon eta Ines Grimland ipuin kontalarien saioa izango da gaur Kulturaten

'Mundu kontu kontalariak' jaialdia gaur 19:00etan

E.M. > ARRASATE

Gaur, egubakoitza, *Mundu kontu kontalariak* jaialdia izango da Kulturaten, 19:00etan, Theresa

Amoon eta Ines Grimland kontalariekin. Grimlandek *Por una pasión* izenburuko saioa egingo du. Antzerkigintzan ibilitakoa, Latinoamerika osoko jaialditan parte hartu izan du Grimlandek. Libanon jatorria duen Theresa Amoon Frantzia bizi da duela 24 urtetik eta, aldi berean, AEBetako nazionalitatea dauka. Ibil-

bide hori islatzen duen *De una tierra a otra* saioa eskainiko du gaur. Tradizioko ipuinak eta kondairak biltzen ditu Amoonek.

Martitzenean, literatura solasaldia izango da 18:30ean. Eider Rodriguezen *Haragia* irakurri dutenek aipatutako lana aztergai izango dute Iban Zaldúa idazlearen gidaritzapean.



Theresa Amoon.

GOIENKARIA

> ZINEMA

'La pantera rosa 2' eta 'Che: guerrilla' filmak domekan

Domekan bi film emango dituzte Amaia antzokian: *La pantera rosa 2* ikusteko aukera izango da 17:00etan eta *Che: guerrilla* 19:30ean.

Eguenean, hilaren 30ean, Naomi Kawaseren *El bosque del luto* filma emango dute zineklubean, 20:30ean, jatorrizko bertsoan.

> HITZALDIA

'Pagar por leer en la biblioteca pública', Blanca Calvorenkin

Liburuaren Eguna ospatzeko Arrasateko Udal Bibliotekak antolatutako ekitaldien barruan, Blanca Calvok *Pagar por leer en la biblioteca pública* hitzaldia egingo du eguaztenean, hilaren 29an, Kulturaten, 19:00etan. Guadalajarako Liburutegi Publikoko zuzendaria da Blanca Calvo.

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

Pelukak eta ilea berreskuratzeko sistema berri eta pertsonalizatua



Gubi

ILE APAINDEGIA
Otalora Lizenziaduna 5
Tel.: 943 79 12 74KONTRATAK
IRVROK S.L.
ERAIKUNTZAKMeatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATEZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRAErakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

SASKIBALOIA > LEHENENGO MAILA, JAITSIERA FASEA

Hiru finaletako lehena, Getxoren kontra

MUK sailkapeneko azkenaurreko lekuan dagoen Getxoren bisita izango du zapatuan Iturripen (18:00)

XABIER URTZELAI > ARRASATE
Mondragon Unibertsitateak ez dauka hutsik egiteko tarte gehiagorik. Jaitsiera fasean liga erregularrean baino askoz ere itxura hobea eman dute, eta, denboraldiari begira, moreak orain daude gorputzaldi onenean –min hartuta dauden jokalarien egoera kontuan hartu barik–. Hain zuzen, azken partiduetan erakutsitako jokoak esperantza piztu du jokalarien eta zaleen artean: posible da kategoriari eustea. Hori bai, lau partidu dituzte liga amaizteko, eta hiru finalak dira.



Paul eta gazte mailako Andoni eta Unai ez dira bihar kantxan izango.

J.A.

Arrasateko taldearen helburu nagusia sailkapenean parean dagoen UPNA taldearen aurretik sailkatzea da, hori eginda lortu-

ko dute-eta mailari eustea. Eta horretarako hiru partidu irabazi behar dituzte: Getxoren kontrako oraingo zapatuan, Goie-

rriren kontrako datorren astean eta, garrantzitsuena, kontrario zuzena den UPNAren kontrako maiatzaren 9an. Gainera, nafarrak 5 puntuko aldearekin gailendu ziren Iruñean, eta Zurbanoen mutilek tarte hori baino handiagoa eskuratu beharko dute Iturripen.

BIHAR, GETXOREN BISITA

Biharko partiduen aurrean MUK saskibaloizaleen bultzada beharko dute. Getxo ez da talde indartsua, eta fisikoki nahiko mugatuta daude. Liga erregularrean etxekoek bezain emaitza txarrak eskuratu zituzten, baina jaitsiera fasean hiru norgehiagoka irabazi dituzte: "Dena dela, Getxo eta Goierri ligako talde makalenak dira, eta euren kontra irabazten ez badugu ez dugu merezi kategoria horretan egoterik", adierazi du Kintanak.

Debagoiena Zikloturista Taldekoak, Kapelmuur-en

Debagoieneko Zikloturista Taldekoak Flandriako Tourrean (140 km) izan ziren hilaren 4an, eta iparraldeko klasiko horrek dituen 15 *hormetako* baten gainean daude erretratuan: Kapelmuur gainean dagoen baselizan, hain zuzen.

Ziklistek gozatu ederra hartu zuten proban, eta eskerrak eman gura dizkiote Bergarako Iñigo Igartuari, hark emandako gomen-dioak aintzat hartu zituztelako; izan ere, Igartuak ondo ezagutzen ditu iparraldeko klasikoak.



DEBAGOIENA ZIKLOTURISTA TALDEA

Zaldibar

EMAITZAK

Betrayer-Abokajarro	3-3
McAwenDauen-HLB108	3-6
Iluntz-Ekaintz Taberna	3-8
Lasagabaster-Total Disaster	10-5
Paulaner Dribling-AT Celaya	2-2
Cipris-Saukelu Kabia	1-0
Iriztu Taberna-Iturriotz Taberna	2-4
Equus-Urza	0-1
Dublin Irish Pub-Bar Aldapa	10-3

PARTIDUAK

Apirilak 24, egubakoitza EPAILEAK
19:00 Abokajarro-Ekaintz Taberna. **Antola.**

Apirilak 25, domeka EPAILEAK
11:00 Betrayer-HLB108 **Antolatzaileak**
12:00 Paulaner-Iturriotz Tab. **Antolatza.**
13:00 Iriztu Taberna-Bar Aldapa **Antolatza.**


Apirilak 26, domeka EPAILEAK.
11:00 Total Disaster-McAwenDauen **Cipris**
12:00 Cipris-Urza **Total Disaster**
13:00 AT Celaya-Iluntz **Urza**

SAILKAPENA

	P	J
1. Paulaner Dribling	36	16
2. McAwenDauen	33	16
3. AT Celaya	33	16
4. Cipris	31	16
5. Lasagabaster	31	16
6. HLB 108	29	16
7. Abokajarro	27	16
8. Dublin Irish Pub	27	16
9. Ekaintz Taberna	27	16
10. Betrayer	25	16
11. Iriztu Taberna	25	16
12. Iturriotz	16	16
13. Iluntz	15	16
14. Bar Aldapa	13	16
15. Urza	10	16
16. Total Disaster	3	16
17. Equus	-	-
18. Saukelu Kabia	-	-

Ekaitzek eta Abokajarrok gaur jokatu dute

Zaldibarko txapelketan gaur, egubakoitza, hasiko dute hamaseigarren jardunaldia; hor dago jardunaldi honetako berezitasuna, Ekaitzek eta Abokajarrok 19:00etan jokatu dute-eta norgehiagoka. Bestalde, Lasagabaster eta Dublin Irish Pub taldeek deskantsua izango dute.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismok
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

HIRIGINTZA > URBANIZAZIO LANAK

Maiatzaren 4an hasiko dira Iralatik plazarako bidea egokitzen

Terraza inguratzen duen murrua kendu egingo dute, eta irisgarritasuna hobetu malda bidez; plazako aldapako adokina ere kendu egingo dute

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Maiatzaren 4an hasiko dira Domingo Irala kaleko azken zatia eta San Martin plazarako igoera egokitzeko lanak. Beb arkitektura estudioak egin du proiektua eta 387.442 euroko aurrekontua dute lanek.

Lanok bi helburu dute: batetik, Usoa eta Eusebio tabernetako terraza Domingo Irala kalearen ordenazio orokorrean integraztea eta, horrekin batera, terrazaren alboko lokalaren irisgarritasuna bermatzea, bertara iristeko mailak ditu-eta -Barrenkaleko 3. zenbakiaren ostea-; bigarren helburua da Domingo Irala eta San Martin Agirre plazaren arteko oinezkoendako lotura hobetzea.

Aurreikusitako lan guztiak eginda, ezabatu egingo dira oztopo arkitektonikoak, eta irisgarri-

tasuna bermatu: batetik, dauden maldak hobetu egingo dira; eta, bestetik, eskailerak aurreikusita dauden lekuetan malda ere egingo dute.

USOA ETA EUSEBIOREN TERRAZA

Usoa eta Eusebio tabernetako terraza murru batek inguratuta dago gaur egun eta horrek banatu egiten du Domingo Irala kalea. Horrekin batera, eskailerak igo behar dira terrazara iristeko. Hala, Beb arkitektura estudioak egindako proiektuaren arabera, terraza inguratzen duen murru hori bota egingo dute. Hori eginda, aldatu egingo da terrazaren dimentsioa: aurreko alderantz apur bat galdu egingo du, eta irabazi, berriz, Barrenkale kaleko 3. zenbakirantz. Hala, terrazan integratuta geratuko da zenbaki hori.



Terraza inguratzen duen murrua eta aldapako adokina kendu egingo dituzte. M.B.

Horrez gain, murrua kenduta, malda bat egingo dute Domingo Iralatik terrazaraino eta baita eskailerak ere, terrazaren aurreko alderantz eta alborantz, 3. zenbakirantz.

PLAZARAKO BIDEA

Terraza handitzeak ahalbidetuko du Domingo Irala eta San Martin plazaren arteko oinezkoendako bidea hobetzeko aukera. Hala, Herri Lagunak kaletik terrazaren altuerara igotzeko aukera egingo da malda zein eskailera baten bitartez, eta, modu horretan, San

Martin plazara ematen duen aldaparen erdia ekidin ahal izango da. Bestetik, aldapa horretako zorua ere egokitu dute: galtzadharria kendu egingo dute eta Domingo Iralan jarri duten zoru bera ipiniko dute.

Udaletik jakinarazi dutenez, hiru fasetan egingo dituzte lanak eta ahalik eta eragozpen txikiena eragin nahi diete herritarrei: lehenengo, Barrenkale 3ko aldea egingo dute; gero, plazarako aldapa; eta azkenik, terraza.

Lanak abendurako bukatuta egingo direla aurreratu dute.

HEZKUNTZA

Eskaintza partziala Miguel Altunan

M.B. > BERGARA

Miguel Altunak eskaintza partziala egingo du datorren ikasturtean ere: erdi mailako -mekanizazioa, ekipo eta instalazio elektroteknikoak- eta goi mailako heziketak -proiektu mekanikoen garapena, erregulazio eta kontrol sistema automatikoak eta administrazio finantzak- ikasteko aukera emango du.

Sarrera baldintzak hauek dira: 18 urtetik gorakoa izatea, erdi mailako zikloa burutzeko DBHko titulua edo baliokidea izatea eta goi mailakoa egiteko, berriz, batxilergoa edo baliokidea izatea.

Heziketa mota horren ezaugarrietako bat da ikaslearen beharretara egokitutako eskaintza dela. Beharrok kontuan hartuz, astelehenetik eguenera, hiru edo lau ordu ikasiz, Lanbide Heziketako titulu ofiziala eskuratuko dute ikasleek. Izenematea zabalik dago hilaren 28ra arte, 943 76 38 40 eta 943 76 24 91 zenbakietan eta Miguel Altunan.

BICIPRECISIÓN IGARTUA Zubieta kalean 943 76 11 21

Sei hilabetetan ordaintzeko, interes barik!



ETOR ZAITEZ
PROBATZERA!

www.lapierrebikes.es



www.cervelo.com

Errepideko bizikletetan eskaintzak:

	LEHEN	ORAIN
* Goka monokaskoa, Ultegra 10 ab.	1.980 €	1.250 €
* Goka monokaskoa Zero 8 Durace 2009 karbonozko gurplekin	3.400 €	2.580 €
* Orbea Onix karbonozkoa 2008 Sram Rival 10 ab.	1.980 €	1.245 €
* Orbea Onix karbonozkoa Shimano 105 10 ab.	1.900 €	1.000 €
*Karbonozko gurplek	1.190 €	799 €

Mendiko bizikletetan eskaintzak:

	LEHEN	ORAIN
* Orbea aluminiozkoa freno hidraulikoarekin	700 €	475 €
* Orbea aluminiozkoa freno hidraulikoarekin Master	980 €	699 €
* Goka monokaskoa XT-LX	1.780 €	1.100 €

Jaunartzeetarako bizikletak!

bere ustez



Maite Plazaola

Gaztelania,
hizkuntza
mehatxatua?

Herriak egiten du hizkuntza eta hizkuntzak egiten du herria. Tautologia bat da hau, baliorik gabe utzi nahi dutena. Gaur, irratan, abertzaleok gaztelania Euskal Herriatik ezabatzea helburu dugula entzun dut. Lotsagabea behar du pertsonak horrelako perlak botatzeko! Ez gaitezen nahastu, euskara baita bere herrian hizkuntza minoritario eta zapaldua. Gaur egun ere, zaila egiten zaigu euskaraz bizi nahi dugunontzako gure hizkuntzan mintzatzea hainbat

"Aberasgarria da herri elebidun bat izatea, bi hizkuntza horietan hitz egiteko aukera bera badut"

toki publikotan, baita administrazio publikoetan ere. Hori nahikoa ez eta gaztelania mehatxatua omen dago batzuen ustetan.

Niri aberasgarria iruditzen zait herri elebidun bat izatea, baldin eta bi hizkuntza horietan hitz egiteko aukera berdina badut. Euskaraz hitz egiteko aukera izatea ez da nahi bat, antoju bat; esku-bide bat da, politikariek hainbeste aldarrikatzen eta, aldi berean, urratzen dituzten horietakoa. Beraz, ez ditza-gun gauzak nahastu eta ez dezagun euskara politikaz tindatutako hitzez gehiago diskriminatu, horrela herri eta kultura oso bat alboratzea lortzen baitute.

Ez ote dute eurek leporatzen digutena egiteko asmo-rik izango?

Maider Sedano > Gazte Informazio Guneako arduraduna

"Hamar urte eta gero gure helburua bera da: gazteentzat informazio baliagarria edukitzea"

MONIKA BELASTEGI > BERGARA
Maiatzaren 6an, hamar urte bete-ko dira Gazte Informazio Gunea zabaldu zutela. Horren harira hainbat hitzaldi egon dira apirillean. Hurrengo maiatzaren 17an izango da, udako ekintza solidarioei buruz.

Zu zeu izan zara bulegoko arduraduna 10 urteotan. Nola oroitzen dituzu hastapen haiek?

Egia esan, oso azkar pasa dira, oso gazte hasi nintzen eta lanean. Ilusio handiarekin hasi nintzen eta oraindik ere mantentzen dut. Oso lan polita da informatzaile izatea. Gazteekin harreman zuzena dut eta interesgarria izan daitekeen informazioa bilatzen ahalegintzen naiz. Horrek guztiak arlo ezberdinen gainean informatua egotera behartzen nau, eta hori motibazio handia da.

Nolako bilakaera izan du guneak?

Argi dago teknologia berriek ekarri dutela aldaketa handien. Gogoratzen dut hasieran telefono bidezko Internet nuela eta oso motel zihoala. Informazio gehiena paperean nuen. Urteak pasa diren neurrian, Interneten aurki daiteke informazio gehiena

eta orain nire lana da informazio fidagarria bilatzea eta sailkatzea. Informazioa jasotzeko eta zabaltzeko lana dezente azkartu du. Dena den, aurrez aurreko lana mantentzen da eta informa-

tzaileak nahitaezkoa izaten jarraitzen du informazioa komunikatzerako orduan.

Sorrerako helburua eta gaur egungoa berberak dira?

Helburua berbera da: Bergarako gazteentzako baliagarria izan daitekeen informazioa jaso eta zabaltzea. Aldatu dena, gehienbat, informazioa biltzeko eta zabaltzeko moduak dira. Esaterako: astero bidaltzen dugun buletin elektronikoa, aste bukerako lan eskaintzak, bekak, lehiaketak eta Bergarako ekintzak jaso daitezke e-posta bidez.

Nire ustez urte hauetan zerbitzua finkatua dago herrian eta baliabide egoki bezala ikusten da. Gazteak behin baino gehiagotan hurbiltzen dira bulegora, momentuan dituzten beharren arabera.

Aldatu da gazteen profila?

Egia esan, zerbait bai. Hasieran, 20-25 urte bitarteko emakumeak ziren gehien gerturatzeko zirenak. Baina azken hilabeteetan adin horretako gizonezkoen kopurua hazi dela nabaritu dut.

Zeintzuk dira Gunearen etorkizuneko erronkak?

Alde batetik, teknologia berrietan eguneratuak egotea, teknologiok gure helburuetara aplikatuz, eta bestetik, Bergarako gazteentzako zerbitzu baliagarria izaten jarraitzea.



Maider Sedano kultura etxeko bulegoan.

GOIENKARIA

oharrak

KINTADA

> 1972an jaiotakoek kinto bazkaria egingo dute maiatzaren 9an

Maiatzaren 9an izango da, Tartufon. Izena emateko epea da apirilaren 30era arte, Eusebio II tabernan.

IKASTAROAK

> Informatika ikastaroak San Joxepe elkartearen

Hiru ikastaro egongo dira: hastapen ikastaroa izango da apirilaren 27tik ekainaren 3ra (24 ordu, goizetik); Power point ikastaroa izango da apirilaren 27tik maiatzaren 27ra (20 ordu, arratsalde) eta Internet ikastaroa izango da apirilaren 28tik ekainaren 4ra, arratsalde. Izena emateko jo elkartearen bulegora.

IKASTAROAK

> Sei ikastaro berri maiatzaren 4tik aurrera KZgunean

E-Administrazioa, Nagusi-Web, sinadura elektronikoa, posta elektronikoa, bat-bateko mezularitza eta irudi digitalen tratamendua ikastaroak eskainiko ditu KZguneak. Informazio gehiago tutor.bergara@kzgunea.net helbidean eta 943 76 73 24 zenbakian.

UDAL ARTXIBOA

> 'Ariz-Ondo' aldizkaria ikusgai artxiboko datu basean

Apiriletik daude ikusgai Bergarako Kultur Ekintzak argitaratutako lehen eta bigarren garai-ko Ariz-Ondo aldizkariaren digitalizazioak. Kontsultatzeko: www.bergarakoartxiboa.net.

UDALA

> Pazkoetan txosnak jartzeko deialdia egin dute

Mendekoste jaietan txosna jartzeko deialdia egin du Udalak. Interesa duten herriko irabazi asmorik gabeko taldeek egin dezakete eskaria. Eskara orriak eta baldintzak eskura daitezke www.bergara.net helbidean. Eskerok aurkezteko epea bukatuko da maiatzaren 8an, 12:00etan.

UDALA

> San Martzialgo kantina eta txosna hartzeko deialdia

Uztailaren 5ean, San Martzialgo kantina eta txosna hartzeko deialdia egin du Udalak. Herriko irabazi asmorik gabeko taldeek egin dezakete eskaria. Eskara

orriak eta baldintzak eskura daitezke www.bergara.net helbidean. Eskerok aurkezteko epea bukatuko da ekainaren 5ean, 13:00etan.

ZOKKETA

> Mariaren Lagundiako zozketako zerbaki saritua atera da

4 DBHko ikasleek ikas bidaiarako egindako zozketako zerbaki saritua da 2.561. Irabazleak jasoko du bi lagunendako bazkaria eta zirkuitua Zumaiako Zelai talasoterapian.

HAUTESKUNDEAK

> Europako parlamentuko hauteskundeetarako errolda ikusgai

Apirilaren 27ra arte egongo da ikusgai. Erreklamazioak idazkaritzan egin daitezke.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

**ARANE
KRISTALDEGIA**

Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903

BERGARA
Margoak

Certificado ISO 9001 por



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxe: 943 76 97 32. bergara@bergaramargoak.com

PILOTA > 14. BERGARA HIRIA TXAPELKETA

Ordezko moduan zeuden pilotariak maila ona eman zuten lehen kanporaketan

Jardunaldiko sorpresa Idoatek eta Keraltak eman zuten; izan ere, iazko txapeldun Ollo eta Linzoain txapelketatik kanpo utzi zituzten (22-19)

XABIER URTZELAI > BERGARA

Bergara Hiria txapelketak amateur mailako pilotari onenekoak batu ditu aurten ere: "Puntako zortzi pilotari batu ditugu, eta gutxi batzuk kale egin badute ere, ordezkoez maila oso polita erakutsi zuten martitzenean", adierazi du Reyes Azkoitiak. Lehenengo norgehiagokan, ordezkoez moduan jokatu zuen Kina izan zen sorpresa positibo horietako bat. Peñasekin batera hasieratik hasi zen indartsu, eta norgehiagoka lehiatua jokatu eta gero 22-15 irabazi zieten Ansotegiri eta Lukini.

Bigarren kanporaketan iazko txapeldunak ziren faborito, Ollo eta Linzoain. Aurrean Onsaloren ordezkoez sartu zen Idoate eta Keralt



Ordezko moduan jokatu zuen Kina aurrelaria, martitzenean, sarea egiteko gertu.

XABIER URTZELAI

izan zituzten, eta hor ere ordezkoez ondo ibili zen. Ikusleek ere gozatu egin zuten norgehiagoka horretan, gogorra, lehiatua eta tanto politekoa izan zelako. Eta, lehen jardunaldiko sorpresa ema-

naz, iazko irabazle Ollo eta Linzoain kanpoan geratu ziren: "Ollok esan zigun penaz geratu zela, iaz finala irabazita afarian jan zuen txuleta oraindik gogoa zeukalako". Datorren marti-

tzenean 22 urtez azpikoetan Elezkanok eta Albisuk Epelderen eta Zubiriren kontra jokatu dute, eta seniorretan Renovaes eta Galarretak eta Perezek eta Larriagak neurtuko dituzte indarrak.

KULTURA > MUSIKA ESKOLA

Haurrei zuzendutako 'Udaleku Musikalak' udan

Metodo dibertigarria erabiliz, neska-mutilek musika ezagutzea eta bizitzea da helburua

melodia, dantza, musika tresnen tailerra edo koreografia landuko dituzte ekainaren 29tik uztailearen 10era. Izenematea maiatzaren 8ra arte izango da zabalik Musika Eskolan, 15:30etik 19:30era. Argibide gehiago 943 76 57 80 telefonoan.

EDU MENDIBIL > BERGARA

Musika Eskolak udako oportunitateko Udaleku Musikalak egitasmoa iragarri 4-7 urte bitarteko haurrendako; metodo dibertigarria erabiliz, musikaren mundu zoragarria ezagutzea, ulertzea eta bizitzea da helburua. Besteak beste, erritmoa,

BANDA DOMEKAN

Domekan kontzertua izango da Udal Pilotalekuan, 12:30ean. Lehenbizi Bandak lau pieza joko ditu eta ondoren, Musika Eskolako Gazteen Bandarekin batera joko du Bandak, tartean *The lion king* soinu banda.

KULTURA > 'APIRILEAN MUSIKA'

Musika Eskolako ikasleen emanaldiak datorren astean

Astelehenetik eguenera emanaldiak izango dira Zabalotegiko aretoan, 18:30ean

E.M. > BERGARA

Apirilean Musika egitarauaren barruan, datorren asterako hainbat hitzordu daude iragarrita. Horrela, astelehenetik eguenera hainbat kontzertu izango dira Zabalotegin: astelehenean instrumentu ezberdinen emanaldia; martitzenean, hilak 28, metal instrumentuen txanda izango da; eguaztenean gorputz perkusioa eta gitarra emanaldia; eta, azkenik, eguenean hainbat instru-

mentu joko dituzte Musika Eskolako ikasleek. Emanaldi guztiak 18:30ean izango dira. Egueneko kontzertuaren aurretik, 18:00etan, San Martin plazan eta Simon Arrietan jardungo dute Musika Eskolako ikasleek.

ZINEMA BIHAR ZABALOTEGIN

Bi film emango dituzte bihar, zapatua, Zabalotegin: *La isla de Nim* 17:00etan eta *Transsiberian* 19:30ean eta 22:30ean.

Labegaraieta

EMAITZAK

Komando Piperrak-Irish Pub	1-5
Irubide Taberna-Niu Tim	4-3
Los Latinos-Monte Taberna	0-3
Belengua Tab-CM Errotagain	8-2
Internacional-Carboneros	4-12
Los Blus-Zigalikatis	8-2
UD Akabaoak-Diego Valor	3-0

PARTIDUAK

Apirilak 26, domeka	Epaleak
09:30 UD Akabaoak-CM Errotagain	Irubide
10:30 Irubide Tab.-Internacional	UD Akab.
11:30 Los Blus-Diego Valor	Internacional
12:30 Irish Pub-Monte Taberna	Diego Valor
16:30 Komando Pip.-Carboneros	Zigalikatis
17:30 Los Latinos-Zigalikatis	Komando Pip.
18:30 Belengua-Niu Tim	Los Latinos

SAILKAPENA

	P	J
1. UD Akabaoak	69	24
2. Carboneros	64	24
3. CM Errota-Gain	57	24
4. Zigalikatis	49	24
5. Los Latinos	41	24
6. Komando Piperrak	32	24
7. Los Blus	28	24
8. Diego Valor Ileapaind.	27	24
9. Niu Tim	26	24
10. Internacional	26	24
11. Irish Pub	23	24
12. Belengua Taberna	21	24
13. Monte Taberna	14	24
14. Irubide Taberna	10	24

Adi UD Akabaoak eta CM Errotagain taldeek jokatu dute partiduarekin

Domeka goizeko lehenengo norgehiagoka izango da, eta jardunaldiko garrantzitsuena, izan ere, aurtengo liderrak iazko txapeldunaren kontra jokatu du. Hala, UD Akabaoak taldeak partidua irabazten badu talde hori matematikoki txapeldun izango da.

Bestalde, kontutan izan bi jardunaldi baino ez direla geratzen liga amaitzeko, eta Labegaraietan kopa txapelketa hasiko dutela ondoren. Txapelketa horretara begira antolatzaileek taldeetako ordezkariak batzara egin gura dute datorren martitzenean, hilak 28, Bergarako kultura etxean (19:30); kopa zozketa egingo dute.

IGARO ESTETIKA

PROMOZIOA

Apirilaren 27tik 30era
Brontzea zaitez DOAN

Depilazio osoagatik edo aurpegiko garbiketa bategatik.

Barrenkale, 35 • Tel.: 943 76 17 27 • 20570 BERGARA

Estetika kabina
EGUERDIAN zabalik



trinmer
telecomunicaciones

t d t
televisión digital
terrestre

Bergaran ere badago Lurreko Tebista Digitala!

Kontsulta iezaguzu eta soluzio onena eskainiko dizugu, ez itxaron gehiago eta alda zaitez TB digitalera.

TRINMER 20 urte antenetan
LTDerako aurrekontuak. Protokoloa eta Boletina barne

TRINMER Telekomunikazioen instalatzaile ofiziala 1305
Egogain Kalea 2-Bac 20600 EIBAR
Tel.: 943 12 73 50 - 943 10 89 43 | Faxa: 943 20 73 60
antenas@trinmer.com | www.trinmer.com

TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93



ARANZADI IKASTOLA BATXILERGORA AURREMATRIKULAZIOA

Maiatzaren 4tik 8ra

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAREN BATXILERGOA
Osasun eta Natur Zientziak
Zientifiko-teknikoa
GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIETAKO BATXILERGOA

BILERA INFORMATIBOA:
Maiatzaren 5ean,
18:30ean Aranzadi ikastolan

HITZORDU PERTSONALENTZAKO
943 76 90 71 telefonora deitu



Kultura eta aisialdirako jarduera osagarriak
Batxilergo ondoko ikasketa guztietarako prestakuntza
Ikastolaren kudeaketan ikasleen parte-hartzea



Emaitza akademikoak gure kalitatearen adierazle



Kalitatezko Euskal Heziketa

San Martin plaza 4 Tel.: 943 76 90 71 / 66 - Faxa: 943 76 91 77
bergara@ikastola.net / www.aranzadiikastola.org



INGURUMENA > KALEKO FAROLAK

Aldatu egingo dituzte 150 farola, energia aurreztu eta kutsadura murrizteko

Estatuko Fondotik bideratutako 54.288 euroko dirulaguntzarekin egingo dute aldaketa; herriko beste 80 bat farola geratuko dira aldatu barik

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Aretxabaleako hainbat gunetan dauden 150 bat farolaren instalakuntzak aldatu egingo dituzte asteotan. Horretarako lanparak eta ekipamenduak aldatu egingo dizkiete eta, horrekin guztiarekin, lortu gura dutena da argi kutsadura murriztea, argindarraren eraginkortasuna hobetzea eta energia aurrezte.

BEDARRETAN ETA LAUSITTAN

Aldaketok Estatu Funtseko dirulaguntzarekin egingo ditu Ingurumen Sailak, hain zuzen 54.288 euro eman ditu Espainiako Gobernuak horretarako. Eta Udalak Electricidad Aranzabal enpresari agindu dizkio lanok.

Farolak herriko hainbat gunetan aldatuko dituzte. Hona: bidegorrian -Kurtzebarri eskolatik kanposantuko bidera bitartean-, kanposantu inguruan, Bedarreta auzoan, Santa Kurtz kaletik saihesbiderako irteeran, Lausitta kalean, Geltoki plazan eta Gipuzkoa plazan. 150 farola aldatu arren oraindik beste 80 inguru geratuko dira aldatzeko; horiek datorren urterako utzi dituzte.

ZERURANTZ ARGIRIK EZ

Hirigintza Saileko arduradunek adierazi digute energiari dagokionean aldaketa garrantzitsua dela:

"Lanparak botatzen duen argiaren fluxua barruan dagoen errelektore edo islatzaile baten bitartez hazi egiten da; horregatik, vatio kopuru berbera duten lanparek intentsitate handiagoarekin argitzen dute".

Argindarraren kutsadurari dagokionean zera argitu dute teknikariek: "Lanpara berrien hego hemisferioa opakoa da, hortaz, argia beherantz eta alboetarantz banatzen da; behar den lekura, hain zuzen". Hala, zerurantz ez doa argirik eta kutsadura murriztu egiten da.

Jarriko dituzten polikarbonatu zuriz egindako farola horiek bezalakoak dagoeneko badaude herriko txoko batzuetan: Lausitta kalean, Deba ibaiaren alboan; eta Urats Gain zaharren egoitzako lorategi aurrean. Eta etxe berriak egiten dabiltzan tokietan ere halakoak jarriko dituzte.



Gipuzkoa plazako farolak aldatuko dituzte beste batzuekin batera.

MIRARI ALTUBE

OSPAKIZUNA > ARIZMENDI IKASTOLA

Udaberri Jaia egingo dute bihar

Irteera, jolasak, bazkaria... antolatu ditu Arizmendi ikastolak udaberriaren etorrera ospatzeko

M.A. > ARETXABALETA

Laugarren aldiz antolatu du Arizmendi ikastolak Udaberri jaia eta bihar ospatuko dute ikasle, guraso eta irakasleek.

Martitzenean aurkeztu zuten jaia Argitxoren laguntzarekin eta irteera, jolasak, ipuin kontaketa, herri bazkaria eta beste hainbat ekitaldi iragarri zituzten Udaberri jairako.



Arizmendi ikastolako kideak Udaberri jaia aurkezten, martitzenean.

MIRARI ALTUBE

TALO ETA SAGARDO TXOSNA

Irteerarekin hasiko dute ospakizuna (09:30) eta Arkarazo auzora bidean dagoen Iturriondo parkea eta inguruak ezagutzera joango dira. Handik bueltan Herriko Plazan elkartzeko dira (11:30) eta jolasak egingo dituzte bai umeek, bai helduek: lokotx batzea, animalien bikote jolasa, koilara jolasa eta zaku lasterketak.

Iaz arrakasta izan zuen talogintza tailerra aurten ere egingo dute, hainbat amamaren laguntzarekin eta, gainera, taloa eta sagardoa saltzeko txosna jarriko

dute gurasoek. Goiz partea agurtzeko kalejira egingo dute (13:00) buruhandi eta trikitalariekin eta bazkaltzera joango dira Basabeazpira, burruntzian erretako bildotsa jatera.

Bazkalostean tailerrak izango dituzte lehenengo ume eta gaztetxoek -aurpegi margotzea, marrazkiak egitea...-, eta gero, ipuin kontaketa (16:30ean); helduek, oster, Arizmendiko guraso eta irakasleek osatutako antzerki taldearen ikuskizuna. Txokolate beroa hartuta agurtuko dute eguna Argitxorekin batera (17:30ean).

EUSKARA > LIBURUAREN EGUNA

'Atxabaltan be leidu': gomendioak eguaztena arte

Euskaraz irakurtzera animatu gura dituzte herritarrak egitasmoarekin

M.A. > ARETXABALETA

Bigarren aldiz antolatu dute Udal euskaltegiak eta Loramendi Euskara Elkarteak *Atxabaltan be leidu* egitasmoa. Atzo, hilak 23, ospatu zen Liburuaren Nazioarteko Eguna gogoan izanda euskaraz irakurtzera animatzea du helburu. Hala,

hainbat libururen gomendioak dituen esku-orritxo bat banatu dute astean. Gomendio horiek herritar ezagunek egin dituzte. 2008ko euskarazko libururik salduenak zeintzuk izan ziren ere badakar orritxoak.

Beste batzuen gomendioak jaso bakarrik ez, norberak ere gomenda dezake liburu bat. Jasotakoekin zozketa egingo dute eta irabazleak 40 euroko txartela jasoko du Elkar liburu dendan gastatzeko. Gomendioak Loramendira edo euskaltegira eroan behar dira; azken eguna hilaren 29a da.

Iber

Loteria
Paper denda
Liburuak

Otolora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

Jou Díaz
Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

oharrak

IPIIN KONTAKETA

> 'Kontu kontari, kanta kantari' kontaketa liburutegian

Iker Diaz ipuin kontalaria saioa egingo du liburutegian bihar (11:30). Debalde.

ERRETIRATUAK

> Parkinsonaren gaineko berbaldia Basotxon

Parkinson gaixotasunarekin zelan bizi azalduko die erretiratuei, Basotxon, hilaren 28an, martitzena (17:00).

ZINEMA

> 'La clase' eta 'Space chimps' filmak aste bukaeran

Gaur eta bihar (22:00), domekan (19:30) eta astelehenan (16:00) emango dute *La clase* filma. Umeek *Space chimps* dute domekan (17:00).

GAZTEAK

> Gazte oporraldiak

Aldundiaren Gazteria Sailak antolatutako udalekuetan parte hartzeko izenemate epea zabalik dago hilaren 29a arte (www.gipuzkoa.net/oporraldi).

DANTZA

> Dantza libre saioa

Maiatzaren 14an izango da Jaiki elkarteak antolatutako dantza libre saioa, kuarterlean (18:00-20:30). Izena emateko deitu 669 05 80 33 zenbakira.

KULTURA > LIBURUAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Liburuaren Eguna ospatuko dute ludotekan

Ume eta gazteen artean irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko asmoarekin ipuin tailerra eta komiki tailerra egingo dituzte Gernika plazan



Liburu azoka egin zuten iaz ludotekan Liburuaren Eguna girotzeko.

GOIENKARIA

MIRARI ALTUBE > ARETXABAETA

Liburuaren Nazioarteko Eguna atzo, hilak 23, izan bazen ere Algara ludotekan gaur ospatuko dute herriko ume eta gaztetxoek. Ludotekako bazkide zein bazkide ez diren guztiendako antolatu dituzte ekitaldiok eta Gernika plazan jai giroa izango da 17:00etatik 20:00etara.

HIRU TXOKOTAN BANATUTA

Liburuarekin gozaten ikasi eta txikiaren artean irakurtzeko zaletasuna bultzatzea du helburu egunak. Ludotekako arduradunek hiru txoko antolatuko dituzte. Alde baten liburuak trukeko txokoa egingo dute, hau da, liburu bat utzi eta beste bat jasotzeko gunea. Beste alde baten txikiendako txokoa egongo da, 3 eta 6 urte bitartekoendako, eta ipuin tailerra izango dute bertan.

Etan hirugarren gunea 7 eta 12 urte bitartekoendako izango da, komiki tailerra hain zuzen. Gaztetxo guztien artean komiki erraldoia egingo dute eta bukatzeko komikia irakurriko dute (19:30).

Bestalde, Iesbaa eta Nubi elkarteek begiraleak behar dituzte Tindouf herriko errefuxiatuen kanpamenduetatik etorriko diren umeekin egoteko. Bi hilabete pasatuko dituzte Lasturren (Deba) eta egonaldian lagun izateko boluntarioak behar dituzte. Interesatuek elkarteetako arduradunekin egin dezatela berba (626 63 91 64 edo 685 72 48 17) edo iesbaa@gmail.com.

SAHARA

Are-Kros probarako dortsalak salgai daude

M.A. > ARETXABAETA

Iesbaa elkarteak Sahararen aldeko bigarren Are-Krosa antolatu du. Maiatzaren 9an egingo dute Herriko Plazatik irtenda (18:30) eta 6 kilometro izango dira. Dortsalak dagoeneko salgai dituzte La Caixan 3 euroren truke. Lasterketa, baina, ez da izango eguneko ekitaldi bakarra. Goizean (11:00) cous-cous jakia zelan gertatu ikastaroa egingo dute Urbaltz elkartearen. Eta gero bazkaltzera gertatuko dira guztiak.

BEGIRALE BILA UDARAKO

Bestalde, Iesbaa eta Nubi elkarteek begiraleak behar dituzte Tindouf herriko errefuxiatuen kanpamenduetatik etorriko diren umeekin egoteko. Bi hilabete pasatuko dituzte Lasturren (Deba) eta egonaldian lagun izateko boluntarioak behar dituzte. Interesatuek elkarteetako arduradunekin egin dezatela berba (626 63 91 64 edo 685 72 48 17) edo iesbaa@gmail.com.

Portugalen izan dira oporretan Basotxoko hainbat kide

Basotxo erretiratuen elkarteak hainbat kide -autobus bat beteta- Portugal aldean ibili dira Pazko Astearen, hau da, hilaren 13tik 19ra bitartean. Lisboa inguruak ezagutu dituzte eta, eguraldia lagun ez izan arren, giro bikainean pasa dituzte egunok. Argazkian Cabo da Roca izeneko parajearen daude, Europan mendebalderen dagoen puntuan, hain zuzen.




BASOTXO

> IKASTAROA

Bitxiak zelan egin ikastaroa Arkupen, gazteendako

Feltroa eta fimo materialak erabilita eta swaroski teknika zer den erakutsita bitxiak zelan egin daitezkeen erakutsiko die Larraitz Garai aretxabaletarrak gazteei. Arkupe kultura etxean egingo dute ikastaroa maiatzaren 6tik 27ra bitartean, eguaztenetan (18:00-20:00).

Izena emateko epea dagoeneko zabalik dago eta Arkupen (943 08 10 01) edo Gazteria Zerbitzuan egin behar da mezu bat bidalita: gazteria@aretxabaleta.net. Azken eguna maiatzaren 4a da eta 10 euro ordaindu behar da izena ematerakoan.



EGUZKIGRAF
inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4

20550 Aretxabaleta

Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941

E-mail: info@eguzkigraf.com

KIROLAK > UDABERRI TXAPELKETA

Aste bukaeran eskola kiroleko Udaberri txapelketa hasiko dute

Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek parte hartuko dute txapelketan ekainaren 20ra arte

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

2008/09 ikasturteko eskola kiroleko egitarauaren barruan zehazten denez, 36. Udaberri Txapelketa hasiko dute aste bukaeran. Errekalde Herri Eskola, Elkar Hezi eta Txantxiku Ikastolako ikasleek jardungo dute hurrengo asteetan. Hain zuzen ere, Lehen Hezkuntzako hirugarren, laugarren, bosgarren eta seigarren mailetako ikasleak, eta DBHko lehenengo, bigarren, hirugarren eta laugarrena mailetakoak ibiliko dira kirola egiten. Hau da, 8 eta 16 urte arteko 550 neska-mutiko ibiliko dira.

Hiru ikastetxeetako eskola kiroleko arduradunek egin dituzte taldeak, eta Lehen Hezkuntza-



Sari banaketa ekitaldia ekainaren 20an egingo dute kiroldegian.

ESKOLA KIROLA

ko hirugarren eta laugarren mailako neska-mutikoak nahastu egin dituzte talde ezberdinetan. Gurasoek dute taldeen ardura.

TALDEKA ETA BANAKA

Udaberri txapelketan bi motatako kirolak egingo dituzte: taldekoak eta bakarkakoak. Taldeko kirolen artean eskubaloia, saskibaloia, areto futbola eta zortziko

futbola landuko dituzte. Bakar-kako kirolean, squasha, tenisa, pilota, badmintona, patinajea eta atletismoa egingo dute. Norgehiagokak zapatuetan jokatuko dituzte, kiroldegian eta Azkoagainen, 09:30etik 11:30era arte.

Udaberri Txapelketako bukaera jaia eta sari banaketa ekitaldia ekainaren 20an egingo dute kiroldegiko kantxan.

UDALEKUAK > IZENEMATEA

Udalekuetako izenematea, maiatzaren 4tik 18ra arte

4 eta 10 urte arteko neska-mutikoek parte hartu ahal izango dute uztailearen 1etik 30era

M.B. > OÑATI

Udaleku irekiak antolatzen hasi dira dagoeneko. Begiraleendako deialdia egin ondoren, udalekuetan parte hartuko duten neska-mutikoendako deialdia egin dute udal arduradunek: izenemate epea maiatzaren 4tik 18ra arte izango da.

Euskadiko Kutzako kontu korrante baten bidez egin behar da izenematea, 60 euro ordainduta. Aurtengo udalekuetan gazteenak 2005. urtean jaiotakoak izango dira, eta zaharrena, 1999. urtekoak.

Azken urteotan egindako moduan, txanda bakarreko udalekuak egingo dituzte; hau da, uztailearen 1etik 30era.

INFORMAZIOA, IKASTETXEETAN

Arduradunek udaleku irekien gaineko informazioa astelehenetan banatuko dute herriko hiru ikastetxeetan. Ikasleek eroango dute etxera hurrengo asteko eguaztenez edo egue-nean.

Lukene Astigarraga eta Nagore Oianguren izango dira udaleku irekietako koordinatzaileak.

Iaz, 250 neska-mutikok parte hartu zuten udalekuetan; besteak beste, tailerrak, irteerak eta San Fermin eguna ospatuko dute. Dena den, oraindik egitaraua lotu barik dute.

BEGIRALEAK

Udalekuetako begiraleak topatzeko Udalak egindako deialdiak erantzun zabala izan du: 40 inguruk eman dute izena. Hurrengo pausoa begirale kopurua aukeratzea izango da. "Lehen-lehenik zenbat ume izango ditugun jakin beharko dugu. Taldeak zehaztu ondoren, zenbat begirale behar ditugun erabakiko dugu", esan digute arduradunek.

Aukeraketa egiteko baldintzetan zehaztutakoak hartuko dituzte kontuan; hain zuzen, EGA eta begirale tituluak, esperientzia eta ikasketak.

Parrokiako argiztapen berria inauguratu dute

Mikel Goiaingeruaren Parrokiako argiztapen berria hilaren 8an inauguratu zuten. Hain zuzen ere, erretaula eta aldare nagusiak, kripta, eta Errosario eta Pietateko kaperak argiztatu dituzte. Guztira, 120.000 euroko aurrekontua erabili dute lanok egiteko. Foru Aldundiak eta Turismo eta Garapen Agentziak ordainduko dute erdi bana.

Gutxiago kontsumitzen duen LED argi sistema erabili dute eta bisita turistikoendako egokitu dute. Erretaula nagusira zuzenduta zeuden lau fokuen intentsitatea jaitsi egin dute: lehen 300 lux-eko potentzia zegoen erretaulara begira, eta egun, 50 lux ingurukoa. Gainera, erretaulako irudi bakoitzari foku bana jarri diote. Bestalde, programa informatikoaren bidez, unean uneko elizkizunen arabera erregulatu ahaliko dute parrokiako argiztapena.



ANABEL DOMINGUEZ

oharrak

DEIALDIA

> Hitzaldia izango da erretiratuen elkartean

Pake Leku elkartean *Gure gorputza zaindu* delako hitzaldia egingo dute hilaren 28an, martitzena, 17:00etan. Pake Lekuk Nagusilanekin batera antolatu du berbaldia eta erretiratu guztiak gonbidatu gura dituzte.

DEIALDIA

> Afari solidarioa egingo dute gaur Bidaurretan

Oñatiko Pastoral Barrutiko Misio Taldeak afari solidarioa egingo du gaur, Bidaurretako fraileen etxean, 20:30ean. Patata tortilla letxugarekin jan ondoren, Joxan Larrañaga parrokoak Maliko proiektuaren gainean egingo du berba.

DEIALDIA

> Odol ateratzea egingo dute gaur, ikastolan

Oñatiko odol emaleen elkarteak odol ateratze berria egingo du ikastolan barikuan, 18:00etatik 20:00etara. Hurrengo maiatzaren 8an egingo dute.

BIRZIKLAPENA

> 'Zientzia zoroa' saioa gaztelekuan

Iatargi astronomia taldeak eta Mad Sciencek zientzia saio berezia egingo dute gaur, 18:30ean, gaztelekuan.

AUTOAK

Arduraduna: Edu Mendibil / Erredakzioa: Nerea Menor



Proposamen berritzaileenak aurkezten dira auto-erakusketetan.

GOIENKARIA

■ NAZIOARTEKO AUTO-ERAKUSKETAK

Krisiari aurre eginez

NEREA MENOR

Genevako auto-erakusketan izan ziren markek egun batzuetan alde batera laga zuten automobilen alorra jasaten ari den krisia. Berritasun garrantzitsuenak aurkeztu zituzten, prezioari erreparatu gabe. Hilabete barru, berriz, Madrilén egingo da Estatu-erakusketa garrantzitsuenak.

Martxoaren 5etik 15era Geneva-ko nazioarteko auto-erakusketaren 79. edizioa ospatu zen. Automobilerik dagokien urteko hitzordu garrantzitsuenak da Suitzako hirian egin zena.

Potentzia izugarria, diseinu futurista eta barrualde sofistikatu dira Suitzako ikusi zirenak –eta gutxi batzuen eskutan dauden autoen ezaugarri komunak.

Azken urteotako erakusketetan Gune Berdea delakoak garrantzi berezia hartu du. Bertan, ekologia eta ingurumenarekiko errespetuaz jabetuta, motor elektrikoak, plataforma hibridoak eta halakoak aurkeztu zituzten; auto garbiak eta ohikoa baino gutxiago kutsatzen dutenak. Areto erraldoietan, auto-markek aurkeztutako modeloez gain, hainbat sek-

zio berezi ikusi ziren: tuning zona, diseinuarena, konponketa lanak...

Detroit eta Los Angelesko azoketan, Genevan moduan, proposamen berritzaileenak ikusi eta probatzeko aukera egon zen.

MADRILGO ERAKUSKETA

Madrilgo nazioarteko auto-erakusketa maiatzaren 23tik ekaina-

ren 1a bitartean egongo da ikusgai, Ifeman. Aste barruan zortzi euro balioko du sarrerak eta asteburuan, hamar. Ordutegia, 11:00etatik 21:00etara. Maiatzaren 24an, salbuespen moduan, 14:00etatik 21:00etara. Han ere, automobilerik berritasunez gain beste hainbat zerbitzu daude: asaguruak, kart autoak, ibilgailu probak boxetan, eta abar.

Salneurri gomendatua Penintsulan eta Balear uharteetan auto honentzako: Ford Focus Coupe Trend TDCi 90ZP. BEZa, garraioa, sustapeneko deskontua, matrikulazio zerga eta kontzesionarioaren ekarpena barne. Hilabete bukaera arte ballagarria. Ikusten den modeloa ez da eskaintzen dena. Focus gama, batez besteko kontsumoa: 4,7-9,3 l/100km. CO₂ igorpenak: 114-224 g/km.



Ez da erraza aurkitzea prezio hori mota honetako auto baten.

Ford Focus TDCi: bi aldeko aire-girogailua • abiadura kontrola • CD-irradi 6000 eta aginteak bolantean • egonkortasun-kontrola (ESP) • trakzio-kontrola (TCS) • ABS eta 6 aire-poltza
14.900 eurogatik.

Gainera, 10.000 eurotan %0ko interesa, Gobernuaren VIVE Plus planarekin.

MUGARRI AUTOAK
Araba Etorbidea, z/g. Arrasate
Tel.: 943 797 564

Feel the difference



■ MERKATUKO AUTORIK BERRIENAK

Diseinu berriak eta praktikotasuna

NEREA MENOR

Duela gutxi aurkeztu dizkigute datozen urteotan ikusiko ditugun automobilak. Urtero proposamen berriekin harritzen gaituzte, eta, krisian dagoen sektorea izan arren, eroslea harrapatu nahi dute azkeneko berrikuntzekin. Beti bezala, diseinu dotoreak aurkeztu dituzte aurtan ere, iazko modelo berriak eta potentzia handiko motorrak. Produktu eskaintza zabalak, edozein konbentzitzeko modukoak.

Garai honetan, automobil-etxe gehientsuenek modelo berriak aurkezten dituzte. Udaberri hasieran auto erakusketak izaten dira han eta hemen eta ikusiko ditugun auto modernoak ezagutzeko aukera dago.

Marka eta modelo eskaintza zabalak egonda, guztiontzako autoak daude. Merkeagoak, garestiagoak, txikiagoak edota zabalago-

ak. Askok etxeari begiratzen diote prestazioen aurretik; hala ere, gidarien gehiengoak aukera asko aztertzen du -baita automobil-etxe asko ere- ibilgailua erosi aurretik.

DISEINU DOTOREAK

Diseinuak garrantzi handia izaten jarraitzen du. Xasis moderno eta erakargarriak gustuko dituzte gidariek eta barnealde zaindu eta erosoak. Azken finean, auto bat ikusten duzunean, haren itxura da lehenik eta behin ikusten duzuna, eta hori, askorentzat garrantzitsua ez izan arren,

inportantea da oso. Adibide bat jartzearen, Renaulteko Scenic berriaren ezaugarri garrantzitsuenetarikoa diseinua dela azaldu digute Arrasateko Autoberrri kontzesionarioko jabeek.

Espazioak ere garrantzi handia du auto bat aukeratzeko orduan. "Nissan Qashqai +2ak zazpi eserleku ditu, eta espazio handia", diote Bergarako Nissanen. Seme-alabak dituzten bikoteek auto zabalagoak aukeratzeko dituzte, monobolumenak edo, akaso, familiarrak. Hirian ibiltzeko tamaina txikiak aukeratzeko dira askotan, aparkatzeko orduan arazo gutxiago edukitzeko-edo. Badaude txikiak izan arren leku handia dutenak ere: hainbat markak monobolumen konpaktuak aurkeztu dituzte aurtan. Ez dira oso handiak, baina altuak dira eta barruan leku handia dute. Horren adibide C3 Picasso berria da: "Auto txikia da baina kapazitate ederra du", azaldu

Diseinu erakargarriak eta barnealde zainduak gustuko dituzte gidariek



NISSAN QASHQAI +2

Nissanek atera duen auto berriena da. Aurrekoa baino luzeagoa da eta eserleku ilera bat gehiago du. Zazpi eserleku, atzeko bi aulkiak tolesteko aukerarekin. 4x2tik 4x4ra automatikoki pasatzen da egoeraren arabera. Kristalezko sabai panoramikoak. ABS, SP, sei airbag eta bluetootha.

digu Mikelek, Arrasateko Citroen Chapime kontzesionarioko langileak.

Autoak izan behar duen alor garatuenetarikoa segurtasuna da. Etxeek hori badakite, eta urterik urte auto seguruagoak egiten dituzte: geroz eta airbag gehiago ezartzen dira, ESP sistema, eta abar. Auto seguruekin, istripuak

saihesteko aukera gehiago izango ditugu. Hala ere, jarrera eta errepidearen egoera ere erabakigarriak dira halakoetan.

Ford Kuga berriak alergiaren kontrako barnealdea duela azaldu digute Arrasateko Ford Mugarri, prestazio garrantzitsua gaitz hori dutenentzat.

INGURUMENAREKIKO ERRESPETUA

Azkenaldian, auto ekologikoak edo emisio txikiak dituztenak moda-modan jarri dira. Ingurumenaren garrantziaz jabetuta geroz eta gehiago dira auto ekologikoak aukeratzeko dituzten gidariak. "Fiat Bravo berria 120 gramoko CO2 emisioen azpitik dago", dio Arrasateko Kanpanzar kontzesionarioko Karlosek.

Segurtasuna, diseinua, erosotasuna eta praktikotasuna eskatzen da



San Andres auzoa 8 ARRASATE
943 71 24 72



www.renault.es/concesion/autoberrri

KRISI GARAIAN 2. ESKUKO AUTOETAN AUKERA PAREGABEA

MODELOA	KM	DATA	SALNEURRIA
TWINGO			
Nuevo Twingo Dynamique 1.2 75 ZP	KM 0	2008	10.000
CLIO			
Clio 2 Authentique 1.5 DCI 70 ZP 5 ate	11.138	2007	10.000
Clio 3 Confort Expres 1.5 DCI 85 ZP 5 ate	21.100	2006	11.500
Clio 3 confort Expres 1.5 DCI 85 ZP 5 ate	9.800	2007	12.500
Clio 3 confort dynamique 1.5DCI 105 ZP 3 ate	KM0	2007	14.250
Clio 3 dynamic 1.5 DC 85 ZP 5 ate ECO2	KM0	2008	14.850
MODUS			
Modus Dynamique 1.5D 85 ZP	8.651	2007	13.000
MEGANE			
Megane 1.5 DCI Confort Expression 5 ate	96.000	2003	7.000
Megane 1.5 DCI Confort Expression 5 ate 85 ZP	74.000	2004	8.500
Megane Luxe Dynamike 1.9 DCI 130 3 ate	22.300	2006	13.000
Megane Luxe privilege 1.9 DCI 130 3 ate	16.954	2006	13.500
Megane Dynamique 1.5 DCI 85 5 ate	19.200	2008	13.500
Megane Confort Expres 1.5 DCI 105 3 ate	KM 0	2008	14.000
Megane Dynamique 1.5 DCI 105 5 ate	6.000	2008	14.300
Megane Dynamique 1.5 DCI 105 5 ate	7.000	2008	15.200
Megane Luxe privilege 1.9 DCI 130 5 ate	KM 0	2008	16.000
MEGANE GRAND TOUR			
Megane Familiar Lux Dynamique 1.9DCI 120 ZP	136.600	2004	8.800
SCENIC			
Scenic Confort Expres 2.0 DCI 150 ZP	KM 0	2007	17.000
Scenic Dynamique 1.9 DCI 130 c	KM 0	2008	18.500
Scenic Dynamique 2.0 dci 150 ZP	KM 0	2008	19.000
GRAN SCENIC			
Gran Scenic Expres ion 1.9 DCI 130 ZP	10.300	2007	17.500
LAGUNA 2			
Laguna 2 Expression 1.9 DCI 130 ZP	160.600	2004	7.000
Laguna 2 Privilege 2.2 DCI 150 ZP	150.800	2003	9.000
Laguna 2 Privilege 1.9 DCI 130 ZP	105.000	2004	10.300

MODELOA	KM	DATA	SALNEURRIA
Laguna 2 Pack Authentique 1.9 DCI 95 ZP	38.637	2006	13.500
Laguna 2 Confort Expression 1.9 DCI 130 ZP	25.100	2006	13.800
LAGUNA GRAND TOUR 2			
Laguna Grand Tour 2 expresion 1.9 DCI 120 ZP	150.000	2003	8.000
Laguna Grand Tour 2 Confort Dyn 1.9 DCI 120 ZP	117.586	2005	11.500
Laguna Grand Tour 2 EXP 1.9 DCI 120 ZP	65.700	2006	14.500
Laguna Grand Tour 2 EXP 1.9 DCI 130 ZP	KM 0	2008	17.500
LAGUNA 3			
Laguna Dynamique 2.0 DCI 150 ZP	10.500	2007	24.500
Laguna Grand Tour 3			
Laguna Dynamique 2.0 DCI 150 ZP	KM 0	2008	24.000
ESPACE 4			
Espace IV 1.9 dci Expression 120 ZP	27.500	2006	19.500
Espace IV 2.0 DCI Emotion 130 ZP	25.000	2008	22.000
KOLEOS			
Koleos Dynamique 2.0 DCI 150 ZP 4X2	25.000	2008	24.900
Koleos Privilege 2.0 DCI 175 ZP 4X4	KM 0	2008	30.500
KANGOO			
Kangoo Confort Expression 1.5 DCI 65 ZP	126.200	2005	5.500
kangoo furgon 1.5 dci confort	7.827	2007	10.000
kangoo furgon gran confort 1.5 dci	5.781	2008	10.900
kangoo Combi 4x4 1.6 V 95 ZP	18.000	2007	13.000
Kangoo Combi Confort Expression	KM 0	2008	12.000
SANDERO			
Sandero	KM 0	2008	11.000
BESTE MARKAK			
Jumpy 1.9 D Furgoi standard 4 ate	49.128	2003	4.500
Berlingo Com. 2.0 Hdi SX 5 ate	87.000	2004	8.000
Xsa. Picasso 1.8i 16v 5 ate	95.000	2004	8.000
Corsa Enjoy 1.4 90 ZP 3 ate	20.000	2007	8.800
PT Cruiser 2.0 16v. Touring 5 ate	40.500	2002	8.300
Astra 1.9 CDTi Cosmo 5	76.593	2005	11.500

bigarren eskuko 100 autotik gora aukeran kontsultatu gure motore eta ekipamendu aukerak. Unitate mugatuak. Finantziario aukera zabalak. Galdetu lasai.



CITROËN C3 PICASSO

C3aren eta Picasso monobolumenaren batura. Txikia baina espazio handiduna, abangoardiaren eredu. Citroëneko ibilgailu garbienen airdream motorra. Gurpilen labaindura mugatzen du ASR sistemaren bidez eta itsaspen falta dagoenean ibilbidea mugatzen du autoa kontrolatzeko.



RENAULT GRAN SCENIC

Praktikoa, ekologikoa, eroso, segurua eta adimenduna. Diseinu berritzailea. Koloretako pantaila, baliagarria den informazio guztiarekin. Haizetako panoramiko, eta euri eta argitasun sentsorea. Zazpi eserleku; bi, tolestekoak. Osagarri pilo. Kutxatxoak eta apalak behar beste.

Monobolumen konpaktuek, txikiak izan arren, altuera eta espazio handia eskaintzen dute

Segurtasunaren alorra errotik aztertzen dute automobil-etxe gehienek



FORD KUGA

Teknologia berritzaileenak ditu. Bide guztietatik bidaiatzeko prestatua dago. Pneumatikoei aire-galera detektatu egiten du; atzeko ikuspegia kamera bidez; aireztapen sareta; autoa abiatzeko Ford Power botoia. 4x4 automatikoki ezartzen du. Barnealdean, alergiaren kontrako materialak.



FIAT BRAVO

Karrozeria, motorra... guztia aldatu diote. Diesel motor berritzaileak. Lau ekipamendu maila: Active, Dynamic, Emotion eta Sport, estilo jakin batera egokitzen diren osagarriekin: aleroia, ihes-hodi kromatua, DVD irakurgailua sabaian, bizikletak, eskiak eta abar eramateko barrak...

Ingurumena ere gidarien kezka da, gutxiago kutsatzen duten autoak aukeratzen dituzte

Erabat informatizatuta daude autoak, guztiek dute pantaila

www.citroen.es

CITROËN C3 PICASSO BERRIA. SPACEBOXa LEKUA APROBETXATZEKO ERARIK EGOKIENA

Citroën-ek OSOA nahiago.
Kontsumo mistoa (l/100 km) / Emisioa: CO2 (g/km): C3 Picasso: 4,7- 6,9 / 125 - 159



ERREALITATE HAUNDITUA
Sartu www.c3picasso.com-en eta bizi esperientzia berri bat 3D-n. Oso gertutik ikusteko nahia eta webcam bat besterik ez duzu behar.

Citroën-ek beste behin bere abanguardia teknologikoaren beste proba bat dakar, monobolumen konpaktuen unibertsoa aldatuko duen kontzeptu berri bat sortuz. Citroën C3 Picasso berria, SPACEBOXa, mundua ezagutzeko edo bertan dagoen guztia gordetzeko leku paregabea da. Bere barnea benetan handia da eta 3 zati dituen haizetako panoramiko, bere segmentuan ikuspen haundiena duena da. Momentuko beharretara egokitzeko ikaragarriko gaitasuna eta modularitatea du. Iraultzailea eta argia da, abangoardiaren eta berrikuntzaren adibidea da. Igo eta esperientziak bete ezazu. Ongi etorri espaziora.

CRÉATIVE TECHNOLOGIE

Etor zaitetz ikustera: Debagoieneko Citroën zerbitzu ofizial bakarrak:

TALLERES CHAPIME S.C.L. - San Andres 5 Tel.: 943 79 45 22 - ARRASATE
AUTOS ION Amillaga 36 - Tel.: 943 76 47 49 - BERGARA

■ AUTO-ASEGURUAK

Asegurua, autoreakin batera eraman beharrekoa

NEREA MENOR

Autoa erosi eta berehala aseguruia kontratatzea joaten dira gidari gehienak. Eragiten dituzun edo eragiten dizuten kalteei aurre egiteko erabat beharrezkoa da; eta legeari dagokionez, derrigorrezkoa. Eskaintza zabala da eta autoaren ezaugarrien arabera bat edo beste aukeratuko dugu.

Zurich aseguru etxean auto-asegurua eskaintzeaz gain, gainerakoak ere badituzte: erretiro-asegurua, istripu, bizitza, etxebizitza-asegurua... Bertako langile Mari Karmenek azaldu digu aseguruaren garrantzia: "Batuetan, arazo larri bat gertatu arte ez gara hauen garrantziaz jabetzen".

Gaia gurera ekarrita, autoak aseguruia edukitzera derrigorputa daude eta asegururik gabe ibiltzea denuntzia gogorarekin zigortzen da. Hala ere, "oinarri-oinarrikoa izan arren, jende askok ez du kontratatzen", dio Mari Karmenek.

ASKOTARIKO ASEGURUAK

Azkenaldian, krisia dela-eta, primaren zenbatekoa asko aztertzen da kontratatatu aurretik. Auto



Istripu baten aurrean era ezberdinean erantzunoko dute aseguruiek.

GOIENKARIA

berria erosten denean arrisku orotakoa eskatzen du bezeroak, autoak bere balio osoa duelako. Hiru edo lau urte baino gehiagoko autoetan, berriz, joera bestelakoa da: "Erabateko ezbeharrak (siniestro totala) gertatuz gero,

matrikularen arabeko balioa emango diote jabeari; baina autoak urteak dituzenez, haren balioa txikiagoa da eta ez da errentagarria arrisku orotakoa kontratatzea", diote Zurich aseguru-etxean. Matrikulatzen den momen-

tutik aurrera autoaren balioa txikitzen doa; Zurichen, baina, bat, bi eta hiru urteko autoek berrien balioa mantentzen dute.

Orain arte, aseguruiko prima eramatea derrigorrezkoa zen, baina araudian izan den aldaketaren

Auto-asegurua oinarri-oinarrikoa izan arren, jende askok ez du kontratatzen

Krisiaren ondorioz, bezeroek sakon aztertzen dute primaren zenbatekoa

Aseguruiko prima eramateko betebeharrak bertan behera gelditu da

ondorioz, orain ez da derrigorrezkoa izango. Matrikularen bidez jakingo dute aseguruia ordaindu dugun ala ez. Hala ere, eramateko gomendioa egiten dute Zurichen: "Erabat finkatu arte, gomendagarria da eramatea".



NISSAN TIIDA
zatoz ezagutzera!

T. Blanco
Nonito Blanco Sampayo

Erakusketa eta salmenta:
San Lorentzo industrialdea
Amillaga 22
Tel.: 943 76 17 35 / 943 76 51 35
Faxa: 943 76 94 59
BERGARA

ZERBITZU OFIZIALA:


BRIDGESTONE Firestone DUNLOP



zatoz ezagutzera!
NISSAN QASHQAI+2



IBARRA
garagea, s.l.



GARAJEA • AUTO KONPONKETAK • GARABI ZERBITZUA

Azeri kalea 5, 107 P.K.
Tel.: 943 79 12 61 - 678 47 81 15 Faxa: 943 77 10 01

ARRASATE

■ KONPONKETAK

Krisi garaian, kontu handiagoz

NEREA MENOR

Auto gutxiago erosten ei dira, eta baita auto gutxiago bota ere. Gidariak zuku guztia ateratzen diote autoari, erretiratu aurretik. Matxurak konpontze-
ra eraman baino lehen ere asko pentsatzen dute, eta ordaindu behar-koari asko begiratzen diote zerbitzua kontratatatu aurretik. Krisi garaian estutze aldera jotzen dugu.

Asko entzun da, azkenaldian, automobilen alorrean ondo doazen bakarrak konponketa tailer-
rak direla, baina badirudi ibar-
rean, behintzat, gauzak ez dire-
la horrela. Aurretik ez bezala,
orain, ia bezero guztiek eskatzen
dute aurrekontua eta asko begi-
ratzen diote zenbatekoari. "Kon-
pontzeko gauza bat baino gehia-

go izan arren, bakarrik konpon-
tzeko eskatzen digute, diru pix-
ka bat aurrezteko", diote Berga-
rako Blanco tailerrean. Horretaz
gain, aldaketak lehen baino
beranduago egiten dira: "Aldake-
tak eta mantentze lanak atzera-
tu egiten dira garai honetan, jen-
deak azkeneko momentura arte
itxaroten du", diote Blanco tai-
llerrean. "Lehen, desegitera era-
maten ziren auto asko orain kon-
pontzeko eskatzen digute. Igar-
tzen da ekonomia gaizki doala",
diote Bergarako Lagun garajearen.

ARAZO ELEKTRONIKOAK

Auto berrietan arazo nagusiak
elektronikoak direla jakinarazi
digute tailerretan. Horiek kon-
pontzeko makinaria berezia
behar da, ibilgailuetako pantai-
lara iristeko. Gidari askok uste
dute horrelako arazoaren aurrean



Matxurak saihesteko azterketa mekanikoak egitea ezinbestekoa da.

GOIENKARIA

kontzesionarioetara jo behar
dutela derrigorrez, baina oker-
daude: ondo hornitutako tai-
lerrek beharrezko tresnak dituzte
edozein motatako arazoak kon-
pontzeko. "Tailer askotan kon-
pon daitezke arazo elektroniko-
ak. Gurean, esaterako, arazo
horien %95 konpontzeko maki-
neria dugu", diote Arrasateko
Ibarra garajearen. "Guk arazo ele-
ktronikoak konpontzen ditugu,
baina egia da horiek konplexua-

goak direla ohikoak baino", di-
te Lagun garajearen. Elektroniko-
ez gain, bestelako matxurak ere
konpontzen dituzte tailerretan,
baina gehienbat mantentze lana
egiten da: gurpilak edo olioia alda-
tu, bateria konprobatu...

HAINBAT AHOLKU

Autoa egoera onean mantendu
behar dugu: garajea izanez gero,
bertan aparkatu; balaztadak,
derrapeak edota bat-bateko aze-

leratzeak saihestu; abiadura ego-
kian gidatu; eta abar. Aholkuak
asko izan daitezke, baina ingur-
ruko tailerrek bat egiten dute
bat emateko orduan: azterketa
mekanikoak behar den garaian
egitea, autoa egoera onean man-
tentzeko. Hau da, gurpilak alda-
tu behar direnean aldatzea, uha-
lak behar bezala eramatea... Eta
ez itxarotea gauzak guztiz puska-
tu arte. Nibelak ondo mantentzea
ere gomendagarria da.

LAGUN GARAJEA



Tailer profesionala

Mekanika orokorra

Santalaitz 3. BERGARA. Tel.: 943 76 11 20

ZURICH AUTOK eskaintzen dizu:

- Aseguruaren titulartasuna 25 urtetik aurrera
- Lehenengo bi urteetan erabateko hondamena gertatuz gero, auto berriaren balioa
- 25 eta 35 urte arteko erakumea izatearren, % 10eko deskontua
- "Soluzioak bidean" zerbitzu gida: zure aseguruak eskaintzen dizun abantaila eta zerbitzu gama zabala.

- Laguntza juridiko eta legala bidaietan
- Deskontuak tailerretan
- Deskontuak jatetxeetan, hoteletan (NH, Sol Melia...) eta paradoretan
- Deskontuak bidaietan (opor-paketeak, auto alokatuak, tren txartelak, tarifa bereziak charter hegaldietan, hegaldi erregularretan...)

...eta zure aseguruak?



ZURICH

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Montxon kalea 5 behea
20.560 OÑATI
Tel./Faxa: 943 78 30 09
Polts.: 620 77 66 20

■ TEKNOLOGIA BERRIAK

Auto ekologikoak eta segurtasun handiagokoak

NEREA MENOR

Urtero harrিতa uzten gaitu teknologia. Duela bost urte pentsaezina zena gaur egun errealitate bilakatu zaigu. Autoen alorra ez da atzean gelditzen, eta berriro egiten da egunero. Erosotasuna eta ekologismoa balio garrantzitsuak dira egun, eta haiek garatzen dihardute etengabe automobil-etxeek.

Gaur egungo ibilgailuekin alde-ratuta, duela hamar urte erositako autoak erabat zaharkituta gelditu dira. Teknologia oso azkar garatzen ari da eta berrikuntzak ezartzen aurrenekoak izan nahi dute markek. Baina ez dira haiek zehaztasun berriak eskatzen dituzten bakarrak: kontsumitzaileak ere berrikuntza guztiak nahi ditu autoan.

Izan ere, erosotasuna, segurtasuna, praktikotasuna, ekologia, erresistentzia, salneurri egokia, irudi dotorea, potentzia eta beste hainbat gauza eskatzen ditu geroago eta zorrotzagoa den gidariak.

ELEKTRIZITATEZ DABILEN AUTOA

Ingurumenarekiko errespetua kontsumitzaileen kezka nagusienarikoa bihurtu da azkenaldian, baina hori ez da beti horrela izan. Duela hamar urte inguru, General Motors automobil-etxeak elektrizitatez zebilen autoa sortu zuen. Mila auto merkaturatu zituen; baina baten batek ez zuen interesik horrek



Teknologia oso azkar garatzen da, baita autoei dagokionez ere.

GOIENKARIA

**Duela hamar urte
garatu zen
Ameriketako Estatu
Batuetan lehen
ibilgailu elektrikoa**

**Motor hibridoak
dituzten autoak
saltzen hasi dira
Europako hainbat
herrialdetan**

**Istripuak gutxitu
nahi dira autoek
elkarren artean
komunikatzeko
sistemaren bidez**

aurrera egin zezan eta merkatutik desagertu zen ibilgailu elektrikoa. Urteak joan urteak etorri, egoera erabat aldatu da eta orain, mugikortasun eta kutsadura arazoan irtenbide moduan ikusten da elektrizitatea. Oraindik autoak ez dira erabat elektrikoak izango, baina hibridoak erabiltzen hasteko asmoa dago —errekuntza motorra eta elektrizitatea uztartzen dituena—. Ameriketako Estatu Batuetan eta Europan dagoeneko txertatu dituzte horrelako motorrak hainbat autotan.

IBILGAILUEN ARTEKO KOMUNIKAZIOA

Aurrerapen teknologikoen bidez auto-istripuak gutxitu nahi dira eta segurtasuna hobetu. Ohiko uhal, airbag eta sentsoreez gain, AEBetan V2V delakoa garatu dute (Vehicle to Vehicle). Ibilgailuen arteko sistema berri horri esker, gidaria errepidean dauden arriskuez jabe daiteke eta istripua saihestu.

Teknologia horrek 250 metroko erradioan kokatutako ibilgailuen arteko komunikazioa ahalbidetzen du, GPS hartzailea eta wi-fi sistema duen ordenagailu txiki bati esker.

Automobila martxan dagoenean, inguruan jarrita dauden tresna guztien seinalea jasotzen du eta gainerako ibilgailuetara bidaltzen ditu datuak —lainoaren kontrako argiak, ABS, egonkortasun sistema...

2012an ekoizten diren autoek teknologia berri hori izango dutela uste dute adituek.

KANPAZAR



UDALA > HITZARMENA

Entsegu lokala uzteko hitzarmena sinatu dute

Udalak eta musika taldeek Intxaurtxuetan dagoen lokala erabili ahal izateko baldintzak eta arautegia adostu dute hitzarmen baten bidez

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Apirilaren 7an egindako plenen herriko musika taldeei Intxaurtxueta auzoan dagoen entsegu lokala uzteko hitzarmen proposamena onartu zuen udalbatzak aho batez.

Hitzarmen horren arabera, taldeek hainbat baldintza bete beharko dituzte. Lokala musika entseguetarako bakarrik erabiliko dela dio. Hortaz, ezin izango dute musika jarduerarako ez den gauzarik eraman, hala nola,

butaka, telebista edo altzaririk. Gainera, taldeko partaideen 2/3 eskoriatzarrak izan beharko dira. Azken horren harira, baina, zehaztu dute lokala libre egonez gero, taldeko partaideen 1/3 eskoriatzarra izatea onartuko dela. Hori bai, baldintza betetzen duen talderen bat azaltzen bada, aurrekoek lokala utzi beharko dutela dio hitzarmenak.

Horretaz gain, Udalak lokala utzi besterik ez duela egiten eta hortaz, ez duela bere gain hartzen



Entsegu lokala Intxaurtxueta auzoan dago.

MIRIAN BITERI

bestelako erantzukizunik gaineratu dute esandako akordioan.

URTEBETEKO KONTRATUA

Kontratuak urtebete iraungo du: 2010eko martxoaren 20ra arte, hain zuzen. Behin urtebete pasa ondoren, taldeek berriro egin beharko dute eskaera.

Hitzarmenak, gainera, musika entseguetarako erabilera arautegia du. Horretan lokala aste guztian erabili ahal izango dela jakinarazten da, domekatik eguenera bitartean, 21:00ak arte; eta bariku zein zapatuetan, 22:00ak arte. Gainera, ahal den neurrian, lokal bakoitzean bi tal-

dek entseatu ahal izango dutela dio. Garbiketa, bestalde, taldearen esku geratuko da eta korridorean ezin izango da autoa, motorra edo antzeko beste ezer utzi. Udalak zehaztu du musika taldeko partaideek bakarrik erabili ahal izango dutela, eta Udalak beti izango duela giltzen kopia bat.

Presoen argazkiak apurtu dituzte

Eskoriatzarrek salatu dute apirilaren 13ko goizaldean Ertzaintza Eskoriatzan izan zela eta plazan zeuden herriko presoen argazkiak eta koadroak apurtu zituela. Herritar horien arabera, Ertzaintza plazan agertu zen 00:30ean eta han zeuden kartelak kuter batekin apurtu zituzten. Horrelako ekintzekin zer lortu gura duten galdetu gura izan diote haserre herritarrek Ertzaintzari. Ondoko irudian, kartela puskatuta ageri da.



GOIENKARIA

GAZTEAK > OPORRAK

Gazte oporraldirako izena eman daiteke dagoeneko

Apirilaren 29ra arte Eskoriatzako Gazteria zerbitzuan apunta daitezke gazteak

tzako Gazteria sailean apunta daitezke, 09:00etatik 13:30era eta 14:00etatik 16:30era.

HAMAIKA TOKI

Horra hor oporraldiek egingo dituzten hainbat toki: Lekeitio, La Marina (Alacant), Son Bou (Menorca), Agua Dulce eta Cabo de Gata (Almeria).

Maiatzaren 7an eta 8an zozketan parte hartzeko onartutako izenak eta eskaera aurkezteko izendatutako tokiak Interneten kontsultatu ahal izango dira. Zozketa, berriro, maiatzaren 12an egingo dute.

M.B. > ESKORIATZA

Foru Aldundiak Gazte oporraldiak antolatu ditu 1992 eta 1995 urte bitartean jaiotako gazteei zuzenduta. Izenematea martitzenean zabaldu zen eta hilaren 29ra arte luzatuko da. Interesa dutenak www.gipuzkoa.net/oporraldi web gunean edo Eskoria-



Gustura egoteko!

Intxaurtxueta 8 **ESKORIATZA**

943 71 40 63



Ezkerretik hasita, Miguel Mediavilla, Manolo Muñoz, Bartolo Carrillo eta Manolo Mata, herriko plazan.

MIRIAN BITERI

IMMIGRAZIOA > MAHAI-INGURUA

"Eskoriatzarra naiz, bizi guztia eman dut hemen, kanpoan jaio arren"

Eguaztenean, 19:00etan, kultura etxean egingo den mahai-inguruan bost eskoriatzarren bizipen pertsonalak ezagutzeko aukera egongo da

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Kataia eten barik ekimenean immigrazioaren gaia jorrazten ari dira aurten. Horren harira, hainbat hitzaldi eta mahai-inguru gertatu dituzte; tartean, *Kanpotik nator, baina bertakoa naiz*.

Kanpoan jaio baina aspalditik Eskoriatzan bizi diren bost herritaren esperientzia ezagutzeko aukera emango du mahai-inguru horrek. Hitzordua eguaztenerako, apirilak 29, egina dago kultura etxean, 19:00etan. Iñaki Agirianok egingo ditu moderatzaile lanak.

CARRILLO, LEHENA

Mahai-inguruan parte hartuko duten laurekin egon gara. Euren bizipenak kontatuko dituztenen artean Bartolo Carrillo dago. 9 urterekin Legutiora heldu zen. Handik gutxira, aita hil zen eta herrira etorri zen orduan: "Aretxabaletan lan egitera etorri nintzen. Eskoriatzara kanpotik iritsitako lehena izan nintzen".

Manolo Muñoz 17 urte zituela iritsi zen Eskoriatzara, 1969an: "Hemen bizi ziren osaba-izebak Kordobara joan ziren eta etortze-

HAINBAT PARTE-HARTZAILE

Bartolo Carrillo

Adina: 79 urte.

Eskoriatzan noiztik: 1941.

Jatorria: Albox (Almeria).

Miguel Mediavilla

Adina: 72 urte.

Eskoriatzan noiztik: 1969.

Jatorria: Alhama de Granada (Granada).

Manolo Muñoz

Adina: 56 urte.

Eskoriatzan noiztik: 1969.

Jatorria: Peñarroya-Pueblonuevo (Kordoba).

Manolo Mata

Adina: 61 urte.

Eskoriatzan noiztik: 1969.

Jatorria: Espiel (Kordoba).

ko proposatu zidaten. Hemen lana zegoela ikusi eta guztiak etorri ginen". Miguel Mediavilla adin berarekin heldu zen Euskal Herrira, 1954ko San Pedro egunean. Urbarri Ganboako urtegiko presa egiten lagundu zuen. Hasieran aitarekin bakarrik etorri bazen ere, handik hilabete gutxira familia guztia etorri eta Gatzagan bizi izan zen hamabost urtez. 1969an Eskoriatzara jaitsi zen.

Manolo Mata ere urte berean iritsi zen Eskoriatzara, beste hainbat eskoriatzarren moduan, Kordobako Espiel herritik.

LAN BILA

Lan egitera etorri zirela gogorazi dute guztiak. Egun, erretiratuta badaude ere, urte luzez gogor egin behar izan zuten lan; gehienek, inguruko tailerretan.

Jakina denez, Carrillok taberna eta denda zabaldu zituen: "Guztira, 31 urte eman nituen tabernan. Zinema ondoan zegoen, eta atsedendian umeak etortzen ziren gozokiak erostera. Gainera, txokolatetxak eta txurroak ematen nituen. Domeketan, 15 kilo irin gertatzen nituen".

MUSIKA ETA KIROLA

Guztiak ezagunak dira herrian. Tabernaz gain, gazteagoa zenean Carrillok akordeoia jotzen ikasi zuen, Lucio Markaide arrasatearraren eskutik; eta gero, herriko plazan jotzen hasi zen: "Horrela diru apur bat ateratzen nuen. Urtebetez, gainera, Gatzagan jo nuen. Bizikletan joaten nintzen, akordeoi eta guzti".

Muñoz ere eskoriatzar guztiak ezagutzen dute. Kirol elkartean dabil etorri zenetik. Mediavillak, bestalde, pilotan jardun zuen: "45 urte bete arte egon nintzen jokatzeko. Orduan 22ra arte euskaraz zenbatzen hasi nintzen. Bestela, engainatu egiten ninduten". Guztiak esan dute, azken horren harira, urteotan ez dutela euskara ikasteko beharrik izan.

ESKORIATZARRAK

Laurek eskoriatzarrak direla diote. Carrilloren esanetan: "Kanpoan jaio banintzen ere, bizitza osoa hemen daramat eta, beraz, eskoriatzarra naiz. Etorri nintzenez ez zitzaidan batere kostatu egokitzea". Guztiak gaineratu dute Eskoriatzako jendea "oso irekia" dela: "Eskertu nahi diegu guztiak gu horren ondo hartu izana".

Aurreko lerroetan bizipen gutxi batzuk baino ez ditugu jaso. Onena da eguaztenean, 19:00etan, kultura etxera joatea. Haiekin batera, 44 urteko Camila Mejias kubatarra ere egongo da.

BERTSOLARITZA > IKASTAROA

Helduendako bertso ikastaroa antolatu dute

Interesatuak hilaren 30a baino lehen eman behar dute izena kultura etxean

Ikastaroa hamar ordukoa izango da eta eskolak martitzetan egingo dituzte, 19:00etatik 20:30era; maiatzaren 5ean hasi eta ekainaren 16ra izango dira. Horietan, besteak beste, bertsolariaren lehen ezagupenak, neurrien kontzeptua eta doinuak landuko dituzte.

M.B. > ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak, Gipuzkoako Bertsozale Elkartearkin batera, 16 urtetik gorakoendako bertso ikastaroa antolatu du. Apirilaren 30a baino lehen eman behar da izena kultura etxean, eta hamar euro ordaindu.

ASPALDI IKASTARO BARIK

Azken zazpi ikasturteotan ikastetxeetan bertsolariak landu dute umeek, Gipuzkoako Bertsozale Elkartearren laguntzaz. Baina aspaldian ez da egin helduendako bertso ikastarorik.

> HAUTESKUNDEAK

Europako Parlamenturako hauteskundeetarako zerrendak ikusgai daude egunotan udal bulegoetan

Ekainaren 7an (domeka) egingo diren Europako Parlamenturako hauteskunde deialdirako 482/2009 Errege Dekretua argitaratu da. Joan den astelehenean hilaren 27ra bitartean, hauteskunde-zerrenda jendaurrean jarrita egongo da, interesatuak aztertu eta, egoki ikusiz gero, erreklamazioak aurkez ditzaten.

Zerrendak udal bulegoetan daude ikusgai, ondorengo ordutegian: astelehenean egubakoitzera, 10:00etatik 13:30etara. Eguenetan, gainera, 15:00etatik 17:00etara ere ikusi ahalko dira.

> 'KATAIA ETEN BARIK' EKIMENA

Gaur arratsaldean, liburu azoka, eta gauean, helduendako ipuin kontaketa egongo dira

Kataia eten barik egitarauaren barruan, hainbat ekimen daude gaur herrian. Urtero bezala, liburu azoka jarriko dute plazan, 18:00etan. Erabiltzen ez ditugun liburuak liburutegira eramateagatik txarrel bat emango digute, eta azokara txartela eramane beharko dugu, han dauden liburuengatik trukatzeko. Bitartean, Arizmendi eta Beheko Errotako eskolako abesbatzek plaza girotuko dute. 22:30ean, Koldo Amestoy ipuin kontalaria egongo da unibertsitatean.



GOIENKARIA

Pazko astean Oriora irteera

Apirilaren 15etik 17ra bitartean herriko gaztelekuko gazteak Orion izan ziren, Txurruka aterpetxean. Gustura bueltatu dira irteeratik. Denetarik egiteko astia izan zuten; tartean, Donostian eguna pasa zuten eta Zarautzen surf ikastaroa jaso zuten. Batzuk olatu artean beste batzuk baino hobeto ibili zirela eta olaturen bat edo beste hartu zutela jakinarazi dute.

Villar

Ile apaindegia

Olazar auzoa 9
Tel.: 943 71 50 42
ESKORIATZA

bere ustez



Fernando Lete

50 urte kooperatiben bidetik lanean

1959 an Goizper jaiotzen zenean, Arrasateko esperientzia kooperatiboak urte gutxi zeramatzen bizirik.

Ulgor, Caja Laboral eta beste kooperatiba batzuk hasiak ziren Arimendiarraren amets argitsu bidea ematen.

Gaurko bizi moldeak eta ordukoak ez dira konparagarriak, ezta gizarte bera ere. Frankismo garaia ziren, diktadura gogorra eta aurrez gaztetasuna, konpromiso militantea eta aldaketarako kementa eta nahia.

"Zailtasun egoeran lana tresna bezala erabiliz proiektu berriari ekin zion gazte talde batek"

Zailtasunez beteriko egoera hartan Antzuolako gazte talde batek, Goizper Kooperatiba berriari jaiotza eta bataioa eman zizkioten; lana tresna bezala erabiliz, proiektu berria aurrera eramateko asmoarekin.

50 urte geroago esan dezakegu egindako ahaleginak fruituak eman dituela eta gaurko egunez ia 200 lagun Goizperreko esperientzia kooperatiboko kide gara.

Bukatzeke, nire miresmena eta eskertza adierazi nahi dizkiet sortzaile aitzindari haiei, beraiekin esperientzia berria partekatzeko aukera eman zigutelako.

Bide batez gogorapen berezi bat ibilbidean gurekin izan eta bidean gelditu diren guztientzat.

ERRETIRATUAK > URTEKO BATZARRA

Bost kide berri daude erretiratuen elkarteko batzordean

Zuzendaritzarako jendea aurkitzeko arazoak izan dituzte Landatxopekoek

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA
Erretiratuen elkarteak urteko batzarra egin zuen zapatuan Landatxopen. Urteko kontuen gainbegiratu egin ostean, batzarra aprobetxatu zuten erretiratuen elkarteko zuzendaritzako kide berriak aurkezteko. Miguel Montorik, Antonio Juradok, Josefa Aiastuik, Lurdes Arregik eta Karmele San Sebastianek batzordea

utzi dute eta, kide berriak aurkitzeko lan handia izan bada ere, honako hauek hartu dute euren tokia: Santi Aristik, Francisco Alzasek, Anparito Arregik, Maria Luisa Jauregik eta Mari Agudok. Ohiturari eutsiz zuzendaritza taldea utzi dutenek eta sartu berri direnek afaria egingo dute laster.

IRTEERA
Zapatuko bileran, aurtengorako asmoak ere jakinarazi zituzten. San Isidro jaietan erretiratuek txorimalo lehiaketan parte hartzeko asmoa dute, baita laster egun erdiko irteeraren bat egitekoa ere, nora ez dakiten arren.



Pilar Etxaniz eta Pedro Mertxan, Dogoko Youga Piri herrira iristen. GOIENKARIA

BIDAIAK > ANTZUOLARRAK MUNDUAN ZEHAR

Maliko eta Burkina Fasoko argazkiak Olanaren ikusgai

I.A. > ANTZUOLA
Pedro Mertxan *Papi*-rekin Maliko eta Burkina Fasoko egindako bidaiaren berri emango du Pilar Etxanizek apirilaren 28an, martitzenean, 19:00etan, Olanaren, "Afrika beltzaren zati bat ezagutu genuen. Hazkundera, analfabetismoa, pobrezia, ur falta edo

osasun arazoak batetik eta euren balioak bestetik: denboraren erlaxotasuna, beharrak eragindako sormena, baliabideen erabilera zentzuduna...", esan digu Pilar Etxanizek. Hango jendearekin harremanen eta han bizi izandakoen berri emango du argazkien bitartez martitzeneko saioan.



EDU MENDIBIL

Antiguako geltokia, konponduta

Brigadako langileek Antigua auzoko autobus geltokian egokitzapen lanak egin dituzte asteon. Geltokia egoera eskasean zegoenez, teilatua eta itoginak konpondu dituzte eta margotu egin dute. Hortaz, gertu dago autobusaren zain egon behar dutenak erosoago egoteko.

IKUS-ENTZUNEZKOAK > TELEBISTA

Altzetako antena egokitu dute TDTz ETB ikusteko

I.A. > ANTZUOLA
Altzetako errepikagailuan antena berria ipini du Itelazpi etxeak, ETB lurreko telebista digital (TDT) bidez ikusteko.

Etxebizitza bakarrek ez dute moldaketarik egin behar, gehienek banda zabaleko antena dutenez kate guztiak hartzen dituztelako. Etxebizitza bloke-

tan bizi direnek, berriz, antenistekin harremanetan jarri beharko dute anplifikadore txiki bat ipintzeko 64. katean, TDTa ikusi ahal izateko. Hori ipintzeak 600 euroko kostua du bloke bakoitzeko. Telebista aparailuan ez da ezer egin behar TDTrako prestaturia badago edo deskodegailua baldin badu.

Ongi etorri

J A T E T X E A

- Eguneko menua
- Karta
- Menu bereziak
- Plater konbinatuak
- Kintadak

Berriz zuekin!

Bustinzuri 5 ANTZUOLA Tel.: 943 76 63 49

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA



Jose Gomez Abad

Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

INDUSTRI MANTENIMENDUA

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

LITERATURA > LIBURUAREN EGUNA

Ipuin kontaketa saioak antolatu dituzte zaturako udaletxean eta Espaloian

Eskolako umeei liburutegia zuzen erabiltzeko arauak erakutsi dizkiete

Udaletxean 12:00etan eta 17:00etan izango dira eta Espaloian 18:00etan

IRATI AGIRREAZALDEGI > ELGETA

Liburuaren Egunaren harira hainbat ekintza antolatu dituzte Udal Hezkuntza batzordeak eta Kultura eta Euskara batzordeak.

Atzo, eguena, eskola umeei bisita gidatuak egin zituzten liburutegian goizean barrena. Bisita haietan umeei esan zieten liburutegia leku publikoa izanik edozein sar daitekeela lagunekin edo senideekin eta hango baliabideekin goza dezaketela. Baina, era berean, aprobeztatu zuten liburutegiaren erabilera arauak gogorarazteko: korrikarik ez egitea; ez oihukatzea; liburuak apurtu barik, kontuz, erabiltzea; janariarik edo edaririk ez sartzea; gainerako pertsonak errespetatzea; eta 6 urtetik beherakoak arduradunarekin joatea.

Etxera zein material eta nola eraman dezaketen ere jakinarazi zieten umeei liburutegian. Gehienez sei dokumentu eraman



Eskolako umeei taldean banatuta bisitatu zuten eguen goizean liburutegia.

IRATI AGIRREAZALDEGI

daitezke: liburuak, ipuinak, komikiak, CDak edo DVDak. Liburuak bi astez eduki daitezke etxean eta ikus-entzunezkoak astebetetz. Epe horretan bukatzerik izan ezean, bi aldiz luza daiteke epea liburutegian.

Goizean liburutegian eman zizkieten azalpenak eta han ikusi zituzten liburuak eta ipuinak txikienei; arratsaldean, berriz, herriko plazan. Liburuak kalera atera zituzten eta herritar guztiendako ikusgai ipini.

Zaturako, berriz, ipuin kontaketa saioak gertatu dituzte, besteak beste. 11:00etan Herriko Plazan liburuak ipiniko dituzte edozeinek ikusteko moduan. 12:00etan eta 17:00etan udaletxeko ipuin txokoa Marije eta Esti ipuin kontalariak jardungo dute, hurrenez hurren. Egun horretarako udalbatzarren aretoa modu berezian apainduko dute.

Umeendako dira saio horiek eta gazteendako eta helduendako da Kontu Kantoi taldeak

18:00etan Espaloian egingo duena. Udalak, herriko umeak eta nagusiak ez ezik, ibarrekoak ere gonbidatu nahi ditu.

IGOGAILUA BERRIZ MARTXAN

Bestalde, kultura etxean igogailu berria ipini dute martxan, 20 urte inguru geldirik egon ondoren. Hori dela-eta umeei eta herritarrei erabilera oharra zabaldu nahi izan diete. Igogailua ezin duke eta 12 urtetik gorakoek bakarrik erabili ahal izango dute.

MENDI LASTERKETAK

Oihana Kortazar onena izan zen Beran

Lasterketako azkarrena izateaz gain, errekorra hautsi zuen

X.U. > ELGETA

Oihana Kortazarrek minutu eta erdian ondu zuen (02:05:35) Alizia Olazabalek Berako maratoni erdian zuen errekorra (02:07:05). Gizonezkoan ere Didier Zago galiarrak Ionut Zinkak zuen errekorra hautsi zuen (01:40:19); hala, domekako proba luzaroan gogoratuko dute, errekorrekin batera maila oso handiko parte-hartzea egon zelako.

Kortazarrek lehia polita izan zuen Olazabalekin: "Ez nuen ibilbidea ezagutzen, eta nire asmoa zen Olazabalek aurrea hartuz gero berdindin jarraitzea. Hala, gorantz abantaila hartu nuen eta jaitzieran saiatu nintzen tarte hori ez galtzen, Olazabal hobeto moldatzen delako aldapa behera".

Oraingo asteburura begira, Kortazarrek izena eman du Aloñako Igoerarako: "Baina ez dut uste joango naizenik, Zegama-Aizkorriko maratonia eta Euskadiko Kopa ditut buruan, eta seguruenik entrenatzeko erabiliko dut asteburua".

FUTBOLA > ATHLETICZALEEN TALDEA

Maiatzaren 4an egingo dute Kopako finalerako sarreraren zozketa Bolatoki tabernan

I.A. > ELGETA

Intxortako Lehoiak Athleticzaleen taldeak Athletic eta Bartzelona taldeek Valentzian jokatu duten Errege Kopako finalerako

bi sarrera ditu eta bazkideen artean zozketatzea erabaki dute. Zozketa maiatzaren 4an, astelehenean, egingo dute, 20:00etan, Bolatoki tabernan, eta zozketan parte hartu ahal izateko bazkideek 2009ko kuota -50 euro ordainduta izan beharko dute egun hori baino lehen.

ZOKKETAKO UNEAN BERTAN

Zozketa egiten den unean irabazleak Bolatokian egon beharko du sarrerak eskuratu nahi baditu. Sarrerak lortu arren partidura joaterik ez badu, hark erabakiko du taldeko beste kide bati eman edo zozketa berriz egitea, baina beti taldeko bazkide baten esku geratuko dira sarrerak.

Bestalde, azken batzarrean erabaki zuten beste bilera bat egitea San Mamesko abonamendua mantendu ala ez pentsatzeko.

oharrak

IKASTAROA

> Igeriketa

Erretiratuendako igeriketa ikastaroa antolatu du Udalak. 15 eguneko ikastaroa Bergaran izango da maiatzaren 13an hasita, 15 egunez, 14:45etik 15:45era bitartean. Ikastaroa doanekoa da eta erretiratuak eurek arduratu beharko dute igerilekura joan-etorriaz. Ikastaroan parte hartu nahi dutenek Pedro Mari Uberari eman behar diote izena maiatzaren 5a baino lehen.

IKUSKIZUNAK

> Antzerkia eta dantza

Aste bukaeran bi ikuskizun izango dira Espaloian: gaur, barikua, 22:30ean, *Good sex, good day* umorezko antzezlan izango da ikusgai; domekan, berriz, 18:00etan, *Despertar los sentidos* dantza saioa eskainiko dute. Ezintasunen bat duten lagunen bizikaltatea hobetzea du helburu Sarah Ramirezen dantza emanaldi horrek.

frontenis txapelketa

Zapatuan, ligako azken partiduak

PARTIDUAK (Zapatuan, 18:30ean hasita)

Asier Morales-Asier Osoro/Oskar Sarasua-Roberto Mora
Mari Carmen Salas-Izaskun Ojanguren/Miren Argi Zeziaga-Idoia Lasa
Amaia Iribar-Alicia Gartzia/Mireia Berriozabal-Rebeka Upera
Nagore Morales-Janire Lazkano/Idoia Elkoro-Garbiñe Sarasketa
Adrian Osoro-Sergio Bouzas/Josu Arantzabal-Fernando Zenitagoia
Odei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga/Ander Gorosabel-Ibon Untzetabarrenetxea

EMAITZAK

Eñaut Arantzeta-Aritz Gallastegi/J. Monterroso-A. Pierrugues 25-0
Josu Urizar-Jabi Gamarra/Mikel Arkarazo-Josu Olasolo 0-25
Adrian Gorostiza-Sergio Bouzas/Oskar Sarasua-Roberto Mora 25-21
Adrian Gorostiza-Sergio Bouzas/O. Zenitagoia-Mikel Beretxinaga 9-25
N. Ojanguren-Idoia Serna/I. Ojanguren-Mari Carmen Salas 25-7

SAILKAPENA

Gizonezkoen txapelketa

	J	I	G	T.A.	T.K
1. Eñaut Arantzeta-Aritz Gallastegi	9	9	0	225	82
2. Odei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga	8	7	1	195	117
3. Mikel Arkarazo-Josu Olasolo	9	5	4	190	175
4. Asier Morales-Asier Osoro	8	5	3	174	163
5. Adrian Osoro-Sergio Bouzas	8	5	3	162	163
6. Ander Gorosabel-Ibon Untzetabarrenetxea	8	4	4	169	157
7. Josu Arantzabal-Fernando Zenitagoia	8	4	4	166	151
8. Oskar Sarasua-Roberto Mora	8	2	6	147	179
9. Jose Monterroso-Anton Pierrugues	9	1	8	121	215
10. Josu Urizar-Jabi Gamarra	9	0	9	81	225

Aperribay, s.l.

Marmoldegi
eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

ARAMAIO > AZPIEGITURAK

Argindarraren merkatua liberalizatu egingo dute, eta aldaketak egongo dira

Hilaren 30ean bilera irekia egingo dute aldaketa guztien berri emateko, 19:00etan, kultura etxean

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO
Espainiako Gobernuak uztailetik aurrera argindarraren merkatua liberalizatu egingo du eta horrek zenbait aldaketa ekarriko ditu. Esaterako, argindar banatzaileek ezingo dute argin-

darrrik saldu, enpresa komertzialek soilik egin ahaliko dute hori. Kontua da Aramaioko Argindar Banatzaileak ezingo duela argindarrrik saldu.

Aramaioko argindar enpresa, baina, herrian bertan argindar banatzaileak dituzten beste herri batzuekin batera kooperatiba baten barruan dago (CIDE). Herri guztiek arazo berbera izango dute aurrerantzean. Hori horrela, erabaki dute enpresa berri bat sortzea, CIDE Servicios Comerciales izenekoa. Modu horretan ez dute arazorik izango argindarra

saltzeko. Prezioak lehiakorrek izango direla azaldu dute; izan ere, argindar enpresa handiei kilowatt askoko kontratuak interesatzen zaizkie eta zaila izaten da erabiltzaile txikiendako prezio merkeak lortzea.

Aramaioko Argindar Banatzaile enpresako abonatuak ez dute ezer egin beharko, enpresak sortu berri duten CIDE enpresara pasatuko ditu eta zuzenean bezeroak. Dena dela, prezioekin edo baldintzekin ados ez badaude, baja emateko aukera izango dute erabiltzaileek.



Sastiña ermita, barrutik.

JONE INUNZIAGA

ARAMAIO > HIRIGINTZA

Aste batzuk barru hasiko dituzte Sastiñako lanak

Arraga auzoko azpiegiturak hobetzeko lanak ere laster hasiko dira; proiektua esleitu dute

A.B. > ARAMAIO
Espainiako Tokian Tokiko Inbertsioen Estatu Fondotik jasotako dirulaguntzarekin bi proiektu garatuko ditu Aramaioko Udalak: alde batetik, Sastiña ermita eraberritu egingo du; eta bestetik, Arraga auzoan azpiegiturak hobetzeko lanak egingo ditu.

Espainiako Gobernuak onartu egin ditu bi proiektuak eta Udalak berehala ipiniko ditu martxan; izan ere, esleitu dituzte dagoeneko bi proiektuok. Arragako auzoari dago-kionez, edateko uraren sarea

eta hondakin-uren saneamendua Ibarako sare orokorrera lotuko dituzte. Lanen aurrekontua 58.530 euro da eta Excavaciones Arrasate SL enpresak egingo ditu.

Sastiña eraberritzeko lanen aurrekontua, bestetik, 194.864 euro da eta Goitu Eraikuntzak SL enpresak egingo ditu. Teila-tua, hormak eta kalefakzioa konpondu egingo dituzte. Gainera, ermitaren atzealdean dagoen gelatxo egokitu egingo dute. Asmoa da, etorkizunean, egurra erreta energia sortuko duen gal-dara bat ipintzea bertan.

ARAMAIO > EPAITEGIAK

Zenbait hedabidek diote Fiskaltzak alkatea zortzi urtez inhabilitatzea eskatuko duela

A.B. > ARAMAIO
Noticias de Álava egunkariak ataratako albiste baten arabera, Fiskaltzak Asier Agirreren inhabilitazioa edo ezgaitzea eskatuko du Abiadura Handiko Trenaren inguruan 2007an egindako galdeketa-gatik. Orain dela aste batzuk alkateak jakin zuen Fiskaltzak

ipinitako salaketaren harira epaileak bi delitu egotzen zizkiola: aginte judizialari desobedientzia eta prebarikazioa. Hori horrela, bai fiskalak eta bai defentsak hamar egun zituzten epaileak epaiketa egin edo ez erabakitze-ko argudioak aurkezteko. Bada, aipatutako egunkariaren arabe-

ra, Fiskaltzak zortzi urteko inhabilitazioa eskatuko du Agirrendako. Alkateak azaldu du filtrazio bat izan dela, berak ez dela jakinarazpenik. Gaineratu du hori guztia ezker abertzaleko hautetsien kontrako "kanpaina hutsa" dela. Epaiketa egingo den zalantzarik ez dauka.

LEINTZ GATZAGA > OSOKO BILKURA

Egurraren tasa aldatzea erabaki du udalbatzak

Zuhaitzak basoan jausita egonez gero herritarrek tasarik ez ordaindu behar izatea onartu zuten

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA
Apirilaren 6an egindako ohiko osoko bilkuran Eugenio Otsoa gatz museoa, turismo bulegoa eta Labidea denda kudeatzeko ardura aurkeztutako eskatzaile bakarrari ematea onartu zuten udalbatzak. Behin-behineko onarpena izan zen, eta orain, 15 egun ditu eskatutako dokumen-

tu guztiak aurkezteko. Gainera, udalbatzako kideek ahalmena eman zioten alkateari behin betiko onarpena egiteko datozen egunotan. Hala, inolako ezustekorik ez bada, behintzat, lehiaketara aurkeztutako bakarrari emango dio alkateak datozen bi urteotan gatz museoa, turismo bulegoa eta denda kudeatzeko ardura.



Gatzagako basoa, Iruerreketara bidean.

GOIENKARIA

ENPLEGU TAILERRA

Bestalde, Debagoieneko Mankomunitateak garatuko duen Enplegu Tailerraren proiektua onartu zuten udalbatzak. 2009-2010 ikasturterako egitasmoa da eta langabezia dauden herritarrek formazioa hartzeko aukera izango dute, lagunduta. Herri bakoitzean zenbat lagunek parte har-

dezaketzen zehaztu du Mankomunitateak, eta, Gatzagaren kasuan, herritar bati lagunduko diote hiru ikastaro egiten. Zerbitzu horregatik 2.200 euro ordaindu beharko ditu Udalak. Gatzagarrik aurkeztzen ez bada Enplegu Tailerrera, beste herriren bateko langabeek izango dute aukera haren ordeztzeko.

EGURRAREN TASA ALDAKETA

Iaz urrian erabaki zuten udalbatzak herriko lursail bat erostea, eta konpromiso hori hartu zuen jabearekin orduan. 2009ko aurrekontuan sartuta dute gastu hori, eta udalbatzako kideek baimena eman zioten alkateari erosketa sinatzeko.

Bestalde, Udalak kobratzen dituen tasa bi aldatzea erabaki zuten: batetik, zaborraren tasak %20,1eko igoera izango du. Mankomunitateak proposatutako igoera da eta uztailetik aurrera hasiko dira aplikatzen tasa berria.

Bestetik, basoko egurraren aprobetxamenduagatik ordaindu beharreko tasa aldatzea erabaki zuten. Pagoaren eta beste zuhaitz batzuen egurra etxerako erabiltzeagatik 15,50 euro ordaindu behar da. Baina zuhaitzak jausita baldin badaude basoan tasarik ez kobratzea onartu zuten. Herritarrek gero eta egur gutxiago ekartzen dute basotik –beste erregai mota batzuk erabiltzen dituzte–, eta hori ere kontuan izan zuten udalbatzak. Hori bai, jausita topatuz gero zuhaitzen bat, basozainari jakinarazi beharko diote interesatuek.



Andoni Nafarrate baloia gidatzen, Elgoibarko jokalaria baten presiopean.

J.A.

FUTBOLA > ERREGIONALA ETA PREFERENTEA

Bergara preferentekoa izan daiteke bihar

Manu Diazen mutilek ikusleen bultzada beharko dute bihar (Agorrosin, 16:30) Anaitasunari irabazi eta preferentera igoera lortzeko

X.U. > BERGARA
Denboraldi ederra egin eta gero, nahiz eta liga amaitzeko lau jardunaldi geratu Bergarak preferentera igotzeko nahikoa du biharko partidua irabazita. Mahoneroek Anaitasuna izango dute bisitari, atzeko postuetan lehian dagoen taldea. Hala, Bergarako entrenatzaileak *Asteleheneko Goienkaria*-ri adierazitakoaren arabera, biharko partidurako zaleen bultzada izugarri eskertuko dute: "Zapatuan zaleekin ospatu nahi dugu igoera, ezin dugu hutsik egin". Gainera, GOITBko kamerak Agorrosinen

izango dira, astlehenean *Har-mailatik* saioan laburpen zabala eskaintzeko asmoz.

PREFERENTEA, DENAK KANPOAN
Lider dagoen UDAk Anaitasunaren zelaia egingo du domekan bidaia (16:30), eta aretxabaletarrek gertutik jarraituko dute atzetik datozen Tolosak eta Hernanik jokatuko duten partidua.

Mondrak ere garrantzi handiko partidua jokatuko du bihar Zumaikoren zelaian (17:15), eta Aloñak (bihar, 17:30) liga aurrean amaitzeko Deban jokoan egongo diren puntuak behar ditu.

asteburuko hitzorduak

FUTBOLA

Bigarren maila

Eibar-Zaragoza
Zapatua. 18:30. Ipurua.
Huesca-Reala
Domeka. 18:00. Alcoraz.

Gazte mailako Euskal Liga

Aretxabaleta-Sestao River
Zapatua. 17:30. Ibarra.
Bergara-Retuerto
Domeka. 17:00. Agorrosin.

Preferente maila

Amaiak Bat-Aloña Mendi
Zapatua. 17:30. Deba.
Anaitasuna-Aretxabaleta
Domeka. 16:30. Txerloia.
Zumaiko-Mondra
Zapatua. 17:15. Aita Mari.

Lehen erregionala

Aretxabaleta-BTLS
Domeka. 16:30. Ibarra.
Mondra-Eibartarrak
Zapatua. 16:00. Mojtategi.

Mutriku-Antzuola
Domeka. 17:00. Mutriku.

Bergara-Anaitasuna
Zapatua. 17:15. Agorrosin.

Bigarren erregion. Igoera

Usurbil-Bergara
Zapatua. 16:00. Harane.

Ohorezko mailako

gazteak, Kopa eta jaitsiera
Aloña Mendi-Ordizia
Domeka. 17:30. Azkoagain.

Lehen mailako gazteak,

igoera fasea
Mondra-Trintxerpe
Zapatua. 18:00. Mojtategi.

Gazteak, kopa

Bergara-Eibartarrak
Zapatua. 11:45. Ipintza.
Ikasberri-Aretxab. Arizmendi
Zapatua. 15:30. Garmendipe.

Ohorezko mailako

kadeteak, igoera fasea
Bergara-Real Union
Domeka. 12:00. Ipintza.
Sanse-Aretxabaleta Arizme.
Zapatua. 12:00. Felix Garin.

Ohorezko mailako

kadeteak, kopa eta jaitsi.
Aloña Mendi-Touring
Domeka. 11:30. Azkoagain.

Arrasate-Allerru
Zapatua. 12:30. Mojtategi.

Lehenengo kadeteak, igoera
Aretxabaleta B-IIintxa
Zapatua. 15:30. Ibarra.

Lehen. kadeteak, kopa
Lagun Onak-Aloña Mendi B
Domeka. 12:00. Garmendipe.
Mutriku-Bergara
Domeka. 11:00. Mutriku.

Infantilen ohorezko maila, kopa eta jaitsiera
Anaitasuna-Bergara
Domeka. 11:00. Txerloia.
Behobia-Aretxabaleta
Zapatua. 12:30. Irun.

Infantil maila, igoera
Intxaurren-Aloña Mendi
Domeka. 12:00. Matigoxot.

Infantil mailako kopa
Mundarro-Arrasate
Zapatua. 11:00. Astiagarrag.

Emakumezkoak, igoera fasea

Arizmendi-Mutriku
Zapatua. 15:30. Almen.

Arizmendi-B-Mutriku
Zapatua. 15:30. Almen.

Mondra-Hernani
Domeka. 12:00. Mojtategi.

Emakumezkoen kopa
Aloña Mendi-Ordizia
Domeka. 15:30. Azkoagain.

Emakumezko kadeteak F11, txapeldunen fasea
Zumaiko-Bergara
Zapatua. 13:00. Aita Mari.

Emakumezko kadet. F11. Kopa

Arizmendi-Anaitasuna
Zapatua. 11:00. Almen.
Lagun Onak-Mondra
Zapatua. 11:15. Garmendipe.

SASKIBALOI

Lehenengo maila. Jaitsiera
MU-Getxo
Zapatua. 18:00. Iturripe.

Gipuzkoako seniorrak
MU-La Salle
Zapatua. 16:00. Musakola.

Kostkas-Aloña Mendi
Domeka. 12:00. Donostia.
Soraluce BKE-Lehioak Zast
Zapatua. 19:00. Labegaraie.
Aloña Mendi B-Irun
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

Gipuzkoako ligako senior maila, emakumezkoak
Zarautz-Eskoriatza
Zapatua. 18:00. Zarautz.

Gazte maila, gizonetakoak
MU-Easo
Zapatua. 10:00. Musakola.
Aloña Mendi-Take Tolosa
Zapatua. 11:45. Zubikoa.

Gazte maila, emakumeak.
Bera Bera-Eskoriatza
Zapatua. 18:00. Donostia.
Salletarrak-Soraluce BKE
Zapatua. 11:15. Astiagarraga.

ESKUBALOI

Gipuzkoako senior emaku.
Asador Basust.-Verkol Aloña
Dom. Zehaztu gabe. Zumaia.

Gipuzkoako seniorrak, Kopa
Eibarko Haritza-Arrasate
Zapatua. 17:00. Eibar.
Aloña Mendi-Soraluce BKE
Zapatua. 17:45. Zubikoa.

Gazteak gizonetako kopa
Pulpo-Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. Zumaia.

Gazteak emakume, kopa
La Salle-Citroen Chap.
Domeka. 09:45. Legazpi.
Citroen Chap.-Leizaran
Zapatua. 16:00. Musakola.

Kadeteak gizonetako kopa
Bergara KE-Karibe
Domeka. 12:15. Labegaraie.

Kadeteak emakume. Kopa
Amaña-Bergara
Zapatua. 16:00. Eibar.
Elgoibar-Verkol Aloña
Domeka. 12:00. Elgoibar.

MENDI LASTERKETA

Aloñako 5. Igoera
Domeka. 10:30. Oñatikot
plazan. Zumaia.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

Ibargarai 1 20570 BERGARA. • Tel.: 943 76 24 91 / 943 76 38 40 • Faxe: 943 76 38 41 • e-posta: imaltuna@sarenet.es

ESKAITZA PARTZIALA

GOI MAILA

- FABRIKAZIO MEKANIKOA.** Mekanizazio bidezko produkzioa
 - o Mekanizazio, konformazio eta muntaia prozesuen definizioa.
 - o Mekanizazio, konformazio eta muntaia prozesuen exekuzioa.
- FABRIKAZIO MEKANIKOA.** Produktu mekanikoen garapena.
 - o Produktu mekanikoen garapena.
 - o Fabrikazio mekanikoko teknikak.
 - o Irudikapen grafiko fabrikazio mekanikoan.
- ELEKTRIZITATEA.** Erregulazio sistemak eta kontrola.
 - o Erregulazio eta neurri sistemak.
 - o Industri informatika.
 - o Potentzia elektroniko sistemak.
- ADMINISTRARITZA.** Administrazio eta finantzak.
 - o Hornikuntzaren kudeaketa.
 - o Finantza kudeaketa.
 - o Giza baliaideak.

ERDI MAILA

- ELEKTRIZITATEA.** Ekipo eta instalazio elektronikoak.
 - o Elektroteknika.
 - o Barneko instalazio elektrikoak.
- FABRIKAZIO MEKANIKOA.** Mekanizazioa.
 - o Mekanizazio prozedurak.
 - o Txirbil-harroketa bidezko fabrikazioa.

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOKO SARRERA PROBAREN PRESTAKETA

- ATAL KOMUNA**
 - o Hizkuntza – Euskara.
 - o Matematika.

INSKRIPZIOA

Apirilaren 28 arte

Lana eta ikasi batera egiteko aukera



Beñat Lizarralde, Orthezeko kanalean, asteburuan.

UGALDE

PIRAGUISMOA > ESPAINIAKO KOPA

Beti Bustikoak finalerako sailkatu ziren Orthezen

Joan den asteburuan lehiatu ziren Espainiako Kopako hirugarren saioan, Frantzian

X.U. > BERGARA

Beti Busti piraguismo taldekoak Espainiako Kopako hirugarren saioan izan ziren joan den asteburuan, Orthezen. Eta, Bergarako mutilek lan ona egin zuten, bost lagunetatik lau finalerako sailkatu ziren-eta.

Gonbidatuen mailan Beñat Lizarralde zazpigarren izan zen; kadetetan, Patxi Ugalde laugarren, Iñaki Usabiaga bosgarren eta Aritz Gimbert hamaseiga-

rren. Eta, gazte mailan Josu Mentxaka seigarren sailkatu zen. Espainako Kopako laugarren jardunaldia Katalunian jokatu dute, maiatzean.

Asteburuan, berriz, Gipuzkoako infantil mailako selekzioak teknifikazio saioa egingo du Labegaraietan. Bestalde, skimotaje -piraguarekin urperatzen ikastea- ikastaroa ere antolatu dute apirilera. Argibide gehiago: 943 77 70 95.

MENDIKO LASTERKETA > ALOÑAKO 5. IGOERA

Domekan Aloñako Igoeran egingo duen eguraldiaren zain

Eguraldi iragarpenek ez dute baikor izateko arrazoi handirik ematen, baina iaz ere iragarpenek ez zuten laguntzen, eta proban ez zuen euririk bota

XABIER URTZELAI > OÑATI

Domekan egingo dute Aloñako 5. Igoera, eta dagoeneko antolatzaileak zerura begira egongo dira, eguraldi iragarpenek asmatuko ote duten edo ez galdezka. Antolatzaileek bihar ibilbidea markatu beharko dute, eta lan horretan iaz harrapatu zuten euri jasa berriro ere jasateko gertu egongo dira, baldin eta domekan euririk egiten ez badu.

MARKAK BALDINTZATUKO DITU

Egia da eguraldi txarrak lasterketa baldintzatuko duela, bai malda gora, eta noski, baita malda bera ere. Korrikalariak Aloñako bidexkak eta goiko zelaia lokaztuta aurkituko dituzte, eta oinez horrenbeste ez, baina korrika asko igartzen da hori. Gaine-



Julen Garitano antzuolarra, 2007ko edizioan hirugarren (1:19:16).

X.U.

ra, jaitsiera berez gogorra bada ere -zortzi kilometro baino gutxiago 1.000 metroko desnibela jaisteko-, bidea lokaztuta dagoela atletek kontu handiz ibili beharko dute. Eta bai, seguru eguraldiak ikusle kopurua ere baldintzatuko duela; hala ere,

euria bada ere jende asko batuko da ibilbidean, korrikalariak bertatik bertara ikusteko.

270 LAGUNEK EMAN DUTE IZENA

Domekako lasterketara begira 270 atletek eman dute izena, eta horietatik ibarreko 54 daude.

ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.

Eska ezazu sukalde eta horma-armairuen aurrekontua konpromisorik gabe!

**1000 b/min
6 Kg**

A+ Saikapen energetikoa

GARBIGAILUA ALF-1106

310 €
-105 € (Renove plana)
205 €

aspes

**1200 b/min
7 Kg**

A Saikapen energetikoa

GARBIGAILUA ALF-1127

365 €
-85 € (Renove plana)
280 €

aspes

**1200 b/min
8 Kg**

A+ Saikapen energetikoa

GARBIGAILUA F-2812

475 €
-105 € (Renove plana)
370 €

FAGOR

Sukaldea nahi duzu?

Prezioa zuk jar ezazu!


Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13

Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK

2. unitatea
%70 eko
deskontuarekin



Apirilak 23-tik maiatzak 13-ra



Carrefour

GORBEIA

www.carrefour.es

Carrefour
garagardo berezia
Lata 33 zl

lata 1 erosita
0,33€
Litroa 1€

2. unitatea %70 eko deskontuarekin

0,10€
Litroa 0,30€



Barietate bakarrek olikoak
COOSUR
litro 1

Unitate 1 erosita
3,49€

2. unitatea %70 eko deskontuarekin

1,05€

KONBINA ITZAZU
NAHI DUZUN ERANI!

Atun argia oliba-oliotan
Carrefour
3 unitateko pack-a 52 g.

pack 1 erosita
1,96€
Kg-a 12,56€

2. unitatea %70 eko deskontuarekin

0,59€
Kg-a 3,78€



LOZOYA
Serrano urdaiazpikoa
Urrezko etiketa
Pieza 6,5 Kg gutxi gorabeherakoa

Pieza 1 erosita
60€
Kg-a 9,23€ gutxi gorabeherakoa

2. unitatea %70 eko deskontuarekin

18€
Kg-a 2,77€ gutxi gorabeherakoa

Dorada razioa
Pieza

Pieza 1 erosita
3€

2. unitatea %70 eko deskontuarekin

0,90€



ARIEL sensaciones
Detergente likidoa
33 garbiketa
2 unitateko pack-a

Pack 1 erosita
19,90€
Garbiketa 0,30€

2. unitatea %70 eko deskontuarekin

5,97€
Garbiketa 0,09€



Orain
Arrasatetik
15 minututan



Prezio hauek Carrefour GORBEIA-rako balio dute

G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> KANTARI

Kantariko II. ekitaldian 212 talde; lehen saioa zapatuan Oñatin > 38



> MUSIKA

Bergarako Musika moderno lehiaketan 16 talde lehian > 39



> MUSIKA

Lagartija Nick Jamen eta EskoriatzaRock zapatuan > 39

Debagoieneko Trikiti Egunaren V. ekitaldia bihar, Antzuolan

Debagoienetik, Soraluzetik eta Zumarragatik etorritako 400 bat trikitilari batuko dira

Eguerdiko emanaldian, Balentin Gabilondori omenalditxo eskainiko diote antolatzaileek

EDU MENDIBIL > BERGARA

Dena gertu dago Antzuolan bihar, zapatua, Debagoieneko Trikiti Eguna ospatzeko. Bosgarren ekitaldia izango da biharkoa eta antolatzaileak zerura begira daude; izan ere, eguraldi txarra dago iragarrita astebururako eta horixe da antolatzaileen kezka bakarra. "Ea oraingoan ez duten asmatzen eta tregua apur bat izaten dugun..." zioen Beñardo Kortabariak eguazteneko aurkezpenean.

Kortabariak eta Mirari Lamarianok azaldu zuten, iazko apirillean ekin zioten Debagoieneko Trikiti Eguna antolatzaileari, Oñatirengandik lekukoa jaso bezain pronto hain zuzen. Orduetik makina bat ekimen izan dira dirua batzeko eta Antzuolako herriak emandako laguntza eskertu nahi izan zuten.

TRIKITI FESTA

Debagoieneko herri guztietako trikitilariak gain, Soraluzekoak eta Zumarragakoak izango dira bihar Antzuolan. Soraluzek aurreko ekitaldian ere parte hartu izan du; Zumarraga da nobedade bakarra. Antzuolan trikiti irakasle diharduen Edurne Iturbe Zumarragakoak da, eta horixe izan da hango trikitilariak

gonbidatzeko arrazoia. Gaur egun 8-15 urte bitarteko 18 neska-mutiko dihardute Antzuolan trikitia ikasten Iturberekin.

BALENTIN GABILONDO

Antolatzaileak herriko trikitilari zaharrak biltzen saiatu dira azken hilabeteotan eta 25 bat beteranok hartuko dute parte biharko jaietan. Horietako gehienak maisua izandakoa da Balentin Aperribai eta bera izango da biharko protagonistetako bat. Beñardo Kortabariak azpimarratu zuen moduan, "jaiotzez osintxuarra da, baina aspaldi Antzuolan bizi da eta orain dela 25 bat urte panderoa hasi zen erakusten etxeko sukaldean, bere borondatez. Han ibilitakoek oraindik gogoan dituzte saio haiekan edandako Kas-ak eta Coca-Colak. Baldintza bakarra zegoen: gauerdirako saioa amaitzea".

Balentin Gabilondoren ilusioa gazteekin jotzea da eta horixe da festaren helburuetako bat: belaunaldi zaharrak eta berriak elkartzea. Kanpotik 320 bat lagun etorriko dira eta pilotalekuan egingo den herri bazkarian 500 lagun batzea espero dute antolatzaileek. Eguraldiak jai borobiltzea besterik ez da falta.



Antolatzaile lanetan ibili den taldea eguaztenean, Antzuolan.

E.M.



Balentin Gabilondo trikiti maisua haren ikasle izandako Ibon Gezalagarekin.

I.A.

Egitaraua

- > 10:30: Ongietorria eskolako patioan. Hamarretakoa.
- > 11:30: Kalejira.
- > 12:30: Trkiti eskolen emanaldia Zurrategin. Izaskun Fernandez eta Onintza Legorburu izango dira aurkezle lanetan. Balentin Gabilondori esker-ona.
- > 14:30: Trikiti bazkaria pilotalekuan.
- > 17:00: Trikitio taldearekin erromeria Zurrategin.
- > 22:00: Bide Batez taldea Zurrategin.



**Amaren egunean
erramu batekin, ilusioa eta poza
lortuko dituzu. Opari itzazu!
Aukera zabala daukagu.**



UME 175001

Loradenda

Lorak

Landareak

Opariak

Matxiategi 1 BERGARA
Tel.: 943 76 07 47
Faxa: 943 03 40 80
gorostiloradenda@euskalnet.net

GAZTETXOAK > KARAOKE LEHIAKETA

Kantari lehiaketaren lehen saioa bihar, zapatua, Oñatin

Bihar, zapatua, eta etzi, domeka, Oñatiko gaztelekuan egingo dituzte lehen grabaketak; 212 taldek hartuko dute parte

EDU MENDIBIL > BERGARA

Kantari lehiaketaren II. ekitaldia martxan jarriko da bihar, zapatua, Oñatiko gaztelekuan. 18:00etan izango da hitzordua eta bertara joaterik ez duzuenok izango duzue aurrerago GOITBn saioa ikusteko aukera. Hain zuzen ere, eguenean, apirilaren 30ean hasiko da GOITB saioak emititzen; aurreko edizioan bezala, martitzen eta eguenean emitituko dituzte saioak.

Bihar, zapatua, eta etzi, domeka, Gaztelekuan izango da karaoke saioa: zapatuan 18:00etan eta domekan ordubete lehenago, 17:00etan. Abesti berriak entzuteko aukera izango dugu bigarren ekitaldi honetan eta neska-mutilak gogor entseatu dute azken asteotan. Orain, taula gainera, igotzeko ordua da.



Entseguetako argazkiak Kantariko blegean ikusgai daude.

GOIENKARIA

HURRENGO SAIOAK

Amaia Txintxurreta oñatiarrak jarraituko du aurkezle lanetan eta iaz lortutako arrakastari eustea da asmoa. Partaidetza handitu egin da eta 212 talde igoko dira taila gainera saio ezberdinetan. Oñatiko bi saioen ondoren, maiatzaren 9an eta 10ean Aretxabale-tako Arkupen izango da Kantari; ekainaren 6an eta 7an Arra-

saten (Amaia antzokian) eta ekainaren 13 eta 14ko grabaketak Bergaran, Zabalotegi aretoan.

BLOGA ABIAN

Aurtengo berrikuntzetako bat bloga da. Umek entseguetako argazkiak ikusgai dituzte bertan eta iritziak ere idatzi ahal izango dituzte www.goiena.net/blog/kantari helbidean.

KONTZERTUA > JAM ARETOA

Lagartija Nick taldearen kontzertua zapatuan Jamen

Andaluziarrekin batera El Columpio Asesinok eta Nudozurdok joko dute

E.M. > BERGARA

Ibilbide luzea eta jarraitzaile ugari dituen Lagartija Nick taldearen bisita izango dugu bihar, zapatua, Bergarako Jam aretoan. Andaluziarrek 1991n eman zuten argitara lehenbiziko lana, *Hipnosis*, punk eta rock estiloen artean kokatzen zena. Hasierako taldetik Antonio Arias

kantaria eta baxua da jarraitzen duen bakarra. Ordutik hamai-ka kontzertu eman dituzte han eta hemen, talde indie erreferentziakoa izatera iritsiz. Martxoan atera dute euren azken diskoa: *Larga duración*. Lan berriko kantuak zein abesti ezagunenak izango doira bihar-ko kontzertuaren ardatza. Beraiekin batera El Columpio Asesino nafarrak eta Nudozurdo taldeak izango dira Jamen.

Kontzerturako sarrerak 15 eurotan salgai daude ohiko tokietan. Jameko leihatilan 18 eurotan eskuratu ahal izango dira bihar.

> MUSIKA

EskoriatzaRock: Piperrak, Sioux, Xuorum eta Vuelko taldeekin kontzertua zapatuan kiroldegian

EskoriatzaRock jaialdia ospatuko da bihar, zapatua, Intxaurtxueta kiroldegian. Piperrak, Sioux, Xuorum eta Vuelko taldeek joko dute. Piperrak Nafarroatik eta Errioxatik datoz; Sioux aguraindarrek azken diskoa aurkeztuko dute (*De vuelta*); Xuorum gazteitarrek bigarren lana kaleratu dute orain gutxi (*X-Tragos*); eta, azkenik, Bilbotik datorren punk-rock taldea da Vuelko, lehen diskoa grabatzeko zain dagoena.

Intxaurtxuetako ateak 21:30ean zabalduko dituzte bihar eta sarrerak salgai daude, 15 eurotan. Kiroldegiko leihatilan 18 eurotan salduko dituzte zapatuan.

aurtengo UDAN goza ezazu ingelesa ikasten

come and play
udaleku
irekiak



Hurrek jolasean eta ondo pasatzen duten bitartean ingelesa ikasteko aukera daukate.

Orduetgia:

Goizetan 9:30etatik 13:00etara.

Abegi-zerbitzua ikasleentzat goizeko **8:30 etatik aurrera**.

Iraupena: 2 - 4 aste

Datak: ekainaren 29tik - uztailaren 27ra

Edades: 5-14 urte

igeleseko
udalekuak
Nafarroan
Beire eta Lekaroz



Gure zentroek gela eta baliabide ugari dituzte. Gainera, ordenagailu-gela ere badute, eta horri esker, **metodorik berrienak** erabil ditzakegu ingelesa ikasteko. Instalazioetan, **kirol jardueren** programa zabala Eskain dezakegu.

Tokia:

Lekaroz

Beire

Datak:

uztailaren 3tik 14ra

uztailaren 20tik 31era

ikastaroak
atzerrian



Inglateran, Irlandan, Kanadan, Estatu Batuetan, Australian, Txinan, Hegoafrikan, Suitzan.

www.mondragonlingua.com

ARRASATE
Araba Etorbidea 4
Tel. **943 71 20 55**
mlarrasate@mondragonlingua.com

Inglua ingelesa ikasiko duzu.

palabra**hitz**aword





Argazkian, lehiaketan parte hartuko duen Bergarako Musika Eskolako konbo taldea.

MUSIKA ESKOLA

LEHIAKETA > BERGARAKO ZABALOTEGIN, DOMEKAN

Hamasei talde Musika Moderno Lehiaketan

Erandioko, Zumarragako, Ermuko, Legazpiko, Eibarko, Usurbilgo, Beasaingo eta Bergarako musika eskoletako taldeak lehiatuko dira

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Bergarako Musika Eskolak antolatutako I. Musika Moderno Lehiaketa egingo da domekan Zabalotegin. Eskolaren 25. urteurreneko ospakizunen barruan deitutako lehiaketak erantzun zabala izan du; guztira, Euskal Herriko (Bizkaiko eta Gipuzkoako) 16 talde lehiatuko dira. Hain zuzen ere, Ermuko musika eskolako lau talde; Erandioko, Bergarako eta Zumarragako musika eskoletako bina talde; Legazpiko eskolako hiru talde; eta Eibarko, Usurbilgo eta Beasaingo talde bana.

Musika Moderno Lehiaketan ibarreko bi talde bakarrik lehiatuko dira. "Egia esan, harritura gaude guretik kanpo lehiaketak izan duen oihartzunarekin. Ibarretik Bergarako taldeak bakarrik lehiatuko dira. Musika moderno lehiaketa ez dago hain sustraitua

musika eskoletan, eta agian hori izan daiteke arrazoia. Bergaran hasi gara, besteak beste, gitarra elektrikoaren eta bateriaren gaineko eskolak ematen", esan digute musika eskolako arduradunek.

TALDE BAKOITZAK BINA PIEZA

Lehiaketa domekan egingo dute Bergarako Zabalotegi aretoan.

ESANAK

"Harritura gaude deialdiak guretik kanpo izan duen harrerarekin, baina ibarreko bi talde bakarrik daude"

Nekane Gabilondo > Musika Eskola

Taldeak bi multzotan banatu dituzte zozketa bidez. Hala, zortzi goizean lehiatuko dira, 12:30ean, eta beste zortziak 17:30ean. Talde bakoitzak musika modernoan oinarrituta bina pieza eskainiko ditu.

Lehiaketan parte hartuko duten hiru musika eskoletako irakasleek osatuko dute epaimahaia. Zozketa bidez aukeratu dute eta Beasaingo, Erandioko eta Ermuko musika eskoletako irakasleek hartuko dute azken erabakia.

Bi sari banatuko dituzte: irabazlearendako 400 euroko saria, eta publikoaren saria jasotzen duenarendako, 200 euro.

BERGARAKO TALDEAK

Bergarako Musika Eskolak bi talde aurkeztuko ditu; hain zuzen ere, konbo eta hari taldeak. Konbo taldean abeslariak, gitarra elektriko-jotzaileak, baxu-jotzaileak eta perkusio-jotzaileak hartuko dute parte. Hari taldean, aldiz, biolinistak eta biolontxelo-jotzaileak ariko dira.

EUSKARA > TOPAGUNEAK ANTOLATUTA

Irakurketa sustatzeko kanpaina abiarazi dute Euskal Herriko 21 herritan

21 euskara elkartek hartuko dute parte ekimenean, tartean Arrasateko AED-Txatxilipurdi elkarteak

Kanpainarekin hiru helburu bete gura dituzte: alde batetik, euskara elkarrekin bazkide diren euskaltzaleak liburutegi publikoen erabiltzaile aktibo bihurtu gura dituzte; beste alde batetik, eragile publiko eta pribatuaren elkarlana indartuko dute; azkenik, euskarazko liburuen ekoizpena eta salmenta bultzatuko dute.

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Irakurzaletasuna bultzatzeko *Irakurri, gozatu eta oparitu* kanpaina abiarazi du Topaguneak Euskal Herriko 21 herritan. Era berean, euskara elkarten, udal liburutegien eta liburu denden elkarlana sustatzeko asmoa dute. Ekimenean parte hartuko dute Arabako, Bizkaiko, Nafarroako eta Gipuzkoako euskara elkarteak, tartean Arrasateko AED-Txatxilipurdik.

WEBGUNE BEREZIA

Irakurri, gozatu eta oparitu egitasmoa atzo bertan hasi zuten. Aurrekoetan moduan, webgune propioa egin dute: www.topagunea.org/irakurri. Besteak beste, liburu bakoitzaren gaineko iruzkina aurkituko dute irakurleek. Gainera, aukera izango dute aukeratutako liburuen gaineko iritzi-trukea egiteko beste irakurle batzuekin.



GOIENKARIA

Alfabetatzea aldarrikatzeko ekitaldia

Hezkuntzaren aldeko mundu kanpainaren barruan ekitaldi nagusia egin zuten atzo Arrasaten. Helduen eta gazteen alfabetatzea aldarrikatu zuten herriko plazan egindako ekitaldian; besteak beste, ikasleak, ordezkari politikoak eta idazleak bildu ziren. Gaur, Eskoriatzako plazan egingo dute beste ekitaldi bat, 10:30ean.

LO QUE ELLOS IGNORAN DE ELLAS
Eguna: Gaur, Apirilak 24.
Ordua: 22:30ean.

DESPERTAR LOS SENTIDOS
dantza ikuskizuna
Eguna: apirilak 26, domeka.
Ordua: 18:00etan.

Kafe antzokia - Maala 2 ELGETA - 943 78 90 85

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aretxabaleta. 72 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Aukera ona. 659 64 67 38.

Aretxabaleta. Eraikitzen ari den duplexa salgai. Bitartekorik gabe. Bruesa eraikuntzak. www.bruesa.com. Prezio negoziagarria. 626 60 11 07.

Oñati. 90 metro koadroko etxebizitza Bidebarrietan. Terraza, hiru logela, sukalde egongela, bi komun, trastelekua eta estudioa komunarekin. Eguzkitsua eta ondo zaindua. 670 26 58 39.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Bi logelako etxebizitza ematen da errentan San Andresen. 665 70 75 01.

Arrasate. Bi logelako etxebizitza ematen da errentan Zaru-galde kalean. 656 75 00 94.

Oñati. Hiru logelako etxea errentan. Bi bainugela, sukalde jantzia, egongela, bulego txikia, bi balkoi eta gas naturaleko bero-gailua. Laugarren solairua, igogailuarekin. 677 21 21 62 edo 677 61 84 88.

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Etxebizitza txikia errentan hartuko luke familia batek. 649 63 23 24 edo 696 38 10 07.

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Arrasatear batek logela bat ematen du errentan. 675 71 57 03.

Arrasate. Bi logela ematen dira errentan. 680 30 24 64.

Arrasate. Logela ematen da errentan Olarte kalean, sukaldeta erabilizeko eskubidearekin. Neskak bakarrik. 618 00 08 28.

Arrasate. Logela ematen da errentan San Andresen, igogailu eta garajarekin. Pertsona arduratsua behar da, bertan bizi den pertsonarekin arduratu beharko du eta. Presazkoa da. 672 20 36 82.

Arrasate. Logela indibiduala. 190 euro. Telefonoa eta wi-fi baretan. Mutil edo neska. Erdigune hiru minututa. 653 74 28 83.

Arrasate. Pertsona batendako logela ematen da errentan. 636 91 93 81.

Bergara. Logela alokatzen da erdialdeko etxebatean. Hileko: 170 euro + gastuak. Deitu 15:00etatik 19:00etara. 696 02 68 30 edo 670 40 74 53.

Bergara. Logela bat errentan ematen dut, sukaldeta erabilizeko aukerarekin. Bolun. 670 85 86 68.

Bergara. Logela bikoitza ematen da errentan, bi lagunendako. Erdialdean. 649 63 23 24 edo 696 38 10 07.

Bergara. Pertsona bat behar dugu etxea osatzeko. Deitu 628 45 10 37 telefonora.

Oñati. Gela bat alokatzen da maiztetik aurrera. Deitu 655 71 33 66 zenbakira.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Bergara. Garaje irekia salgai Masterrekan. Deitu 651 70 90 12 telefonora.

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Garaje irekia ematen da errentan Malvinetan, Olanar kalean. 687 60 51 24.

205. BESTELAKOAK

Karabana gordetzeko leku bila nabil. 646 37 76 57.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Eskoriatza. Emakume behar da bi ume zaintzeko. 650 05 08 13.

402. ESKAERAK

Aretxabaleta. 40 urtetik gorako neska euskalduna gertu nagusiak zaintzeko, etxean edo ospitalean. 943 79 54 21.

Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Esperientziadun neska tabernan lan egiteko gertu. 650 59 93 91.

IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldatetarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

943 25 05 05

sailkatuak@goiena.com

<http://www.goiena.net/sailkatuak>

PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:

ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU. GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU.

Iragarki partikularren astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatu dira. GOIENKARIA ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz diru daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Etxerik etxe ile aipantzaile lanak egiteko nitzuke. 650 59 93 91.

Arrasate, Aramaio edo Aretxabaletan neska euskalduna gertu asteburuetan tabernan lan egiteko. 686 25 06 57.

Arrasate. 40 urtetik gorako emakume euskalduna lanerako gertu: umeak zaindu, etxe-lanak egin eta abar. 653 70 79 38.

Arrasate. Egun erdiz, osoz edo orduka lan egiteko gertu nago. 666 75 73 21.

Arrasate. Emakume gertu nagusi zein umeak zaintzeko eta baita etxeko garbiketak egiteko ere. Mari. 649 30 13 60.

Arrasate. Emakume gertu umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 663 65 78 43.

Arrasate. Emakume gertu umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxean bertan bizi izateko prest. Ana Luisa de los Santos. Deitu 671 27 78 36 edo 635 15 58 48 telefono zenbakietara.

Arrasate. Emakume gertu umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxean bertan bizi izateko prest. 663 65 78 43.

Bergara. Emakume esperientziaduna gertu dago pertsona helduen eta haurren zaintzan lan egiteko. Garbiketak lanak ere egiteko gertu dago. Norma. 630 88 54 46.

Bergara. Esperientziadun emakume gertu dago garbiketak lanak egin edota haurren zein hiru garren pertsonen

zaintzarako. 14:00etatik aurrera. Gladis. Deitu 618 12 07 44 telefonora.

Bergara. Mutil gaztea eraikuntzan edo autoa behar den beste edozein lanetan lan egiteko gertu. 696 48 42 50.

Bergara. Neska gaztea garbitasun lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan lo egiteko. 617 29 49 81.

Bergara. Neska lanerako gertu. Garbiketak lanetan edo adinekoak edo umeak zaintzen. Aste bukaeretan eta arratsaldeetan. 618 34 09 35.

Bergara. Paperak dituen emakume arduratsua pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. 686 99 59 41.

Bergara. Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. Gidabaiemarekin. 696 48 42 50.

Debagoiena. Edozein lan egiteko gertu nago: garbiketak, nagusiak zaindu... Etxean bertan bizi izateko prest. Ana Luisa de los Santos. Deitu 671 27 78 36 edo 635 15 58 48 telefono zenbakietara.

Debagoiena. Arrasateko mutil gazte euskalduna edozein lan egiteko prest. Esperientzia makinen mantentze eta muntatze lanetan. Baita taberna eta jate-txetako zerbitzari ere. Deitu 605 76 05 59 zenbakira.

Debagoiena. Arratsalde nagusiak zaindu edo tabernan sukaldetan lan egiteko nuke. Deitu 636 11 23 40 zenbakira.

Debagoiena. Edozein motakoa

lanak egiteko nitzuke. Autoa daukat. 662 26 07 09.

Debagoiena. Edozein motakoa lanak egiteko emakume gertu: pertsona nagusiak zaindu, umeak zaindu, etxeko garbitu. Egurdietatik aurrera. Edurne. 605 76 44 31.

Debagoiena. Emakume arduratsua edozein lan egiteko gertu: garbiketak, nagusiak edo umeak zaindu... Etxean bertan bizi izateko prest. 638 23 37 39.

Debagoiena. Emakume esperientziaduna gertu nagusiak zaindu, etxean bertan lo egiten. Orduka ere lan egiteko nuke. Erreferentziak dauzkat. Deitu 628 40 58 27 telefonora.

Debagoiena. Emakume gertu etxeko lanak egiteko, umeak edo nagusiak zaindu. 671 87 14 06.

Debagoiena. Emakume gertu garbiketak egiteko edo pertsona nagusiak edo umeak zaindu. 664 74 82 07.

Debagoiena. Emakume gertu haurrak zaindu, etxeko garbitu eta adineko pertsonak zaindu, gauzez. Arrasaten, Aretxabaletan nahiz Eskoriatzan. Esperientziaduna. 618 00 08 28.

Debagoiena. Emakume gertu nagusiak zaintzeko. Egunez zein gauzez, etxean lo egiteko prest. 659 57 93 89.

Debagoiena. Emakume gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko. Etxean bertan lo egiteko prest. 606 64 16 09.

Debagoiena. Emakume gertu umeak edo nagusiak zaintzeko.

Etxean bertan bizi izango nintzateke. 630 88 54 46.

Debagoiena. Emakumea lan bila. Arduratsua, esperientzia garbiketetan eta geriatría ezagutzak. Paperekin. 697 58 08 19.

Debagoiena. Emakumezkoa Debagoieneko edozein herritan lan egiteko gertu. Pertsona nagusiak zainduko nitzuke, orduka edo etxean bertan lo egiten. 659 57 93 89.

Debagoiena. Emakumezkoa gertu Debagoieneko edozein herritan lan egiteko. Pertsona nagusiak zainduko nitzuke, orduka edo etxean bertan lo egiten. 606 05 07 93.

Debagoiena. Erizain ikasketak ditut eta nagusiak zainduko nitzuke, etxean bertan bizi izateko prest. 652 25 34 97.

Debagoiena. Esperientziadun neska gertu garbiketako orokorrak egiteko edo ume zein nagusiak zaintzeko. Ainhoa. 671 35 22 60.

Debagoiena. Etxeko lanak egiten edo garbitzen arituko nintzateke. Socorro Mora. 627 14 63 79 edo 943 25 07 53.

Debagoiena. Garbiketak egin edo nagusiak zainduko nitzuke, orduka. 679 06 12 99.

Debagoiena. Nagusiak zaindu edo artzain lanak egiteko nitzuke baserrian. 660 84 44 42.

Debagoiena. Nagusiak zaintzen edo bestelako lanetan jardungo nuke. 677 17 43 75.

Debagoiena. Neska euskalduna gertu tabernak, eskailerak

edo elkarrekar garbitzeko edota sukaldetan lan egiteko. Esperientziaduna. 943 08 18 13 edo 635 70 07 92.

Debagoiena. Neska euskalduna lan desberdinak egiteko gertu. Zerbitzari moduan esperientzia. 667 94 07 25.

Debagoiena. Neska lan bila dabil. 943 79 75 14.

Debagoiena. Pertsona nagusiak zainduko nitzuke. Esperientzia eta erreferentziak ditut. 627 21 08 93.

Debagoiena. Pertsona nagusiak zainduko nitzuke. Etxean lo egiteko prest nago. Deitu 638 23 37 39 telefonora.

Debagoiena. Sukaldaritza, garbiketetan edota nagusiak zaintzen lan egiteko nuke. 630 20 12 03.

Debagoiena. Sukaldean edo nagusi zein umeak zaintzen lan egiteko gertu. Etxean bertan lo egiteko gertu nago. Deitu 676 73 90 05 zenbakira.

Etxez etxeko masaje bioenergetikoak hiru garren adinekoendako eta nerbio-sisteman arazoak dituztenendako, batez ere. Deitu 645 70 34 10 edo 945 44 51 46 telefonora.

5/ IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Arrasate. Irakasle eta psikologoak Lehen Hezkuntzako laguntza eskolak emango lituzke. Deitu 645 73 04 69 telefonora.

Arrasate. Ingeniaritza ikaslea matematika, fisika, kimika, teknologia edota ingeleseko eskola partikularrek emateko gertu, batxilergo, DBH eta Lehen Hezkuntzarako. Koldo. Deitu 660 14 56 67 telefonora.

Arrasate. Irakasle eta psikopedagogoa Lehen Hezkuntzako eskola partikularrek emateko prest. Esperientzia handia. Lantalde txikiak. 658 70 67 84.

Bergara. Ingeles irakasle ezagunak azterketak gaintzeko eskolak ematen ditu. Deitu 616 12 56 29 zenbakira.

Ingeniaritza ikaslea DBHko ikasle eskola partikularrek emateko prest astelehenetik ostegunera. Fisika, kimika zein matematika ikasgaiak oso ondo

menperatzen ditut. Beñat. Deitu 645 73 53 95 telefonora.

Oñati. Arkitekturako ikaslea gertu Lehen Hezkuntza, DBH eta batxilergoko ikasle talde txiki- kiei laguntza eskolak emateko. Deitu 665 70 38 33 telefono zenbakira.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Astakumea. Urtebeteko astakumea salgai. Arra da, beltza. Deitu 655 71 39 27 telefonora.

Cocker ingelesa salgai. Beltza. Emea. Txertoak jarrira dauzka. 200 euro. Deitu 618 00 08 28 zenbakira.

703. EMAN

Txakurkumeak. Arratoi-txakurkumeak ematen dira opari. Deitu 685 75 86 49 telefonora.

704. BESTELAKOAK

Pentsua. Royal Canin Boxer 26. 12 kiloko bost zaku salgai. Zaku bakoitzak 55 euro. 651 37 65 67 edo 677 79 32 87.

Yorkshire terrier arrazako txakurra lapurtu digute. Mikrotxip-a du. 619 32 62 27.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Altzaria. Bi logela eta sofa bat saldu nahi ditut. Miren. Deitu 650 17 71 73 zenbakira.

Bitrozeramika berria salgai. 686 99 59 41.

Jatebako tresneria. Mahaikiak, aulkiak, lanparak, aplikak, ontzi garbigailua... Deitu 649 84 67 09 telefonora.

Monty-a. Kubiarta berriak. Freno hidraulikoak, olio berriarekin. Berria dago. 150 euro. 685 78 42 27.

802. EROSI

Kongak. Bigarren eskuko kongak batzuk erosi nitzuke. 610 85 32 04.

Lanabesak. Bigarren eskuko motozerra eta orturako rotabatorra erosi nitzuke. Deitu 699 85 49 58 zenbakira.

Urrezko bitxiak edo urrea erosi nitzuke. 656 75 76 98.

806. GALDU

Arrasate. Kazadora laukiduna galdu nuen apirilaren 19an Kajoi tabernetatik lamairako bidean. Eskertuko da. 656 76 78 12.

Eguzkitako betaurrekoak. Martxoaren 20an, zapatuan, eguzkitako betaurreko graduatuak galdu niten mendian. Besaiden. Aurkitu badituzu, deitu, mesedez. 619 33 72 95.

Motxila bat utzi nuen ahaztua Taupa taberna ondoan ostegun arratsaldean. Aurkitu baduzu, mesedez deitu ondorengo telefonora. Eskertuko da. 699 86 81 21.

9/ HARREMANAK

902. HARREMANAK

Bergara. Neska bat 37 eta 45 urte bitarteko mutil bergarar bila. Erakargarria eta diru arazorik ez daukana. Lagunak izateko. 666 70 32 86.

904. BESTELAKOAK

Arrasate-Gasteiz. Egunero Arrasatek Gasteizera joan-etorria egiten dugu. 08:00etan sartzeko gara lanera eta 17:00etan irten. Norbait interesaturik egoenez gero, deitu. www.compartir.org. 635 20 33 14.



DEBA GARAIA

INMOBILIARIA

Telesforo Aranzadi 2

T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA

- Artekale, 89 m², ondo.
- Arrizuri, 97 m², garajarekin.
- Matxiategi, 65 m², berrieta eta aukera ona.
- Matxiategi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m², ondo, hortuarekin.
- Ibargarai 81 m², berria, eguzkitsua, garajarekin.
- Aranerrek, 87 m², oso ondo.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Artzamendi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- San Lorentzo, 81 m², eraikuntza berria.
- Martoko, 87 m², ondo, garajarekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Urdangarín pasealekua, 132 m², berritzeko.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berrieta.
- Eloregi 70 m², terrazekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Artzamendi 80 m², 2 terrazekin 60+30 m², eguzkitsua.
- Matxiategi, 73 m², berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazekin.
- Zurraero, 81 m², oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 m², berrieta. Oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berrieta. Oso eguzkitsua.
- Bidekurutzeta, 111 m², oso ondo.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan eta Martokon.**

SORALUZE

- Baltegieta, 83 m², berria.
- Sagarrerrek, 58 m², aukera ona.

ANTZUOLA

- Eguzki auzoa, 85 m², oso eguzkitsua.
- Antigua 55 m², erdi berrieta.

ELGETA

- San Roke, 75 m², ia berria.



KROSTI

INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:

- Matxiategi 82 m². Eguzkitsua.
- Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua. Ondo. Berrieta.
- Zubieta 80 m². Berrieta. Ganbarearekin.
- Elusu baseria. Berrieta. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m². Berrieta. Gazteentzat.
- Zubiaurre 67 m². Berrieta. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60 m². Oso ondo.
- Barrenkale 82 m². Berrieta.
- Aranerrek, 95 m², oso ondo.
- Masterrek, 46 m². Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m². Oso ondo.
- Azkurrantzi 69 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbarearekin.
- Osintxu 64 m². Berrieta. 114.192 €.
- Zubiaurre 58 m². Eguzkitsua.
- Kruz Gallastegi 65 m². Eguzkitsua.
- Aranerrek, 90 m². Oso ondo.
- Osintxu 62 m². Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m². Berrieta.
- Zubiaurre 55 m². Berrieta. 114.192 €.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- **San Lorentzon etxe berriak**

Antzuola:

Nahi Baduzu... Orain Lor Dezakezu



GORBEIA-ra Iritsi da

SAMIRA

FASHION OUTLET

Gure Herriko Lehen
Marka Anitzeko
Outleta

2.000 m²-tik
gorako denda, arropa
Marka Nagusiak
prezio harrigarriekin.

Jazkiak
jatorrizko prezioan
baino **merkeago**,
baita **%70**
merkeago ere.



GORBEIA
GEHIEN AURREZTEN DUZUN TOKIA
GORBEIA Merkataritza Parkea - Gasteiz.



Ondoko marka hauen outlet produktuak:

G-STAR | DOLCE & GABBANA | ARMANI | CALVIN KLEIN
BURBERRY | POLO RALPH LAUREN | NOLITA | CRIMINAL
TOMMY HILFIGER | VERSACE | GURU...

Tecarterapia



Terapiaren eraginkortasuna handitzen du eta errehabilitazio-denbora murrizten du, berehalako eta kalitatezko erantzunekin!

Tecarterapia ez da makina soil bat, formazioa eta esperientzia behar da eta eskuekin egiten den terapia edo teknika da; teknologia berritzaile batekin lagunduta, ehunak barne-barnean estimulatzen ditugu. **Tratamendu honen bitartez gorputzeko prozesu natural eta fisiologikoak aktibatzen dira**, prozesu konpontzaile eta birsortzaileak, inflamazioaren aurkakoak...

Lehenengo saioaren ondoren berehalako erantzunak igartzen dira: mina eta inflamazioa txikitu, mugikortasuna berreskuratu...

Tecarterapiaren eraginkortasuna dokumentatua eta frogatua dago nazioarteko eta Italiako unibertsitate askotan egindako ikerketa zientifikoetan lortutako emaitzekin.

Italian oso garatuta dago teknika hau eta kirolean fisioterapeutek talde guztientzat erabiltzen dute, **oso erantzun onekin**. Fisioterapia eta errehabilitazioan hedatuta dago. Aurrerapen handia izan da!

Tecarterapia aurrerapen garrantzitsua da ortopedien, traumatologoien eta fisioterapeuten tratamenduetan.

Terapia honekin, fisioterapiaren arloko gaitz eta arazo gehienak tratatzen dira:

Artrosia, Artritisa, Osteoporosia, lesio muskularrak, ligamentoso eta tendinosoak, ezaugarri degeneratiboak, Bursitisa, Tunel Karpianoa, Epikondilitisa, sorbalda-patologiak, Koxartrosia, belaun-patologiak: Meniskopatiak..., bihurrituak, oin-fasjitisa, metatarsalgia, espoloi kalkaneoak..., Herniak eta Protusioak, Zerbikalgia, Dorsalgia, Lunbalgia, Ziatika, Zikatriz Atrofikoa, Linfoedema...



Ibargarai Etrobidea 17, behea - 20570 Bergara - Tel.: 943 53 44 53

FISIOTERAPIA - TECARTERAPIA - FISIOTERAPIA OBSTETRIKOA - ERRAHABILITAZIO UROGINEKOLOGIKOA
ETXEZ-ETXEKO FISIOTERAPIA -R.P.G. - PODOLOGIA - ELIKADURA ETA DIETETIKA

Saioa Etxabari Mujika, Fisioterapeuta
Especializaturia fisioterapia obstetrikon eta errehabilitazio uroginekologikoan, tekarterapiako arlo ezberdinetan, RPGn, drainatze linfatikoan...

Epe laburrean erditze aurreko eta osteko talde-entrenamenduak, inkontinentzia-tratamenduak, idorreri-tratamenduak...
Webgunea laster eguneratuko da, informazio gehiagorekin


Jose Angel Iribar, 'Ilunpean' saioko 200. atalean

'Ilunpean' saioaren 200. atala eskainiko dute martitzenean, Jose Angel Iribarrekin

GOIENKARIA > ARRASATE
Dagoeneko 200. atalera iritsi da *Ilunpean* saioa, eta hori ospatzeko luxuzko gonbidatua izango da martitzenean: Jose Angel Iribar, hain justu. Zarautzen jaioa, bizitza guztia eman du futbol arloan Iribarrek. 1963an, Athleticeko atezain titular

moduan hasi zen, eta bertan jarraitu zuen, 1980an futbola uztea erabaki zuen arte. Nahiz eta beste futbol talde batzuen eskaintza interesgarriak jaso zituen urte haietan, hark beti eutsi zion Athleticeko atezain postuari. Euskaldunontzat pertsonaia ezaguna da Iribar, eta futbol arloko eta haren bizitzako bestelako pasarte berri izateko aukera eskainiko dizue martitzenean *Ilunpean* saioak.

GOITB, 'Ilunpean'
> Martitzena, 22:15



Jose Angel Iribar Goiena Telebistako platoan.

JON BEREZIBAR

Umeen masajea eta sexologia

UBANE MADERA > ARRASATE
Astea ondo hasteko, masaje kontuak landuko dituzte Arrasate Irratian, astelehenean. Garikoitz Lopez de Munain fisioterapeutak umeendako masajeek duten onuraz jardungo du astelehenean, 10:00etatik 11:00ak bitartean. Horrez gain, sexologia kontuak ere hizpide izango dituzte, fantasia sexualen gainean berba egingo du eta Mirari Arandok, udal sexologia zerbitzuko arduraduna.

Arrasate Irratia, "Igo Autobusera"

> Astelehenean ostegunera, 10:00etatik 12:00etara.



'Txirrita' marrazki bizidunak eskainiko ditu GOITBk

Datorren astelehenean, Lotura Films produzio etxeak ekoiztutako *Txirrita* marrazki bizidunak eskaintzen hasiko da GOITB. Izenak berak dioten moduan, Txirrita bertsolari ezagunaren bizitzako pasarteak ekarriko ditu saioak, umorez eta modu oso finean landuta. Etxeko txikiei eta ez horren txikiei zuzendutako saioa, beraz, datorren astelehenean aurrera Goiena Telebistan.

GOITB, 'Txirrita'
> Astelehenean, eguzten eta egubakoitzetan, 13:45ean.

telebegi

Aitor Arregi
'aitor_arregi@huhezi.edu'

Burp!

Jokin eta Maianak orain dela urte batzuk proiektu desberdinak martxan jartzea adostu zuten. Horrela sortu zen ETB3an ematen duten *Burp!* saioa. Aurrekoan Huhez in izan genituen *burpeatzen*. Talde pintoreskoa etorri zen. Jokin eta Maiana; Transilbaniatik (literalki) zetorren kamera mutil bat eta *Eko-gudariaren* papera egiten zuen aktore bat.

Euskal Herrian ditugun hainbat frikiri kobertura ematen dio saioak. Jende xelebrea, xelebrekeriak egiten. Edo hori uste dugu, ze antzesten ari dira. Edo ez? Fifty-fifty? Errealitatea eta fikzioaren mugarekin jolasten maixuki jolasten duen saioa da *Burp!*

Pozten naiz ETBn horrelako saioek lekua edukitzea. Gustatu ala ez, eskaintza zabaldu egiten da. Batzuk esango dute telebista publikoan ez zirela horrelako saioak jarri behar. Baina *Muchachada nui*-ren garai honetan, kirola eta trikitia baino zertxobait gehiago eskaini behar da. Gazteei, batik bat.

arrasate irrata

FM 107.7

Zapata
10:00 Asteko gainbegirata.

Domeka
10:00 Asteko gainbegirata.

Astelehenean egubakoitzera
10:00-12:00 Igo Autobusera!
Albistegia
Eguraldien iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenean Kiroak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Zaharrak Berri (pertsona nagusiendako)
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Astearren errepasoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (irratia@goiena.com edo goiena.net atarian, irratiko bloga))
11:55 Arrasateko albisteak, labur.
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo Autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

astea GOITBn

Egubakoitza, 24	Zapata, 25	Domeka, 26	Astelehena, 27	Martitzena, 28	Eguaztena, 29	Eguena, 30
08:00 Trikitraka trikiton.	08:00 Marrazki bizidunak.	08:00 Trikitraka trikiton.	13:15 Marrazki bizidunak	13:15 Marrazki bizidunak	13:15 Marrazki bizidunak	13:15 Marrazki bizidunak
09:00 Marrazki bizidunak.	10:30 Trikitraka trikiton.	09:00 Marrazki bizidunak.	13:45 Erlo klip.	13:45 Ikusten.	13:45 Ikusmira.	13:45 Euskal herria lau haizetara.
11:30 28 klip.	11:30 Golb tb.	11:30 28 klip.	14:15 Eltze beroa.	14:15 Eltze beroa: Bildotsa.	14:15 Gure saltsan	14:15 Euskal kantu liriko berria.
12:00 Erloklip	12:00 Euskal herria lau haizetara.	12:00 Erloklip	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.
12:30 Ikuskizuna.	12:30 Ikusmira.	12:30 Ikuskizuna.	15:15 Itsasoari begira: Berdelaren arrantza II.	15:10 Harmailatik.	15:10 Ilunpean.	15:10 Ikusmira.
13:00 Erreportajea.	13:00 Eltze beroa.	13:00 Erreportajea.	15:45 Erreportajea.	15:50 Solaskide.	16:20 28 Klip.	15:45 Ikuskizuna.
13:45 Solaskide.	14:30 Trikitraka trikiton.	13:45 Solaskide.	16:15 28 klip.	16:20 Erloklip.	16:45 Berriak.	16:15 Zaharrak berri.
14:15 Eltze beroa.	15:30 Marrazki bizidunak.	14:15 Eltze beroa.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.	17:15 Marrazki bizidunak.	16:45 Berriak.
15:15 Gure saltsan.	18:00 Erreportajea.	15:15 Gure saltsan.	17:15 Marrazki bizidunak.	17:35 Erreportajea.	17:45 Solaskide.	17:15 Marrazki bizidunak.
15:45 Marrazki bizidunak.	18:30 Solaskide.	15:45 Marrazki bizidunak.	17:45 Wasemak	18:05 Harmailatik.	18:15 Ur eta lur.	17:15 Marrazki bizidunak.
18:15 Trikitraka trikiton.	19:00 Erreportajea.	18:15 Trikitraka trikiton.	18:15 Musikantoi	18:45 Berriak.	18:45 Berriak.	18:00 Erreportajea.
19:15 Erreportajea.	19:30 Berbaire.	19:15 Erreportajea.	18:45 Berriak.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:15 Marrazki bizidunak.	18:45 Berriak.
19:45 Solaskide.	20:30 Golb tb.	19:45 Solaskide.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:45 Goiena Magazinea.	19:45 Goiena Magazinea.	19:15 Marrazki bizidunak.
20:15 wasemak.	21:00 Ikusten.	20:15 wasemak.	19:45 Goiena Magazinea.	20:45 Wazemak.	20:45 Zaharrak berri.	19:45 Goiena Magazinea.
21:15 Euskal herria lau haizetara.	21:30 Ilunpean.	21:15 Euskal herria lau haizetara.	20:45 Segurako prozesioa	21:15 Goiena Magazinea.	21:15 Goiena Magazinea.	20:45 Musikantoi.
21:45 Berbaire.	22:15 Solaskide.	21:45 Berbaire.	21:15 Goiena Magazinea.	22:15 Harmailatik.	22:15 Erreportajea.	21:15 Goiena Magazinea.
22:45 Golb tb.	22:45 Erreportajea.	22:45 Golb tb.	22:15 Harmailatik.	23:00 Erreportajea.	22:45 Euskal herria lau haizetara.	22:15 Berbaire.
23:15 Ilunpean.	23:30 Wasemak.	23:15 Ilunpean.	23:00 Erreportajea.	23:30 Goiena Magazinea.	23:15 Goiena Magazinea.	23:15 Erreportajea.
00:00 Itsasora begira.	00:30 28 klip.	00:00 Itsasora begira.	23:30 Goiena Magazinea.	00:30 Emisio amaiera.	00:15 Emisio amaiera.	23:45 Goiena Magazinea.
00:30 Emisio amaiera.	01:00 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.			00:45 Emisio amaiera.

ezkontzak




Pablo arrasatearra eta **Laura** bergarra datorren zapatuan, maiatzaren 2an, ezkonduko dira Bergaran. Egipton ezagututako *habibi* guztien partetik, zorionak eta pozik bizi. Ondo-ondo ibili ezkontza egunean.



Javier Ugartek eta **Kontxi Laskurainek** 25 urte bete dituzte elkarrekin. Apirilaren 18an, zapatuan, familiartean egin zuten ospakizuna. Zorionak, patxo bana eta elkarrekin beste hainbeste urte bete ditzazuela.



Patxi Souto ordiziarra eta **Kizkitza Lasa** arrasatearra apirilaren 25ean, zapatuan, ezkonduko dira Arrasateko udaletxean. Ezkontza egun eder bat pasa dezazuela opa dizuegu. Zorionak, bikote, eta muxu handi bana etxekoan partetik!



Arrasateko **Alex** eta **Laura** apirilaren 25ean ezkonduko dira Arrasateko udaletxean. Bazkaria Baster-Alde jatetxean egingo dute. Orain arte bezain zoriontsu izatea eta egun ahaztezina pasatzea opa dizuegu, maitasunez, lagunok eta Blind koadrilak.



Jose Iglesiasek eta **Feli Gonzalok** urrezko ezteiak ospatu zituzten apirilaren 12n, Mendiolan. Bazkaria egin zuten, familiartekoekin. Elkarren aldamenean 50 urte bete dituzuen honetan, zorionak eta patxo bana.




Bergarako **Heliodoro Gartziak** eta Aretxabaletako **Irene Diaz de Gereñuk** bihar, apirilaren 25ean, beteko dituzte 50 urte ezkondu zirela. Zorionak, familiako guztien eta bereziki Aritz, Aitor eta Anaren partetik.



Angel Agreda eta **Teresa de la Torre** arrasatearrek urrezko ezteiak bete zituzten apirilaren 18an. Zoriontasunak, bakeak eta maitasunak jarrai dezala zuekin bizitza osoan. Zorionak, bikote, familiakoan partetik.

bono fotoa



guardiako farmaziak

ARRASATE

Zapatua, 25	Ruiz	Nafarroa Etorb., 1	943 77 14 09
Domeka, 26	Etxeberria	Zarugalde, 42	943 77 16 30
Astelehena, 27	Azkoaga	Ferrerias, 1	943 79 15 15
Martitzena, 28	Azkoaga	Iturriotz, 17	943 79 79 99
Eguaztena, 29	Corcuera	Maisu Aranbarri	943 79 22 26
Eguena, 30	Irizar	Erguin, 11	943 79 12 39
Egubakoitza, 1	Amezua	Santa Marina, 32	943 77 09 74

BERGARA

Zapatua, 25	Estella	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Domeka, 26	Estella	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Astelehena, 27	Alvarez-Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Martitzena, 28	Urrutikoetxea	Plaza Oxirondo, 4	943 76 11 74
Eguaztena, 29	Zabala	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Eguena, 30	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05
Egubakoitza, 1	Estella	Matxiategi, 5	943 76 19 63

OÑATI

Zapatua, 25	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Domeka, 26	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Astelehena, 27	Juldain	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Martitzena, 28	Juldain	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Eguaztena, 29	Anduaga	San Lorenzo, 3	943 78 21 16
Eguena, 30	Anduaga	San Lorenzo, 3	943 78 21 16
Egubakoitza, 1	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22

ARETXABALETA

Zapatua, 25	Fraille	Herriko plaza, 10	943 79 21 99
Domeka, 26	Fraille	Herriko plaza, 10	943 79 21 99
Astelehena, 27	Agirre (Esko.)	Gorosarri plaza	943 71 48 28
Martitzena, 28	Agirre (Esko.)	Gorosarri plaza	943 71 48 28
Eguaztena, 29	Agirre (Esko.)	Gorosarri plaza	943 71 48 28
Eguena, 30	Agirre (Esko.)	Gorosarri plaza	943 71 48 28
Egubakoitza, 1	Agirre (Esko.)	Gorosarri plaza	943 71 48 28

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2009ko egutegia.
Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEZA.



Garmendia Ardoek emandako
Ardo botila packa*
zozketatuko du GOIENKARIAK
asmatzaileon artean!

* Larchago iskillarapeko ekologikoa 2008.
Larchago krintantza 2006.
Larchagoko Izarbe bereziki aukeratutako erreserba 2001.

ERANTZUNA
IZEN-DEITURAK
HERRIA TEL:

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

**Oñatiko zein jauregitan
aurkitu daiteke arabiar
kutsuko horma hau?**

Argazkia eta galdera >Iñigo Biain

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA
Arrasateko **Bea Olabarria**.
Zorionak!
Erantzun zuzena:
Eskoriatza, XIX medekoa

hildakoak

- Blanca Uranga Bergaretxe. Arrasaten, apirilaren 15an. 82 urte.
- Carlos Llobregat Azpiroz. Antzuolan, apirilaren 16an. 82 urte.
- Alejandra Lopez del Olmo. Bergaran, apirilaren 16an. 89 urte.
- Angel Roige Beitia. Bergaran, apirilaren 16an. 80 urte.
- Myriam Rigault Lecuyer. Oñatin, apirilaren 16an. 62 urte.
- Juan Ramon Rodriguez Viñas. Bergaran, apirilaren 17an. 70 urte.
- Jose Luis Arantzeta Arregi. Elgetan, apirilaren 17an. 83 urte.
- Luis Arrieta Boye. Oñatin, apirilaren 17an. 96 urte.
- Lucio Urtzelai Gantxegi. Bergaran, apirilaren 18an. 86 urte.
- Segunda Latorre Mayner. Bergaran, apirilaren 18an. 93 urte.
- Juan Bautista Vidan Andueza. Arrasaten, apirilaren 19an. 83 urte.
- Carmen Rekarte Oartzun. Eskoriatzan, apirilaren 20an. 82 urte.
- Maritxu Etxezarreta Muñoz. Oñatin, apirilaren 20an. 86 urte.
- Juan Moreton Pura. Bergaran, apirilaren 21ean. 89 urte.
- Jesus Moreno Leibar. Arrasaten, apirilaren 22an. 82 urte.

ESKER ONA

Segunda Latorre Mayner

Jesus Okinaren alarguna

Bergaran hil zen 2009ko apirilaren 19an, 95 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2009ko apirilaren 24an.

ESKER ONA

Guadalupe Manzano Madinabeitia

2009ko apirilaren 8an hil zen, 75 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean



Bergaran, 2009ko apirilaren 24an.

URTEURRENA

Itxaso Unamuno Agiriano

Lehen urteurreneko meza domekan, apirilaren 26an, 12:50ean, Arrasateko San Joan Bataiatzailea parrokiari ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Edurne Aiastui Alberdi

Lehen urteurreneko meza zapatuan, apirilaren 25ean, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokiari.

Gogorra da onartzea gehiago ez zaitugula ikusiko baina bizitzen garen artean ez zaitugu inoiz ahaztuko.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean

OROIGARRIA

Ane Telleria Iñurritegi

22 urtetan gure artian ta azken 4 honeitan be gure burutan dabil zure barria, gero arte pinpilinpauza.



Zure kuadrillia. Oñatin, 2009ko apirilaren 24an.

URTEURRENA

Angel Bengoa Aguayo

Gasteizen hil zen 2008ko apirilaren 25an, 74 urte zituela.

Zure kemena da gure iparra.

Urteurren mezara etorritakoei, eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2009ko apirilaren 24an.

URTEURRENA

Jose Luis Miner Arrieta

Zazpigarren urteurreneko meza domekan, apirilaren 26an, 12:50ean, Bergarako San Pedro parrokiari ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

OROIGARRIA

Maritxu Etxaniz Artetxe

Bergaran hil zen 2009ko apirilaren 17an, 91 urte zituela.

Beti izango zaitugu gogoan.



Bihotz-bihotzez zure senideak. Bergaran, 2009ko apirilaren 24an.

URTEURRENA

Modesto Zangitu Gallastegi

Lehen urteurreneko meza domekan, apirilaren 26an, 12:00etan, Osintxuko elizan ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Maritxu Gartzia Etayo

Hirugarren urteurreneko meza domekan, apirilaren 26an, 12:50ean, Bergarako San Pedro parrokiari ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

OROIGARRIA

Amenabar eta Gallastegitar Maria

2006ko apirilaren 16an hil zen

Amenabar eta Gallastegitar Juste

2008ko martxoaren 10ean hil zen.



Gure gogoan zaudete.



Familia Urteurren mezara etorritakoei eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Jose Arbelaitz Aranburu

Lehen urteurreneko meza domekan, apirilaren 26an, 12:00etan, Osintxuko elizan ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.


ESKELA

Jose Perez Canton

Gotzon Arzelus Goienako lankidearen aitagarreba.

Soraluzen hil zen 2009ko apirilaren 15ean 59 urte zituela.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.



Bergaran, 2009ko apirilaren 24an.

Babeslea:



Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea



Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

Apirilak 24-30

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13

Antzerkia



ELGETA

> 'Good sex, good day' antzezlana gaur gauean Espaloia Kafe Antzokian

Yolanda Gartzia Serrano ezagunak idatzi eta zuzendutako umorezko antzezlana. Susana Soletto, Itziar Urretabizkaia eta Idoia Merodio aktore ezagunekin. Gaur, egubakoitza, Espaloian, 22:30ean. Sarrerak 13 eurotan salgai.

Musika



ESKORIATZA

> EskoriatzaRock: Piperrak, Sioux, Xuorum eta Vuelko zapatuan

EskoriatzaRock jaialdiaren lehen ekitaldia ospatuko da bihar, zapatua, Intxaurtxueta kiroldegian, 21:30ean. Piperrak, Sioux (Kaos Etiliko talde ohia, irudian), Xuorum eta Vuelko taldeek joko dute. Sarrerak 18 eurotan (15 aurretik).

Musika



BERGARA

> Lagartija Nick, El Columpio Asesino eta Nudozurdo zapatuan Jam aretoan

Kontzertu erakargarria izango da bihar, zapatua, Jam aretoan. Lagartija Nick, El Columpio Asesino eta Nudozurdo talde *indieak* izango dira taula gainean. Ateak 20:30ean irekiko dituzte. Sarrerak 18 eurotan (15, aurrez erosita).

eta Arrasateko Udalak antolatutako ikastaroa. Apirilaren 25ean, maiatzak 9 eta 23an eta ekainaren 6an, 10:00etatik 13:00etara Kulturaten. Manuel Esparza izango da irakaslea.

Matrikula: 18 euro. Argibideak 943 69 21 66 zenbakian.

ESKORIATZA

> Bertso ikastaroa helduei zuzenduta

Eskoriatzako Udalak, Gipuzkoako Bertsozale Elkartearekin batera, helduendako bertso ikastaroa antolatu du. Helburua da bertsozaletasuna sustatzea, euskaraz aritzea, hizkuntzarekin jolas egitea...

Maiatzaren 5ean hasiko da ikastaroa. Izenematea apirilaren 30era arte zabalik. Argibideak 943 71 46 88 zenbakian edo euskara@eskoriatza.net helbidean.

ARRASATE

> Eskulan ikastaroa eta makillaje ikastaroa

Ekin Emakumeak Elkartearen eskutik. Eskulan ikastaroa martitzenero: 15:30-17:30 edo 18:00-20:00 (ekainaren 16ra arte); makillaje ikastaroa maiatzaren 9an 11:00etatik 14:00etara.

Argibideak 943 79 83 70 zenbakian.

DEBAGOIENA

> Alpinismo ikastaroa Gipuzkoako Goi-Mendi Eskolarekin

Gipuzkoako Goi-Mendi Eskolak antolatuta, alpinismo ikastaroa izango da apirilaren 25ean eta 26an. Izenemateak 137 euro balio du.

Musika

OÑATI

> Doinua Musika Eskolaren emanaldia gaur

Doinua Musika Eskolako Big Bandek eta Komboak parte hartu dute.

Gaur, 19:30ean Oñatiko Plazan. Jose de Azpiazu Musika Eskolak antolatuta.

ARRASATE

> Puro Chile eta Macarrada taldeak

Gaur, egubakoitza, 3.60 aretoan, 22:30ean.

BERGARA

> Kataia Pol-Polen eta lau talde gaztetxean bihar

Gaztetxean, Insanity, Zaunka, Skakeitan eta Namk Planet, 22:30ean. Kataia taldeak Pol-Polen joko du, 23:00etan. Bi kontzertuak zapatuan.

BERGARA

> Udal Musika Banda eta Musika Eskolako Gazteen Banda

Bandaren saioaren ondoren, bi taldeek batera jardungo dute.

Domekan Udal Pilotalekuan, 12:30ean.

Antzerkia

OÑATI

> Tenconten taldearen 'Ingurumenua' zapatuan

Kutxaren kultura eskaintzaren barruan.

Bihar, zapatua, Santa Ana antzokian, 17:00etan. Gonbidapenak kultura etxean jaso daitezke: egubakoitzean 16:30etik 20:30era eta zapatuan 10:00etatik 13:30era.

Erakusketak

ARAMAIO

> '20 urte amets bat eraikitzen'

Udaletxean, gaur: 18:30-20:00. bihar,

zapatua: 12:00-14:00/ 17:30-19:00. Eta domekan: 12:00- 14:00/18:00-19:00.

BERGARA

> Jorge Oteizari eskainitako erakusketa

Orioko artista handiaren lanari gainbegiratua egiten dion erakusketa.

Maiatzaren 3ra arte, Aroztegin.

BERGARA

> Martin Guridiren margoak Nahikari tabernan

Rikardo Azkargortaren ikaslea da Guridi.

Apirilaren amaierara arte Nahikarin.

ARRASATE

> 'Biblioteca en guerra'

II. Errepublikan eta 1936ko Espainiako gerran biblioteka publikoek egindako lan mardula islatzen du erakusketa. Apirilaren 30era arte Kulturaten.

Hitzaldiak

ARRASATE

> 'Pagar por leer en la biblioteca pública' eguaztenean

Blanca Calvoren eskutik. Eguaztenean, hilaren 29an Kulturaten, 19:00etan.

PROPOSAMENA



ELGETA

> 'Despertar los sentidos' dantza ikuskizuna

Aurrekoan izandako arrakastak eragin du berriz ere *Despertar los sentidos* ikuskizuna Elgetara ekartzea. Sarah Ramirezen gidaritzapean, ezinduek osatutako lantalde profesionala da. Ezintasunen bat duten lagunen bizikaltate hobetzea da haien helburua. Dantzaren bitartez mundu berri bat zabaltzen da dantzari horiendako. Integrazioa balio duen ekimena Elgetan ikusgai izango da.

Domekan, hilaren 26an, Elgetako Espaloia Kafe Antzokian, 18:00etan. Sarrerak 6 eurotan salgai.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

ERAKUSKETA IRAUNKORRA: 172 modulu interaktibo ezberdin dauzka, bi solairu eta 9 geletan banatuta. Komunikatzeko modu berri bat, esperimentu eta objektuen manipulazioa erabiliz.

PLANETARIUM BERRIA

Kupula osoan proiektatzen diren erresoluzio handiko irudi ikusgarriak: Asteburu eta jai egunetako saioak: 12:00 eusk., 13:00 gazt., 15:30 fran., 16:15 gazt., 17:00 eusk., 18:00 gazt.

Donostiatik zerura begira: Zuzeneko saioa.

Itsua izar begiekin: Itsu bat eta tirano bat protagonista dituen ipuin animatu bat.

Biziaren jatorria: Lurraren eta Eguzki Sistemaren jatorria erakusten digun saioa.

Kartoizko suziriaren sekretua: Hurrei zuzendutako saioa (BERRIA!)

IKUSKIZUN ETA ANIMAZIOAK

(asteburu eta jaiegunetan, museoko sarrerarekin)

Elektrizitate ikuskizuna: lleak puntan jarriko dizkizun esperientzia.

Planetarium Txikia: 4-9 urte bitartekoek ere izarrak ikus ditzaten

Simulagailuak: Errusiar mendia eta tranbia gidatzailearekin disfrutatzen aukera

Eta gainera: Segway-a, Fakirren ohea, 1,2,3...matemagia!, sumendiak, esperimentuak, etab



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

Miramón-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramón.org

Izenematea eta argibideak 699 63 39
50 telefono zenbakian.

ARRASATE

> **Emakume Txokoaren eskutik hainbat ikastaro**

Arrasateko Emakume Txokoak hainbat ikastaro iragarri ditu: Zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa (apirilaren 29tik ekainaren 17ra); Euskal dantzak (apirilaren 28tik ekainaren 16ra); Antzina-ko emakumeak: gure amandrengandik ikasten (maiatzaren 12tik ekainaren 9ra); Bizikletak konpontzeko ikastaroa (maiatzaren 11tik 25era arte); eta, azkenik, *Gure erotismoa: gorputzaren hizkuntza* (maiatzaren 22an eta 23an).

Izenematea eta argibideak 943 79 41
39 telefonoan edo *emakumetxokoa@arrasate-mondragon.net* helbidean.

BERGARA

> **Lotura afektiboak**

Udaleko Gizarte Zerbitzuak emakumeei zuzendutako ikastaroa antolatatu du.

Apirilaren 27tik eta ekainaren 22ra, astelehenean 17:5etik 19:15era. Argibideak: 943 77 91 65.

Lehiaketak

BERGARA

> **Mendekoste jaietako kartel lehiaketa**

Pazkoetako egitarauaren azala egiteko lehiaketa deitu du Bergarako Udaleko Kultura Sailak. Bergaran erroldatutako edozein pertsona har dezake parte lehiaketan. Irabazleak 600 euro jasoko ditu.

Lanak entregatzeko epea apirilaren 28 arte dago zabalik. Argibideak Bergarako kultura etxean, 943 77 91 59 telefono zenbakian.

BERGARA

> **Erraldoiei izena jartzeko lehiaketa**

Erraldoien izena proposatzerako orduan kontuan hartu beharko da erraldoi bakoitzaren izenaren irudia. Bergaran erroldatutako edonork hartu ahal izango du parte. Izenik egokiak proposatzen dituenak, erraldoi bikote bakoitzeko, 150 euroko saria jasoko du.

Argibide gehiago kultura etxean, 943 77 91 58 zenbakian.

ARRASATE

> **San Juan jaiak: irudi lehiaketa deitu du Udalak**

Lehiaketa honetan edozein pertsona har dezake parte. Kartelek derrigorrez testu hau izan beharko dute: 2009 San Juan Jaiak Arrasate. Irabazleak 750 ko saria jasoko du.

Lanak entregatzeko epea maiatzaren 22ra arte izango da zabalik. Argibide gehiago Biztanleen Arreta Zerbitzuan, 943 25 20 00 telefono zenbakian.

LEKEITIO

> **Euskal Zine eta Bideo Bilera**

Edozein bideo sortzaile har dezake parte. Lanak DVD formatuan aurkeztu behar dira, euskaraz, irailaren 11rako.

Argibideak 94 624 34 82 zenbakian edo *www.bideobilera.com* webgunean.



Un cuento de Navidad ***

Zuzendaria: Arnaud Desplechin.
Aktoreak: Catherine Deneuve, Mathieu Amalric. Frantzia, 2008. 150 min.

Arnaud Desplechin zortzigarren lana izan arren, *Un cuento de Navidad* heltzen zaigun haren lehen filma da. Izenburuak argi adierazten duenez, kontatzen zaigun istorioa Gabonetan kokatzen da, eta egun horiek ospatzeko biltzen den familia bat dugu protagonista: gurasoak, hiru seme-alabak eta haien bikotekide eta seme-alabak eta lehengusu bat. Sei urte zituela haur bat hil zen familian, ez zegoelako hezur-muineko emaile egokirik. Orain amak ere gaixotasun hori du eta familian emaile egoki bat topatu nahi dute. Egoera horretan, Gabonetan bilduko dira denak eta, sarritan gertatzen denez, egun horietan iraganeko mamuak, oraineko frustrazioak eta konpondu gabeko gatazkak azalduko dira.

Agian, goiko lerroak irakurri ondoren pentsa daiteke familiarterko bilerari buruzko beste film bat dela, baina horrela izan arren, istoriora hurbiltzeko moduagatik Desplechinaren proposamena oso pertsonala, bitxia eta heterogeneoa da. Filmak ez du egitura finkorik, eszena pila bat daude, pertsonaia ugari biltzen direnez euren arteko topaketa asko dira, kasu askotan oso topaketa motzak. Lehen zatian ematen du zuzendariak ez dituela egoerak garatzen, garrantzi handiagoa ematen diola lan bitxi bat sortzeari sakontasuna lor-tzeari baino. Dena den, poliki-poliki egitura kaotiko samar horretan sartzen garelako, bigarren zatian gauzek trinkotasun handiagoa hartzen dute, filmaren tonua epe-lagoa eta gertuagoa bihurtuz.

Un cuento de Navidad oso zinema areto gutxitan estreinatuta da, frantsesez gaztelaniazko azpiztituluekin, zinema komertzialetik eta egitura klasikoetatik ihes egiten du eta oso proposamen berezia da. Badira momentu batzuk berezitasun horrek zerbait apertatsua ematen duela, baina orokorrean Desplechinek lortzen du filmari bilatutako tonu etereo eta zehaztu gabea ematea.

Antonio Zabala

Zinema

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

Che: guerrilla
Domeka: 19:30.
La pantera rosa 2
Domeka: 17:00.

El bosque del luto
Eguena: 20:30 (jatorrizko bertsioa).

BERGARA

ZABALOTEGI

Transsiberian
Zapata: 19:30, 22:30.
La isla de Nim
Zapata: 17:00.

Agua/Deepa Mehta
Eguena: 20:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

Slumdog millionaire
Egubakoitza eta zapata: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelena: 19:30.

Happy: un cuento sobre la felicidad
Eguena: 20:00.

ARETXABALETA

ARKUPE

La clase
Egubakoitza eta zapata: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelena: 16:00.

Space chimps
Domeka: 17:00.

El patio de mi cárcel
Eguena: 19:30.

EIBAR

UNZAGA

Los abrazos rotos
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapata eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Asteleneretik eguaztene-
ra: 19:30, 22:15.

GASTEIZ

GURIDI

La sombra del poder
17:30, 20:00, 22:30.
Señales del futuro
17:30.

Fuga de cerebros
16:30, 18:30, 20:30, 22:30.
La madre de él
16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

PARÍS, PARÍS

La montaña embrujada
16:30, 18:30, 20:30.

25 kilates
17:30, 20:00, 22:30.

Naranja en flor
20:30, 22:30.

Monstruos contra alienígenas
16:30, 18:30.

Slumdog millionaire
20:00, 22:30.

Hilaren 24tik 29ra.

FLORIDA-GURIDI

Rudo y cursi
17:00, 19:45, 22:30.
Munduari bira doan
17:00, 18:40, 22:30.

La duquesa
20:20.

La buena vida
17:00, 19:45, 22:30.

The international
17:00, 19:45, 22:30.

Un cuento de verano
17:30, 20:00, 22:30.

Gran Torino
17:30, 20:00, 22:30.

Déjame entra
17:30, 20:00, 22:30.

Egubakoitzetik domekara.

VELMO-GORBEIA

Mentiras y gordas
16:15 (zapata eta dome-
kan), 18:15, 20:15.

The international
15:30 (zapata eta dome-
kan), 17:45, 20:00,
22:15, 00:30.

Fuga de cerebros
16:10 (zapata eta dome-
kan), 18:10, 20:10,
22:10, 00:10.

La madre de él
16:20 (zapata eta dome-
kan), 18:20, 20:20,
22:20, 00:20.

Fast and furious: aún más rápido
18:20, 20:30, 22:40,
00:50.

Dragonball evolution
16:45 (zapata eta dome-
kan), 18:45.

Monstruos contra alienígenas
16:00, 18:00, 20:00,
22:00, 00:00 (zapata eta dome-
kan).

Al final del camino
17:45, 19:45, 21:45, 23:45.

La sombra del poder
16:30 (zapata eta dome-
kan), 19:00, 21:30,
00:00.

Señales del futuro
15:35 (zapata eta dome-
kan), 17:50, 20:05, 22:20,
00:35.

Los abrazos rotos
22:15.

Ponyo en el acantilado
16:05 (zapata eta dome-
kan), 18:05, 20:05.

La montaña embrujada
16:30 (zapata eta dome-
kan), 18:30, 20:30,
22:30, 00:30.

Gran Torino
18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

La lista
20:35, 22:35, 00:35.

La duquesa
15:45 (zapata eta dome-
kan), 22:00 (gaur eta astelehenetik eguazte-
nera).

Slumdog millionaire
17:40, 19:50, 22:00, 00:10.

El curioso caso de Benjamin Button
22:05.

Confesiones de una compradora compulsiva
16:00 (zapata eta dome-
kan).

Más allá de los sueños
16:20 (zapata eta dome-
kan).

Hotel para perros
15:40 (zapata eta dome-
kan).

Gauerdiko emanaldiak egubakoitz eta zapata.

ÁBACO BOULEVARD

Gran Torino
20:15, 22:40, 01:00.

Mentiras y gordas
16:00, 18:10, 20:25.

Slumdog millionaire
22:25.

Hotel para perros
16:05, 18:10.

Al final del camino
16:05, 18:05, 20:10, 22:20,
00:30.

The International: dinero en la sombra
15:45, 18:05, 20:30, 22:45,
01:00.

Duplicity
20:15, 22:40.

La montaña embrujada
16:15, 18:15, 20:20, 22:25,
00:30.

Fuga de cerebros
16:00, 18:15, 20:25, 22:35,
00:45.

Más allá de los sueños
16:05, 18:10.

La sombra del poder
17:00, 19:30, 22:10, 00:45.

Dragonball evolution
16:30, 18:30, 20:25.

Monstruos contra alienígenas
16:10, 18:15, 20:15.

La casa de mi padre
20:25, 22:30.

Señales del futuro
15:45, 18:00, 20:20, 22:40,
01:00.

Fast and furious: aún más rápido
16:00, 18:10, 20:25, 22:45,
01:00.

Gauerdiko emanaldiak egubakoitz eta zapata.

nire aukera



Xabier Infante 'Artza'
Aloña Mendiko igeriketa entrenatzailea

San Prudentzio ospatzeko zain

Jaiotzez gasteiztarra bada ere, uztailaren lehen 25 urte beteko ditu Oñatin Xabier Infante *Artza*-k. Bihotza erdi-bituta duen seinale, Aloña Mendi eta Alaves futbol talde-
etako bazkide da. Alavesekin sufritzen dihardu.

Aste bukaerarako plana eginda duela diosku: zapata sorosle ikastaroa hartuko du Zubikoan, egun osoz, eta domekan Aloñako Igoeran jardungo du lagunzaile. Arratsaldean, berriz, Azkoain gainera joango da, Aloña Amaiak Bat partidua ikustera. Bestalde, San Prudentzio ospatzearekin ez du hutsik egingo aurrean ere.

Gasteizen ospatuko duzu Arabako patroia?

Ez, ezin dut. Egun horretan karakolak eta perretxiko nahaskia ezagutu ditut etxean beti, eta horixe bazkaldu edo afalduko dut martitzenean.

Karakolak zeuk batzen dituzu?

Ez. Lagun batek ekartzen dizkit... Bai, bai, lagun onak dauzkate; horrelakoak komeni... Asteburuan hasiko naiz karakolak gertatzen.

Alavesek utsiko dio mailari?

Egia esateko, oso zaila ikusten dut. Celtak zorrazkitatzen ez baditu, agian, baina nekeza, beltza dago kontua...

Aisialdian zer egitea atsegin?

Mendi bueltatzea egin eta ahal dudanean eskiatzera joatea atsegin dut. Pazko astean Cerwinian izan gara Aloña Mendikoak eta Bergarako Pol-Polekoak. Leku zoragarria da hura.

Zer ari zara irakurtzen?

Bi libururatu ditut esku artean: Stephen Kingen eleberri bat eta John Carlinen *El factor humano*.

Aloña goerarako eguraldi txarra dago iragarrita...

Ea oraingoan ez duten asma-tzen eta dena ondo ateratzen den... Lagun asko gara antolaketan eta neu kronometratzaile jardungo dut.

Edu Mendibil



Slumdog millionaire **

Erresuma Batua, 2008. Zuzendaria: Danny Boyle. Aktoreak: Del Patel, Anil Kapoor, Freida Pinto. 120 minutu. Zortzi sari jasoko dituzte Oscarretan. Jamal Malik Bombayko nerabe pobrea bat da. Telebista lehiaketa batean diruzta irabazi ostean, polizia atxilotu egingo du, tranpa egintza egitekoan. Danny Boyle zuzendariaren beste lanen artean *Trainspotting* famatu dago.

Eskasa: * Balekoa: ** Oña: *** Oso ona: **** Bikaina: *****

El intercambio ****

AEB, 2008. Zuzendaria: Clint Eastwood. Los Angelesen, 1928an girotutako filma. Langileak nagusi diren auzo baten ezkongabeko ama batek, Christine Collinsek, 9 urteko semea agurtuko du zapata goiz argitsu baten, lanera joan aurretik... Hortik aurrera erabat aldatu da Christine Collinsek bizitza... Benetako gertakarietan oinarrituta.

La duda ***

AEB, 2009. Zuzendaria: John Patrick Shanley. 1964. urtea, New Yorken Bronx auzokoa San Nicolas elizan. Flynn apaizak mojek zuzendutako ikastetxearen arau zorrotzak aldatu nahi ditu. Flynnek ikasle beltz batez abusatuta duelakoan, Aloysius moja apaiza kaleratzen ahalegintuko da.

El curioso caso de Benjamin Button *****

AEB, 2008. Zuzendaria: David Fincher. David Fincher zuzendariaren (*Zodiac*) azken lana Oscarretako gaitzailaketa bat izan gabe, bigarren mailako hiru sarirekin konformatu behar izan zen-eta. Benjamin Button (Brad Pitt) 80 urterekin jaioko da eta urteak atzetik aurrera beteko ditu...

The reader

AEB, 2009. Zuzendaria: Stephen Daldry. Michael Berg 15 urteko gaztea gaitzailaketa bat izan gabe, bigarren mailako hiru sarirekin konformatu behar izan zen-eta. Benjamin Button (Brad Pitt) 80 urterekin jaioko da eta urteak atzetik aurrera beteko ditu...

Oscar saria Kate Winslet protagonis-tarendako.

Gran Torino ****

AEB, 2009. Zuzendaria: Clint Eastwood. Walt Kowalski Koreako gerrako soldadua ohi bat da. Egun batean des-
kutritu du bere aitxor preziatue-
na lapurtu nahi diola Asiako jatorri-
ko bizilagun nerabe batek: 1972ko
Gran Torino autoa. Arrazismoaren
inguruko drama.

La sombra del poder

AEB, 2007. Zuzendaria: Kevin McDonald. Stephen Collins kongresista bere alderdiko izarra da, eta hurrengo hauteskunderen presidentetzarako hautagaia izango dela uste dute. Baina haren laguntzailea hiltzen dutenean gauzak nahastuko dira.

Gurean ere 'Feliç Sant Jordi'

APIRILAK 23 Atzo, eguna, Sant Jordi izan zen Katalunian; Debagoiengan bizi diren katalanek domekan ospatu zuten

HAMASEI LAGUN Aramaioko Iturrietan hamasei katalan elkartu ziren; egun "sinplea" baina "atsegina" pasa zuten

DENETARIK Azken hiru urteotan egindako bilkuran, beste toki batzuetatik etorritakoak ere izan dira ibarrekoekin

MIRIAN BITERI > BERGARA

Atzo, apirilak 23, Sant Jordi eguna izan zen Katalunian. Ospakizunak ez ziren baina hara mugatu. Jaioterritik urrun bizi diren katalanek ere euren patroia gogon izan dute egunotan; tartean, Debagoiengan bizi direnek.

Hamasei lagunez osatutako taldea, esaterako, Aramaioko Iturrieta sagardotegian bildu zen joan den domekan. Bilkura horretan izandako Josu Tornayk azaldu digu "aparteko ezer" ez zutela egin. Eguerdi partean Aramaion ibili ziren eta jarraian, Arraga auzorantz abiatu ziren. Bazkaldu ostean, abesti katalanen txanda iritsi zen sagardotegira. Tornayren esanetan, "sinplea baina era berean atsegina izan zen".

HIRU URTE

Azaldu digu hiru urte daramatzatela Sant Jordi eguna ospatzen. Gogorarazi du orain dela hainbat urte, Euskal Herrian bizi diren katalanak harremanetan jartzen hasi zirela. Handik gutxira, biltzeko "egun ofiziala" jartzea era-

baki zuten; horretarako, Sant Jordi adostu zuten guztien artean.

Lehenengo bilkura Kanpanzarren egin zuten; Sara Merenduen, hain zuten. Harrera ona izan zuen eta iaz jende gehiago animatu zen; orduan, Udalan egin zuten hitzordua. Tornayk adierazi du, horren harira, asmoa dela ingurunean biltzea. Hala ere, esan beharra dago biltzen diren gehienak debagoiendarrak badira ere, Arabatik, Elorriotik eta Donostiatik ere etorritako hainbat katalan daudela: "Hego Euskal Herrian lau elkarte badaude ere, gehienetan ez dago mugimendu handirik. Gure asmoa da urtero ekimen gehiago egitea".

Tornayk onartu du aurten lagun gutxiago elkartu direla: "Kontuan izan behar da Aste Santua eta Pazko astea tartean egon direla, eta, beraz, jende asko kanpoan zegoela oportetan".

Datorren urteko batzarrean pentsatzen ari dira dagoeneko. Dena ondo antolatuz gero, 30 katalan inguru elkar daitezkeela azaldu digu.



Aramaioko Iturrieta sagardotegian bildu ziren joan den domekan katalanak.

GOIENKARIA

ahobero

"Abortuaren krimenak gizateriaren historia ilundu izan du betidanik"

Antonio Maria Rouco Varela > Espainiako Gotzain-Batzarreko presidentea

Horixe da asteon Antonio Maria Rouco Varela elizgizonak esan duena, Espainiako Gobernuak udarako onartu gura duen Abortuaren Lege berriaren harira. Elizak duen jarrerarekin, normala da gero eta zale gutxiago edukitzea.

iturri onetik

Laixanek gertatutako Arrasate-Oñati lasterketarik ez da egongo aurten

Arrasate-Oñati lasterketaren 27. edizioa bertan behera uztea erabaki dute antolatzaileek. Laixan euskara elkartetik jakinarazi digutenez, kirol ekimen hori antolatzeak eskatzen duen esfortzua eta euskararekiko duen errendimendua ez datoz bat. Horretaz aparte, Laixanetik azaldu digutenez, azken urteotan lasterketa izaera herrikoia galtzen joan da eta parte hartzaile kopurua jaitsi egin da.

piperrautsa

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Non da ezkerra?

Oraingoan, kapitalismoak inoiz baino ageriago erakutsi ditu bere miseriak munduaren aurrean: merkatuak ez du bere burua kontrolatzen, kapitalaren jabeek jare egin diote kudeaketari eta ordezko kudeatzaileak beren poltsikorako aritu dira, inork ez daki kaos honetatik irteten.

Kapitalismoa hankaz gora eta... non da ezkerra? Nekez pentsa zitekeen egoera aproposagorik beste mundu bat amesten dutenentzat, eredu dominatzaileak porrot egin duen honako hau baino. Hau zen momentua, bat izatekotan, proposamen berriak saltzeko. Eta, gezurra badirudi ere, Obama ikusten dut oraintxe ezkertiarren: dirudunei zergak igo eta pobreei jaitsi, goi zuzendariari soldatak mugatu, osasun publikoa bultzatu, energia berriagarriak, bio-ikerkuntza...

ai, ene!



Takoidun zapatendako zira asmatu dute

Egun euritsuetan erabiltzeko produktua da goikoa. Takoidun zapatak gustuko dituztenek horiendako zira gertu dute dagoeneko.

www.nopuedocreer.com

www.mondragon.edu/gep

Lanerako gertu!

Ate irekiko jardunaldiak
Arrasateko Goi Eskola
Politeknikoan

MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

EGUNA	ORDUA	LEKUA	TITULUEN INGURUKO INFORMAZIOA
apirilak 30 (osteguna)	18:00	Gela 5001	• Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak. • Informatika Sistemen Administrazioa.
maiatzak 23 (larunbata)	11:00	Gela 5001	• Proiektu Mekanikoen Garapena. • Mekanizazio Bidezko Produktzioa. • Industri Ekipoaren Mantenimendua.

apuntatu zaitetz! aarriaran@eps.mondragon.edu edo 943739630